

ttipi-ttapa



KIROL gehigarria / 27







OBESITATEAREN AURKA LANEAN

Haurren obesitate mailarekin kezkatuta, Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako guraso, hezitzaile, profesional eta eragileek Kikili Salda lantaldea sortu dute obesitatea murriztu eta elikadura ohitura osasuntsuak bultzatzeko. / 12

Bigarrenengan udalak osatu dituzte

Narbarten izan ezik, maiatzean hutsik gelditu ziren gainerako herrietan hauteskondeak egin eta ordezkariak hautatu dituzte. / 7

SINADURAK

 JON ABRIL OLAETXEA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 ESTEBE APEZTEGUI MURUA / 4	 IZASKUN ZUBIALDE GRAJARENA / 4



ZOZKETA / 80



Etxeberria III.a Doneztebeko erreumontistaren agurra / 70



TIRIKITRAUKI
EUSKAL JANTZIETAN
AUKERA HAUNDIA

Zuloaga Kalea 16
 20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270
 emaila: denda@euskaljantziak.com
www.euskaljantziak.com



TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,
SALMENTA eta ALOKAIRUA.

DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.



Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE
 Tel.: 943 372 817
 emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com

berako agenda

.eus

f t

Abendua

berako agenda

BERAKOUDALA
 Berako kultur batzordea

14 | **MERKATUA**
BERTAKO EKOIZLEEN
MERKATUA

LARUNBATA
 10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolako arkupeetan

18 | **SOLASALDIA**
CAUSAS Y EFECTOS
DEL ALZHEIMER
(AFAN)

ASTEAZKENA
 17:00 Beralandetan (Gaztelaniaz)
 Antolatzailea Arkupeak Elkarte



Olentzero
eta Mari Domingi
ENTSAIOAK

11 | **Kalejiran parte hartuko**
duten musikarien entsaioa

ASTEAZKENA
 19:00 Musika eskolan

17 | **Abestien entsaioa**
Gurasoak + Haurrak +
Musika eskolako trikitilariak
eta panderojoleak

ASTEARTEA
 17:15 Kultur Etxean



24 | **KALEJIRA**
HERRIKOIA

ASTEARTEA
 16:00 Merkatu plazan (hasiera)
 Herriko Etxeko plaza (bukaera)
Ibilbidea: Merkatu plaza (Altzateko parkea),
 Altzateko plaza, Altzate karrika, Eztegarra pasealekua,
 Kanttonberri karrika, San Jose zahar-etxea, Eztegarra
 pasealekua, Iturlandeta karrika, Foruen plaza,
 Gernikako arbolaren zeharbidea, Herriko etxeko plaza)
 Eguraldi txarra eginez gero, Eztegarra
 pilotalekuan 17:00etan.
Ilunabarrean, helduak kalejiran ibiliko dira
 kantari, Gure Txokoak antolatua

31 | **GLIN-GLAN**
 15:00 Herriko karriketan barna
DIOSTESALBE
 18:00 Herriko karriketan barna

ASTEARTEA

ISIDORO FAGOAGA
 Musika Eskolako Emanaldiak

09 | **PIANO ENTZUNALDIA**
 18:00
 Musika eskolan

ASTELEHENA

11 | **BIOLIN ENTZUNALDIA**
 18:00
 Musika eskolan

ASTEAZKENA

12 | **TRIKITIXA ETA**
AKORDEO ENTZUNALDIA
 18:00
 Musika eskolan

ORTZEGUNA

18 | **EGUBERRIETAKO KONTZERTUA**
 18:00
 San Esteban Elizan

ASTEAZKENA





NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

A25

Azaroaren 25a, emakumeenganako indarkeriaren kontrako mundu eguna. Gizartearen erdiari eragiten dion gaitza da. Bortxaketa eta heriotza lotzen dugu, batik bat, indarkeriarekin. Baina indarkeria ere badira solas ez egokiak egitea, emakume izateagatik norbait baztertzea, indarkeria psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa edota sexuala erabiltzea. Hain agerikoak ez izan arren, emakume eta nesken salerosketa, genitalen mutilazioa, edota sexu- eta lan-esplotazioa gertatzen dira, egunero, gure hurbilean. Horiek ere indarkeria dira, emakumeen duintasuna, integritatea eta askatasuna mugatzen edo kaltetzen duen edozein ekintza bezalaxe. Gizonek eragindakoa da, baina gure inguruan, generoaz, sexualitateaz, askatasunaz eta berdintasunaz, oro har, apenas solastatzen gara gizonok. Are gutiago espazio publikoan. Familian, komunitatean, eskolan, lanean edota karrikan gertatzen da, eta hortaz, guri ere badagokigu hausnartzea eta gaiaz solas egitea. Eta jokabidea aldatzea. Nik libre nahi zaituztedalako.

«GIAZ SOLAS EGIN ETA JOKABIDEA ALDATZEA GURI ERE BADAGOKIGU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Matematika maite zuen ume jolastia

Toribioti Errege tripontziak kometa kendu zionean, Txilipito Jaunaren isunen beldurrik gabe, koloretako klariona hartu eta *JOLASTEA DEBEKATUA DAGO* zioten hizki handien behegian halaxe idatzi zuen Kintxo Barriletek: *(NA) Batuketak ez gaitzala zatitu, biderkatu baizik*. Toribiotok eta Txilipitok ez zuten ulertu; bere lagunak bai. Eta guk? (Besarkada bat PP eta MM).

NABARMENTZEKOAK



NAHIA BARCENILLA
LANCHAS
BERAKO HAURRA



ISABEL
INDA ARREGI
OHOREZKO ALKATE

Heste laburraren sindromea duen Berako Nahia Barcenilla Lanchasen argazkia NUPA elkarteak jende ospetsuarekin argitaratzen duen elkartasun egutegian sartu dute.

Sortzez gazteluarra, baina 30 urte zituenetik Sunbillan bizi den Isabel Inda Arregik ehun urte bete ditu berriki. Hori dela eta, ohorezko alkate izendatu du Sunbillako Udalak.

ATZERA BEGIRA



2009-11-26 · TTIPI-TTAPA · 507 zk.

Irati Otxoteko txirrindulari lesakarrarekin

15 urterekin, Irati Otxoteko Arlegi lesakarra errepidean Nafarroako txapelidun izan zen duela hamar urte, kadete mailan. Hala ere, «pistan eta abiaduran hobeki» moldatzen zela kontatu zion 2009an TTIPI-TTAPAri eta horren seinale izan ziren garaipenak: Nafarroako txapela, Euskal Herri mailan bigarren postua, estatu espainiarrean hemeretzigarren... Bederatzi urterekin hasi zen bizikletan: «kirola gustatzen zitzaidan; pilotan, futbolean, bizikletan.. denetan aritzen nintzen. Aitak bizikleta talde batean izena ematera animatu ninduen». «Lehenbiziko urtea gogorra» egin omen zitzaion, «ez nituen taldekideak ezagutzen eta tarteka uztea pentsatu nuen». Urtea bukatuta, ordea, «segitzeko txirrinta» sartu zitzaion.



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu



Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka 26€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€





KOLABORAZIOAK

ESTEBE APEZETXE MURUA

Demokraziaren izenean

Espainiako Gorteak berritzeko enegarren hauteskundeak pasatu berriak ditugu eta orain inbestidura-ekitaldira arte jasan beharko ditugun alderdien arteko itun, purrustada eta irakaspenen garaian bete-betean murgilduta gaude. Baina ez, ez naiz lerro hauetan eskuin mutur faxistaren alimaleko igoeraz edota beren burua ezkertiarizat duten horien jokaldi traketsaz arituko, erregimen politiko honek gugan duen eraginaz baizik.

Demokrazia hitz potoloa da erabiltzailearen ezpainetan eta bere burua demokratizatzen duen edonork lezioak lau haizeetara emateko zilegitasuna lortzen duela ematen du. Horrela ikusten dugu politikarien arteko eztabaidetan eta kazetarien solasaldietan. Gurekin, ilegalizazio garaian, bonba eta bozken arteko hautua egin behar genuela iradokiz betetzen zitzairen ahoa. Armen aitzakiapean, herri-mugimendu osoa kolpatu zuten behin eta berriz. Paradoxikoki, Katalunian tortillari buelta eman diote eta kasu honetan erreferendum bidezko bozketa bat eginez sistema barnetik aldatzen saiatu zirenak dira demokraziari eraso egin omen diotenak. Bistan da nor diren ongiaren eta gaizkiaren dominak paratzen dituztenak.

Gauzak horrela, argi dago demokrazia honetan ez dagoela

«IRUZUR HONETAN
PARTE HARTZEAK
NOLABAIT KONPLIZE
BIHURTZEN GAITU»

edozein proiektu politikoa aitzinera eramateko aukerarik. Demagun, futbol partidu batean, haiek arautzen dituztela jokoaren nondik norakoak, zelaiaren neurriak, gure atea handi-handia dela eta haiena berriz arras ttikia, haiek hamaika jokalarirekin jokatzeko dutela eta guk seirekin; eta hori gutti balitz, gol bat sartuz gero haiek jarritako epaileek gola baliogabe uzten dutela. Ezinezkoa izanzen litzateke partidua irabaztea, ezta? Bada, horrelako zerbait gertatzen da hemen. Estatu mailako hauteskundeetan ezinezkoa da babes zabala izatea, guzira banatzen diren 350 eserlekuetatik 23 bakarrik baitagozkio Hego Euskal Herriari. Autonomikoetan gehiengoak lortzeak aldiz, ezer guttirako balio du konstituzioaren langa parez pare izanda.

Zertara joaten dira independentzia aldarri duten alderdiak Madrilera orduan? Nik behintzat, gero eta zentzu guttiago hartzen diot joateari eta uste dut iruzur honetan parte hartzeak nolabait konplize ere bihurtzen gaituela. Izenaren beraren erranahiak adierazten duen oinarrietatik urrun, gaur egun kapitalaren eta estatu totalitarioen interesak bertzerik ez dira bermatzen eta herritarrak berau zerbitzatzeko dugun txorimalo bilakatu gara. Baina bozkatzeko ez badu gure proiektuak gauzatzeko balio, zer egiten ahal dugu? Gauza pare bat okurrizten zaizkit, baina isildu egingen naiz demokraziaren izenean.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Euskara zapaldu nahian

Lotsagarria. Horixe da, beste adjektibo batzuekin batera, burura etortzen zaidan hitza.

San Saturnino egunean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots euskal pailazoen Iruñeko Baluartearen emanaldia hitzartuta zuten. Aurreko Udalak egin zuten kontratazioa, izan ere, 1986. urtean onartutako Euskararen Foru Legearen arabera, Iruñerria eremu mistoan kokatzen da. Hori kontutan hartuz, eta bertako biztanleak eta ingurukoek euskarazko ikuskizunaz gozatzeko eskubide guztia dutela kontuan izanda, ikuskizun hori antolatuta zuten. Baina, dirudienez, oraingo udal ordezkariak ez dute hori ulertzen (edo ez dute ulertu nahi). Euskararen aurkako kanpainari ekin diote, haurrei euskarazko ikuskizun batera joateko eskubidea ukatuz.

Hortik hasi dira, baina ez da aste hauetan euskararen aurka egin duten ekintza bakarra izan. Izan ere, euskarazko testuliburuak berrikustea ere martxan jarri dute NA+-ren botoekin eta PSNren abstentzioarekin. Helburua D ereduko testuliburuetan nazionalismo «ideiak» ekiditea omen da, indarrean dagoen legedia betetzen duten jakiteko. Baina benetan beharrezkoa da? Gure eskoletan ideia politikoak edo doktrinamendua ematen dela uste al dute? Ni irakaslea

«ERASOekin
EUSKARA INDARTZEA
BESTERIK EZ DUTE
LORTZEN»

naiz eta badakit zertaz hitz egiten dudana. Gure eskoletan curriculumak markatzen dituen edukiak ematen dira, hainbat metodologia erabiliz, besterik ez, agintari jaun-andreak! Benetan amorrarazten nau gai honek. Baina zer pentsatzen dute, denak beraiek bezalakoak direla? Ikasturte hasieran programazioak egiten dira eta ikuskari batek onartzen ditu, beraz, zer gehiago behar dute?

Hizkuntza aberastasuna da herria aberasten duen erreminta. Eta euskarak badu beste hizkuntzek ez duten botere berezi bat. Euskara Europan bizirik dagoen hizkuntzarik zaharrena da. Hainbat ikerlari eta linguistek diotenez, neolitiko garaian edo antzinago koka daitekeen hizkuntza da. Gure arbasoek erabiltzen zuten hizkuntza da, eta, hainbat garaitan, erasoak jasan arren, bizirik dirauen hizkuntza.

Hizkuntza ez da politika, ondare kulturala baizik. Eta beste eraso honetatik ere garaile aterako da. Ez izan beldurrik euskara, guk zure alde egingo dugu eta. Izan gaitzean guztiok inoiz baino euskaldunago. Bizi gaitzean euskaraz, hitz egin dezagun euskaraz. Erasoekin euskara indartzea besterik ez baitute lortzen.

11 GALDERA LABUR

YONI SALABERRIA GOIZUETAKO MARGOLARIA

«Korapiloak askatzen ikasiz gero, estresa dibertsio izan daiteke»

Aurkeztu zure burua.

Egunerokoan arte eta espresio arloak jorratzen dituen 22 urteko goizuetarra naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Musika, marrazkiak egitea, margoa eta psikologia. Tarte-ka, mendian barrena galtzea ere gustuko dut.

Nondik datorkizu marrazteko zaletasuna?

Osaba bat izan nuen abiapuntu. Bere lanak ikustean, bera bezalako izaten saiatzen nintzen. Denbora pasa ahala, barneko korapiloak askatzeko erreminta bihurtua zela ohar-tu nintzen, eta ordutik, nire bizitzaren atal bat da.

Nork erakutsi dizu?

Batzuetan ez dago norbera baino irakasle hoberik, baina

ereduak izatea ez dago soberan. Osabaz gain, telebistan ikusten nituen formak izan nituen oinarri.

Zer da zure marrazkien berezitasuna?

Ikuslea leku ilunetara eramaten dute, leku hotzetara. Barrura begiratzeko leihoak irekitzen ditut eta sentimendu tristeak, bakartiak edota desesperatuak agertzen dira.

Nolatan eman zenuen izena 'Arimaren Margolariak' saioan?

Kasualitatez. Izebak kartela ikusi eta bidali zidanean pentsatu gabe deitzea erabaki nuen. Sorpresa! Izugarria izaten ari da, bai ikasten ari naizenagatik, baita ezagututako jendearengatik. Bertan margoen esentzia ikusi dut, orain



arte ez nuen inoiz arkatzetatik eta arte digitaletik harago jo.

Musika munduan ere bazabiltza...

Beti izan dut kontaktu. Marrazkia ez bezala, musika eta abesteko zaletasuna ezkutuan gorde dut berriki arte. Lagun on batek bultzatuta, barrenak ikertzen ari gara orain.

Musika eta margolana uztartze-ko modurik bada?

Artea bat bakarra eta osoa dela uste dut, ez dago musika eta irudia zatitzerik.

Sormenerako txoko bat...

Herriko errekek eta mendiak dira inspirazio iturri onena.

Zer du Goizuetak bereizgarri?

Lasaitasun eta giro itzel eta bakarra, bertako biztanleek sortua.


Amets bat?

Dakidana eta ikasten ari naizena partekatu nahiko nuke. Akademiako bat sortu eta haur zein helduei tentsioak askatzen lagundu. Estresa dibertsio bihurtu daiteke.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA
948 230 634

Opari praktikoak! Zorionak!

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toiletak



IRAKURLEAK MINTZO

Baztan Futbol Kirol Elkarteari

ENEO ESKUDERO AMIANO

ERDIZ BIZIRIK TALDEAREN IZENEAN

Azken hilabeteetan, berriz ere, izan dugu Baztanen Magna enpresa multinazionalaren berri. Baztanen nekazaritarako, aisialdirako, eta bizitzeko ezinbertzekoak diren herri lurretan, proiektu suntsitzaile bat proposatzera etorri dira. Baditugu 20 urte borroka honetan, bide luzea bezain eraginkorra izan da eta aunitz ikasi dugu bidean. Hasiera horretan baztandar aunitzek Erdizen meategi bat egitea aukera ona bezala ikusten bazuten ere, behin informazio guztia aitizinean edukita ezinezkoa bihurtu zitzaizen gure herri eta luraren kontrako eraso hori defenditzea.

Joko zikin eta bihurriak erabili zituzten proiektu hori inposatu nahian. Tranpa horietan berriz ere ez erortzeko erabilitako estrategiak oroitaraziko ditugu. Batzar Nagusiaren baimenik gabe zundaketak egin ziren; bertako kirol elkarteak eta eragileak diruz erosten saiatu ziren; Nafarroako Gobernuo babesarekin Natura 2000 eremu babes-tuan, auzitegiak legez kontrakoa izendatutako proiektu batekin, Zilbetitik sartzen saiatu ziren; udal ordezkarien botoak, lanpostuen truke, baldintzatzen saiatu ziren; langileen eta nekazarien arteko borroka irudikatu nahi izan zuten; eta abar luze bat. Hala ere, auzo-lanean, elkartasunez, eta borrokatuz proiektua gelditzea lortu genuen.

Oraingoan ere asmo eta helburu berdinekin heldu dira, eta neurri berekoa izanen da gure erantzuna. Aurten jakin dugu Magnak, Baztan Futbol Kirol Elkarteari 8.000 euro eskaini dizkiola bi denboralditarako. «Laguntza» bezala irudikatu nahi badute ere, garbi dago aurpegi zuritze eta herri honen borondatea erosteko saiakera bat bertzerik ez dela. Hau ez da bertako merkatariek ematen duten laguntzaren parekoa. Bertako merkatariek herrian bizi dira eta

beren sakelatik ematen dute laguntza hau. Magna bezalako multinazionalak, berriz, aberatsei ematen zaien zerga abantailetatik eta bertze hainbat azpi-jokoetatik lortzen duten dirua ematen dute. Hau da, berez herriari dagokiona herriari «laguntza» bezala eskaintzen diote herri lurak bereganatzeko kanpaina abiatzeko.

Guzti honengatik, Erdiz Biziriketik Baztan Futbol Kirol Elkarteko kideei, laguntza bezala mozorrotua dagoen eroskeri honi uko egitea eskatzen dizuegu. Neutraltasuna ez da existitzen eta arduraz jokatzeko eskatzen zaizue. Gure aitzinetik Baztango lurak landu eta zaindu dituztenengatik, gaur egun Baztango ekonomiaren ardatza diren nekazari eta herritarrengatik eta heldu diren belaunaldiengatik. Ingurumenaren eta Tokiko Ekonomiaren Alde! Baztan ez dago salgai!

Hizkuntza kolonialean, dekolonizatzen ahal gara?

INES MATXIARENA GOLDATZ BERA KO EMAKUME FEMINISTEN TALDEA, UHAINA APEZETXEA BAZTANGO TALDE FEMINISTA, HARRI ARRIJURIA PLAZARA DANTZARA, HELENA XURIO ZUGARRAMURDIKO FEMINISTAK, LOREA FLORES COMPAINS LESAKAKO EMAKUME TALDEA, MIKELE ETXEKOLONEA DIEZ EMURA MALERREKAKO ETA BERTIZARANAKO TALDE FEMINISTA

Hilabete hasmentan Euskal Herriko Jardunaldi Feministetar joan ginen eskualdeko emakume* kuadrilla bat. Salda zegoela iragarria ziguten, eta iragarpenak espero bezala bete ziren.

Ahoan bilorik gabe mintzatu zitzaizkigun Durangon, bakoitza bere egia-terren argazkiaren berri ematea, eta zapalkuntza horien guztien aitortzatik abiatzen dugu gure hausnarketa. Herri eta klase zapalduko emakume* gisa, argi dugulako bertzeen mina gurea ere badela.

Baina jardunaldietan, gure borroka ikusezina, eta bigarren mailakoa zela sentitu genuen. Euskara erdigunean egonen zela iragarria bazen ere, laster konturatu ginen, alderantziz izanen zela. Hizkuntza kolonialean aditu behar izan genituen bertaratutako hainbat mezu. Momenturen batean, hizkuntza koloniala euskararen aldean egokiagoa zela saldu nahi izan ziguten, euskara gauza batzuk azaltzeko baliagarria ez dela ulertaraziz. Hainbat adibide ditugu euskaldunon eskubideen kontrako erasoak kontatzeko.

Hizkuntza ez da neutrala, bi hizkuntza zapaltzaile daude herri honetan (espainola eta frantsesa) eta bertze bat zapaldua (euskara). Hau horrela izanik, euskaraz mintzatzea ekintza feminista da.

Hizkuntzak, bertze gauzen artean, mundua ikusteko modu bat ematen digu. Bertze jatorrizko herrietan bezala, lurra erri komunikatzeko eta oreka mantentzeko ezinbertzeko tresna da. Landa eremuan bereziki mantentzen den ikuspegia da, hirietako adreilu eta zementuak arruntean estaltzen duena. Nabarmen gelditu da jardunaldi hauetan ere, guk hiriaren berri izanagatik, hiritarrek ez dutela gure berri. Euskal Hiritik teorizatzen dugun bitartean, Euskal Herria itotzen ari da. Lurraren eta hizkuntzaren kontrako etengabeko eraso honetan, feminismotik ditugun gabeziak nabarmenak dira. Lurraren eta jatorrizko herrien defentsa bizitza beraren defentsa den arren.

Etorkizunerat begira, argi dugu gure esku dagoen lana dela ikuspegi hau jorratzea eta plazaratzea. Argi dugu baita ere, bildu ginen 3.000 emakume* ingururen artean aunitz gehiago dela batzen gaituena bereizten gaituena baino, eta elkar aitortzatik zubiak eraikiz, lortuko dugula Euskal Herri feminista, euskalduna eta lurra atxikia dena. Denak elkarrekin, auzolanean.

Bigarrenean udalbatzak osatzea lortu dute

Eskualdeko sei udalerritan eta Legasako kontzejuan hauteskundeak egin dituzte eta ordezkari politiko berriak izendatu dituzte. NARBARTEN, hauteskunderik egin gabe gelditu dira

TTIPI-TTAPA

Malerrekako sei udalerritan eta Legasako kontzejuan hauteskunde eguna izan zuten azaroaren 17a. Maiatzeko hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez zen herrietan egin ziren eta NARBARTEN kontzejuan izan ezik, gainerakoan osatu dituzte taldeak. Oro har, parte-hartze baxuko bozak izan dira. 2015eko datuekin alderatuz, Urroz da parte-hartzean goiti egin duen bakarra; lau puntu hazi da. Baina gainerakoetan herritarrek nahia go izan dute etxean gel- ditu: Iturenen %15 jaitsi da parte-hartzea, Ezkurran %17,4, Elgorriagan %21,1, Oizen %21,6 eta Eratsunen %24,71.

250 biztanletik behetik herriak dira Oiz, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra eta Urroz. Kasu horietan, botoa hautagaiei ematen diete eta hauteskundeon ondotik, hautagaiek euren artean erabakitzen dute nork hartuko duen aginte-makila. Lerro hauek idazterakoan herri batzuetan zehaztua zuten. Legasako kontzejuan ere, hautagaiei ematen dizkiete botoak eta gehien bildu dituen hautagaia izaten da alkate. NARBARTEN, berriz, bigarren deialdian ere ez denez inor aurkeztu, Nafarroako Gobernuak gestora bat izendatuko du.

Iturenen Jabier Bereau

Sorpresarik gabeko udal hauteskundeak izan dituzte Iturenen. EH Bilduren zerrenda bakarra aurkeztuta, aitzinetik jakina zen Jabier Bereau Mikelarena izanen dela alkate. Zinegotziak Joxe Mari Alzuri Bertiz, Jone Altxu Juanikorena,

Miren Ilarregi Belarra, Pello Ariztegi Etxepeteleku, Maria Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Altxu izanen dira.

Ezkurran Jaione Zabalo

Ezkurran Jaione Zabalo izanen da borts hautagaien artean boto gehien bildu dituen. Bere ondotik, hurrenkera honetan gelditu dira: Bautista Mariezkurrena Mariezkurrena, Jose Mari Gogorza Jauregi, Pello Zestau Juantorena eta Julian Gogorza Jauregi.

Eratsunen Iñaki Estanga

Eratsunen ere erabaki dute zein izanen den alkatea: Iñaki Estanga Mitxelena, hauteskundeetan boto gehien bildu dituen hautagaia. 30 boto bildu zituen, Mari Jose Mitxelena Otegik 26, Olatz Bernal Goikoetxeak 25, Ana Greño Salvatierrak 21 eta Miriam Miguel Antolinek 16.

Urrozen parte-hartzeak goiti

Urrozen Josu Zozia Ubiria izan da bozkatuena (60) eta bere gibeletik Imanol Juanena Aleman (53), Unai Madariaga Iribarren (50), Mikel Zozia Ursuegi (47) eta Patxi Urroz Telletxea (29) gelditu dira. Lerro hauek idazterakoan hautagaiek erabaki gabea zuten zein izanen den alkate.

Elgorriagan bederatzik lagun

Bozkatuena Ane Otxandorena Juanena izan da (65 boto); bigarrena Eva Martin Ibarra (58) eta ondotik Xabier Irisarri Goienetxe (36), Iosu Irurueta

ERATSUN

DAGONA

Iñaki ESTANGA MITXELENA

	2015	2019
Zentsoa	143	141
Parte-hartzea	83	47
Dagona		5 43
Latargi	5 56	
Baliogabeak	7	3
Zuriak	5	1

ELGORRIAGA

ELGORRITARRAK

	2015	2019
Zentsoa	171	181
Parte-hartzea	124	93
Elgorritarrak		5 87
Elgorriaga	5 67	
Baliogabeak	7	2
Zuriak	28	4

URROZ

HERRIKO TALDEA

	2015	2019
Zentsoa	158	157
Parte-hartzea	67	73
Herriko Taldea		5 72
Alkartasuna	5 57	
Baliogabeak	5	0
Zuriak	5	1

Zinkunegi (29) eta Jaione Irisarri Goienetxe (23). Lerro hauek idazterakoan alkatea zehaztu gabea bazuten ere, Udalaren martxaz arduratuko dena bederatzik laguneko lantaldea izanen dela nabarmendu dute. Xuri Martin Ibarra, Abel Bastida Granada, Itziar Martin Ibarra eta Gorka Del Rio Lopez ere ariko dira Herriko Etxean.

Oizen alkatea erabaki gabe

Lau hautagaien artean Ugutz Zelaieta Fernandez izan da bozkatuena (32) eta egun al-

ITUREN

EH BILDU

Jabier BEREAU MIKELARENA



	2015	2019
Zentsoa	395	383
Parte-hartzea	273	207
EH Bildu	7 205	7 188
Baliogabeak	45	12
Zuriak	23	7

EZKURRA

IDOIA

Jaione ZABALO JUANTORENA



	2015	2019
Zentsoa	148	137
Parte-hartzea	83	53
Idoia	5 31	5 53
Baliogabeak	2	0
Zuriak	11	0

OIZ

ALKARTASUNA

	2015	2019
Zentsoa	112	102
Parte-hartzea	78	49
Alkartasuna	4 43	4 46
Berrikuntza	1 25	
Baliogabeak	0	0
Zuriak	1	3

LEGASA

KONTZEJUA

Jesus Mari ETXART ANSALAS



	2015	2019
Zentsoa	-	183
Parte-hartzea	-	79
Taldea	-	4 78
Baliogabeak	-	0
Zuriak	-	1

katea den Jaime Urroz Telletxea bigarrena (31). Fidel Aristegi Ansok 27 boto bildu ditu eta Rakel Ariztegi Ariztiak 25. Herrietako bat izanen da alkate.

Legasan Jesus Mari Etxart

Legasan, 72 boto lortuta Jesus Mari Etxart Ansalas izanen da alkate, baina talde bezala ariko dira lanean; Etxart eta 25 boto bildu dituen Aintzane Martirena Hernandorena eta 24na boto jaso dituzten Koro Ibarra Santxotena eta Asier Hernandorena Lizaso.

Apirilean bezala alde handiarekin EH Bildu nagusi

Urrozen izan ezik (Geroa Bai), eskualdeko gainerako herrietan EH Bildu izan da boto gehien eskuratu dituen indarra, eta orotara, apirilean baino 600 boto gehiago bildu ditu


Botoen %45,4 lortuta, EH Bildu irabazi ditu Espainiako Kongresurako hauteskundeak eskualdean. Are gehiago, apirileko hauteskundeekin alderatuz, nahiz eta parte-hartzeak ia zortzi puntu egin duen beheiti, orduan baino 600 boto gehiago eskuratu ditu. Eskualdeko herri guztietan izan da boto gehien eskuratu dituen indarra, Urrozen izan ezik, hor Geroa Baik irabazi baitu. Aipatzekoa da, Nafarroa osoan hauteskunde hauetan Geroa Bai nagusitu den herri bakarra Urroz izan dela.

la guztiek beheiti

Beharakada handia izan du Geroa Baik azaroko hautes-


kunde hauetan, bigarren indarra izatetik laugarren indarra izatera pasatu baita; 2.776 boto lortzetik 1.526 jasotzera, 1.250 boto guttiago.

Gainerako alderdi guztiek ere beheiti egin dute eskualdeko 25 udalerrietan: PSOE izan da bigarren bozkatuena, baina 182 boto galduta (2.092tik 1.910era) eta Navarra Suma hirugarrena 224 boto guttiagorekin (1.791 bototik 1.567ra). Bosgarren indarra izan den Podemosek ere beherakada handia izan du, apiriletik 459 boto galdu baititu (1.956tik 1.497ra) eta Voxek ere beheiti egin du: apirilean 208 boto jaso zituen eta 193 hartu ditu aldi honetan.




BAZTAN

	A28	A10
EH Bildu	1.314	1.500
Navarra Suma	749	631
PSN-PSOE	585	587
Geroa Bai	731	381
Podemos	512	379
Vox	70	58
Bertzeak	42	32
Errolda	6.002	6.016
Parte-hartzea	4.111	3.675
Abstentzioa	1.891	2.341
Baliogabeak	50	66
Zuriak	58	41




BERTIZARANA

	A28	A10
EH Bildu	115	125
PSN-PSOE	59	49
Navarra Suma	47	37
Podemos	46	30
Geroa Bai	42	29
Vox	2	3
Bertzeak	3	1
Errolda	454	453
Parte-hartzea	322	279
Abstentzioa	132	174
Baliogabeak	4	3
Zuriak	4	2




BORTZIRIAK

	A28	A10
EH Bildu	1.555	1.735
Podemos	851	643
PSN-PSOE	770	638
Geroa Bai	953	620
Navarra Suma	438	406
Vox	47	42
Bertzeak	35	37
Errolda	6.505	6.514
Parte-hartzea	4.715	4.194
Abstentzioa	1.790	2.320
Baliogabeak	29	36
Zuriak	37	37




MALERREKA

	A28	A10
EH Bildu	873	967
PSN-PSOE	390	374
Geroa Bai	603	295
Navarra Suma	320	292
Podemos	315	248
Vox	46	49
Bertzeak	28	19
Errolda	3.771	3.763
Parte-hartzea	2.632	2.281
Abstentzioa	1.139	1.482
Baliogabeak	19	17
Zuriak	38	20



LEITZALDEA URUMEALDEA

	A28	A10
EH Bildu	1.221	1.329
PSN-PSOE	247	219
Podemos	203	171
Geroa Bai	370	163
Navarra Suma	163	143
Vox	31	29
Bertzeak	7	3
Errolda	3.180	3.180
Parte-hartzea	2.277	2.090
Abstentzioa	903	1.090
Baliogabeak	19	18
Zuriak	16	15




URDAZUBI ZUGARRAMURDI

	A28	A10
EH Bildu	72	94
Navarra Suma	74	58
PSN-PSOE	41	43
Geroa Bai	77	38
Podemos	29	26
Vox	12	12
Bertzeak	3	3
Errolda	458	461
Parte-hartzea	322	287
Abstentzioa	136	174
Baliogabeak	5	5
Zuriak	9	8

Mapa are berdeagoa

2019ko apirilaren 28a



EH Bildu Geroa Bai Navarra Suma Podemos - Ahal Dugu PSN-PSOE

2019ko azaroaren 10a



EH Bildu Geroa Bai Navarra Suma Podemos - Ahal Dugu PSN-PSOE

2019ko azaroaren 10a



	Errolda	Parte-hartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	EH Bildu	PSOE	Navarra+	Geroa Bai	Podemos	Vox	Bertzeak
ARANO	100	52	48	0	0	33	5	2	7	4	0	1
ARANTZA	477	303	174	2	2	176	28	19	47	27	2	0
ARESO	212	134	78	2	2	73	16	9	14	15	3	0
BAZTAN	6.016	3.675	2.341	66	41	1.500	587	631	381	379	58	32
BEINTZA-LABAIEN	198	83	115	1	1	22	12	16	16	12	2	1
BERA	2.761	1.776	985	28	13	659	303	193	205	339	9	27
BERTIZARANA	453	279	174	3	2	125	49	37	29	30	3	1
DONAMARIA	338	229	109	2	1	104	35	31	33	20	1	2
DONEZTEBE	1.228	823	405	8	6	288	158	156	90	94	17	6
ELGORRIAGA	179	124	55	0	3	60	14	13	17	14	3	0
ERATSUN	139	67	72	0	0	19	12	7	16	9	4	0
ETXALAR	627	385	242	0	5	166	45	54	46	58	11	0
EZKURRA	135	60	75	0	1	23	11	11	11	3	0	0
GOIZUETA	583	373	211	1	3	290	25	8	25	16	3	2
IGANTZI	475	313	162	3	5	141	55	25	52	26	4	2
ITUREN	388	239	149	1	3	142	35	10	19	21	5	3
LEITZA	2.275	1.531	754	15	10	933	173	124	117	136	23	0
LESAKA	2.174	1.417	757	3	12	593	207	115	270	193	16	8
OIZ	99	53	46	1	0	18	6	5	13	7	3	0
SALDIAS	99	50	49	0	0	24	7	0	8	6	3	2
SUNBILLA	572	347	225	4	4	158	62	24	39	46	7	3
URDAZUBI	282	196	86	3	6	51	32	47	33	16	7	1
URROZ	157	69	88	0	0	14	15	13	21	3	2	1
ZUBIETA	231	137	94	0	1	95	7	6	12	13	2	1
ZUGARRAMURDI	179	91	88	2	2	43	11	11	5	10	5	2
Denetara	20.387	12.806	7.582	145	123	5.750	1.910	1.567	1.526	1.497	193	95



Oihana Elzaurdia Ariztiak –argazkian erdian– hilabete bat pasatu du Nepalen boluntario lanetan. UTZITAKO ARGAZKIAK

«Nepalen funtzionalitate anizkoitza bekatu baten ondorio dela uste dute»

OIHANA ELZAURDIA ARIZTIA NEPALEN BOLUNTARIO IBILI DEN BERATAR FISIOTERAPEUTA

Nepalgo hegoaldean dagoen Hetauda herrian hilabete batez ibili da behar bereziak dituzten haurren eskola batean fisioterapeuta gisa lanean. Egondia aunitz ikasteko bidea izan dela aitortu du

G. PIKABEA BERA

«Oraina bizitzaren garrantziaz» ohartuta eta «dena edukitzegatik ez garela hobeki bizi» ikusita itzuli da Oihana Elzaurdia Ariztia (Bera, 1997) Nepalitik. Esperientzia «politik» izan dela dio, eta «gustura» itzuliko litzatekeela berriz. Fisioterapia ikasketak bukatuta, abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera hilabete bat pasatu du Nepalen, Familia de Hetauda Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) bitartez, behar bereziak dituzten haurren eskola batean fisioterapeuta gisa boluntario.

Zergatik Nepal?

Fisioterapiako karrerako lehenbiziko mailan, kooperazio

lanak egiteko programa aurkeztu ziguten, tartean, Nikaraguara joateko aukera. Ikasketak bukatu eta harat joatea pentsatu nuen, baina karrera bukatzerako Nikaraguan egoera aldatu zenez, programa bertan behera utzi behar izan zuten. Arantza hori gelditu zitzaidan eta nire aldetik bilatzen hasi nintzen. Zentro batean praktikan ari nintzela, tutore batek Nepalen fisioterapeuta gisa aritzeko aukeraren berri eman zidan, edo ni Ekuadorra joaten ahal nintzela ere aipatu zidan. Hasieran Ekuadorra aukeratu banuen ere, azkenean Nepalera joatea erabaki nuen, programa erakargarriagoa zelako eta fisio-

terapeuta lana egiteko aukera eskaini zidalako.

Nolako erakundea da Familia de Hetauda?

26 urte dituen Aina Barca katalanak sortua da. Duela bost urte Nepalera bidaiatu zuen eta behar bereziko haurrak sozialki hagit baztertuak zudelako ikusi zuen. Behar berezikoak izateagatik muturreko egoeretan daude, kioletan biziteraino. Karman sinesten dute eta bertez bizi batean bekatua egin dutenak funtzionalitate anizkoitza duten pertsona batean haragitu direla sinesten dute, hau da, bertez bizi batean akatsen bat egin dutenei ezarritako zigorrak direla. Ez daude ongi ikusiak,

eta gainera, hagit herrialde pobrea denez, baserriko lanetan laguntzeko ez dietela balio sentitzen dute, lan-zama dirrela. Hori ikusita Ainak eskola bat sortzea erabaki zuen, eta herritik urruti bizi diren haurrek lo egiteko egoitza dute.

Zer moduzko eskola da?

5 eta 20 urte bitarteko haurrak hartzen dituzte. Nepal hegoaldean dago, Hetauda hiritik pixka bat aparte, Indiatik hurbil. 60-70 bat haur dira, baina itxarote-zerrenda luzea dute.

Zertan ibili zinen?

Langileak formatzen aritu nintzen. Eskolako langileak ikasketarik gabekoak dira. Fisioterapeuta bezala aritzen den emakumeak, adibidez, boluntarioengandik jaso du formazioa eta horren arabera lan egiten du. Praktiki esperientzia handia du, baina alde teorikoa boluntarioek erakusten diote. Nire kasuan, egunero, bederatzietarako oinez egoitzara gosaltzera joaten nintzen eta hamarretan eskolara. Goiza eskolan pasatzen genuen eta haurrak joandakoan ere bertan gelditzen ginen, bero handia egiten zuen kanpoan eta ezin zen bertez inon egon. Gainera, mahaia eta aukiak dauden herriko leku bakarra eskola da eta materiala prestatzeko han gelditzen ginen. Gosaldu eta afaldu egoitzan egiten genuen, arroza, eta bazkaldu eskolan, palomitatek eta halakoak.

Zein da haur horien egoera?

Eskola hagit ongi prestatua da, herrian luxu handiena duen etxea dela erranen nuke, eta gelek hemengo Haur Hezkuntzako gelak dirudite, marrazkiekin apainduak eta boluntarioek eramandako materialekin hornituak. Ezin da bertako bertez eskolekin konparatu, horiek bukatu gabeko eraikinak direlako eta 400 bat haur elkarrekin egoten direlako. Hortaz, eskolan ongi daude, baina etxera itzultzean ez dute deus onik espero. Orain dela aste batzuk egoitzan bizi zen haur bat hil zen, oporretan,

katarro batekin, etxera itzuli zenean; segur aski gurasoek ez zutelako ongi zaindu.

Nolako ezaugarriak dituzte?

Denetarik dago. Kasu aunitzetan ttikitatik estimulatatu ez dituztelako daude dauden egoerari. Halere, deigarria da ezintasun fisikoak izan eta inoiz laguntzarik jaso ez dutenak nola bizkortzen diren ikustea. Tetraparesia duen pertsona bat ibiltzen ikus dezakezu, zutik jarri eta paretaren kontra erdi etzanda bada ere, oinez. Hemen zailtasun guztien aitzinean laguntzen saiatzen gara, han, ordea, zailtasunei bakarrik aitzin egin behar die, hauetara egokitu eta edozein motatako estrategiak erabiliz.

Nepalen egindako egonaldian, familia baten etxean egon zinen.

Nolakoa zen familia?

Beti familia berak dira boluntarioak etxean hartzen dituztenak. Ni egon nintzen etxean, emakume bat, senarra eta bi haur bizi ziren, baina bertze boluntario bat emakume horren ahizparen etxean bizi izan zen 17 lagunekin. Esker oneko jendea da eta hain gutti edukita aunitz ematen duena.

Zein behar dituzte?

Ez dute deusen beharrik sentitzen. Hagitz bizitza xumea dute. Egunero goizeko bortzetan ernatzen dira, eta baratze-ko lanak egitera joaten dira. Dena eskuz eta dena emakumeek egiten dute. Ez nuen gizonezko aunitzikikus; hirian lanean egonen ziren edo militarrek izanen ziren... Bara-

«DENA EDUKITA EZ GARA NEPALEN BAINO KONTENTUAGO BIZI»

«ORAINA BIZI DUTE ETA HORREK LASAITASUNA EMATEN DIE»



Elzaurdia eskuinean, Hetaudako eskolan. GKEren bitartez, behar bereziko haurren eskola horretara laguntza bidal daiteke.

tzeko lanen ondotik, 20-30 kiloko belar fardoak bizkarrean hartu eta etxeraino oinez joaten dira gosaltzera. Arroza gosaldutik, nire etxe-koandrea eskolara lanera joaten zen eta arratsalde arropak garbitzera. Hagitz kontent bizi dira eta gustura bizi direla erraten dute, ez luketela deus ere aldatuko. Are gehiago, kontent egoteko eta irri egiteko mezuak luzatzen dituzte.

Munduko herrialde pobreenetako bat da Nepal...

Bai, baina toki batetik bertze-ara bada aldea. Katmandu hiriburua eta Chitwan parke nazionala ezagutzeko aukera izan nuen eta toki turistikoetako jendea diferente bizi dela ikusi nuen. Hiriburua kaosa iruditu zitzaidan, autoak nonahi eta zikina. Hetaudan, ordea, ez dago autorik, gehienez ere bizikletaren bat, eta bideak harrizkoak dira. Auzo handi eta lasaia da, eta etxeek lau gela eta komuna dituzte. Komuna zulo bat da eta dutxatu kanpoan egiten dira, balde batekin. Sukaldea gela horietako bat da, egurrezko altzari batekin eta harraskarik gabe, kanpin-gas bat duena eta ondoan ohatzea. Ohatzeak gainean koltxoi fin bat duten egurrezko altzariak dira, eta

burkoek harri kozkorak dirudite. Baina hori bai, telebistak eta mugikorrek denek dituzte. Gainerakoan, etxean arratoiak, muskerrak, saguak... denetarik tokatu zitzaidan. Argindarra egunero joaten da, eta dagoe-anean, goiti eta beheiti ibiltzen da. Etxeko haizagailua ez gelditzeko desiratzen egoten nintzen, hura geldituz gero etxeko fauna aditzen nuelako.

Emakumeak nola bizi dira?

Beti lanean ari dira. 16-19 urterekin ezkondu eta senarraren familiaren etxera joaten dira bizitzera eta senarraren anai-arrebak bere anai-arrebak eta senarraren ama bere ama bilakutzen dira. Ostatueta joateko aukerarik ez dute eta hilekoarekin, ezin dute kozi-natu. Nire kasuan, neska izanda, beldurragatik, etxe-koandreak gaueko bederatziak baino beranduago etxera bueltatzen ez zidan uzten eta leku guztietara norbaitekin joan behar izaten nuen. Hetaudan ez nuen beldurrik sentitu, baina egia da mutil gazteek emakumea eta zuria izateagatik gaizki begiratu eta irri egiten zidatela. Katmandu hiriburuan, berriz, batere gustatu ez zitzaizkidan hiruzpalau egoera izan nituen gizonezkoekin.

2015ean lurrikara batek herrialdea suntsitu zuen. Ondoriorik ikusi duzu?

Hiriburuan bai. Oraindik erai-kin aunitz eroriak daude, bertzeak erdi obratan, eta bertzeak ez diotela bueltarik eman diote. Leku turistikoetara sartzeko ordaintzen den sarrera zaharbertzako dela adierazten dute, baina ezin jakin behar den tokira bideratzen duten, mafia dagoela erraten baitute. Ni bizi izan nintzen herrian ez nuen ondoriorik sumatu.

Zer ikasi duzu?

Hemen dena eskura dugu, baina dena edukita ere, ez gara hobeki bizi; bizi kalitatea hobea izanen da, baina ez gara haiek baino kontentuago bizi. Oraina bizi dute. Argia joan dela? Ez da deus ere pasatzen. Lasai bizi dira, kontent, kezkarik gabe, eta horrek bizitzeko lasaitasuna ematen die. Nik ere ez nuen deusen faltarik sentitu.

Handik zer ekarriko zenuke?

Bizitzeko duten filosofia. Zaila da hemen aplikatzea, sistemak kontrako bidean garamatzalako, baina gauzak lasai hartzeko duten gaitasuna eta beti etorkizuna buruan ez izatea hagitz positiboa da. Momentukoa oraina da, ez gero-koa. Gerokoa gero etorriko da. Kontuan izan beharko genuke.



Eskolan ere gaia lantzen ari dira adin txikikoekin. E. IRAOLA

Adin txikikoen osasuna zaintzeko errezeta bila

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako guraso, hezitzaile, profesional eta eragileek Kikili Salda lantaldea sortu dute. Adin txikikoen obesitate maila murriztu eta elikadura ohitura osasuntsuak bultzatzeko elkarlanean ari dira; bat eginda emaitza hobekak lortzeko

E.IRAOLA LEITZA

Leitzaldea eta Urumealdeko zero eta bost urte arteko haurren obesitate maila Nafarroako altuena da. Hala eman du aditzera Nafarroako Osasun Komunitarioko Behatokiak. Datua larria dela ikusita, elkar hartuta irtenbide bila hastea erabaki dute guraso, hezitzaile, profesional eta eragileek. Kikili Saldaren bueltan bildu dira denak.

Elkarlanaren beharra

Osasun Zerbitzuetako langileak izan ziren herriko eragileekin bilera antolatuta eta datuak mahai gainean jarri zituztenak: «arazo honen irtenbidea ez zegoela soilik gure esku, ezin genuela gure gain bakarrik hartu ikusi genuen» azaldu dio TTIPI-TTAPari Ainhoa Gonzalez Leitzako Osasun

Etxeko Pediatriako erizainak, «argi dugu obesitatea gizarte guztia barne hartzen duen arazoa dela eta denon inplikazioa beharrezkoa da egoerak hobera egiteko».

Martxoan deitu zuten aurreneko bilera eta eragile gehienek harriduraz hartu omen



Ainhoa Gonzalez, pediatriako erizaina.

zuten berria, «baita kezka eta ardura puntu batekin ere». Ez zuten inolako zalantzarik izan talde motore bat osatzeko, eta ordutik ia hilabetero biltzen dira, «hamar bat laguneko taldea elkartzen gara, gurasoak, hezitzaileak, profesionalak eta gizarteko hainbat eragile. Jendea gogotsu dago eta taldea oso dinamikoa da».

Elkarrekin lan eginda emaitza hobekak lortu nahi dituztela azpimarratu dute Kikili Saldako kideek: «eraginkorra goak izanen gara, mezu bera zabaldu, gaiari hainbat adarretatik heldu eta lana koordinatuta egingen dugulako».

Helburuak

Bi helburu nagusi dituzte: «adin txikikoen obesitatea murriztea eta elikadura-ohitura osasuntsuak bultzatzea» eta horre-

tarako, «urtero-urtero adin txikikoen obesitatea murrizteko balio duten kanpainak, ekintzak eta baliabideak herriarrei eskaini nahi dizkiegu».

Ikuspuntu positibo batetik lan egin nahi izan dutela ere azpimarratu du Oihane Calderon Gizarte Zerbitzuetako prebentzio teknikariak: «negatiboak izan daitezkeen datuetan zentratu ordez, ohitura osasuntsuetan jarri nahi izan dugu oinarria».

Oinarrizkotik hasita

Oinarrizkotik hasita erabaki dute: «elikadura osasuntsuak dakartzen onurak zeintzuk diren zabaldu eta familietan osasungarriak diren aldaketak bultzatzea ezinbestekoa da». Aldaketa ez elikaduran bakarrik, jaten dugun horrek adinako garrantzia duelako ariketa fisikoak: «pantailak geroz eta sendentariogoak izatea eragiten du. Oso ariketa fisiko gutxi egiten dugu. Haurrek mugimendua behar dute, katea behar dute». Kikili Saldaren bidez, formazio hori eskaini nahi dute: «ikuspegi kritiko batetik erostekak egiteko eta gure aisialdia kudeatzeko beharrezkoa den ezagutza jaso beharra dugu».

Ezagutza falta

Gaiaren inguruko kontzientzia piztu nahi dute eta horretarako heziketa da giltza Kikili Saldako kidea den Eneritz Mujika dietistaren ustez: «tamalez ez dakigu benetan zer jaten dugun eta arazo handia da hori. Jaten dugunaren jatorria ezagutzea ezinbestekoa da, baita ekoizpen prozesua nolakoa den jakitea ere. Soilik horrela izanen gara gure osasunarentzat egokienak diren jakiak aukeratzeko gai». Beraz,

«GIZARTE GUZTIAREN INPLIKAZIOA BEHAR DA ARAZOA KONPONTZEKO»

Kikili salda lantaldeko kideetako batzuk



OIHANE CALDERON
GIZARTE ZERBITZUAK

«Garrantzia ematen diogu bizimodu osasuntsua izatearen ideari, baina merkatuak ez du gehiegi laguntzen. Gainera, formazioa falta zaigu ikuspegi kritiko batetik erosketak egiteko eta gure aisialdia ongi kudeatzeko».



ENERITZ MUJIKA
DIETISTA

«Elikatzeko bidezkoagoak, osasungarriagoak eta iraunkorragoak diren alternatibak aztertu behar ditugu. Gaur egun, oso eskura ditugu jaki industrialak eta ugaritasun horren ondorioz obesitatea XXI. mendeko arazo bihurtu da».



JUNKAL OTXOTORENA
UDALEKO ZINEGOTZIA

«Datu kezkarriak eta kontuan hartzeko modukoak dira. Herritarrei informazioa eman eta eragileekin gaia lantzen saiatu gara, elkarlanean. Ezin dugu ostrukarena egin eta gertatzen ari denari kasurik ez egin».



AMAZABAL GURASO ELKARTEA
GURASOAK

«Elikadura ohiturak, batez ere, etxean hartzen direnez, ardura handia dugu gurasoek. Eredu gara gure seme-alabentzat eta kontuan izan behar dugu txikitik hartzen dituzten ohiturek eragin handia dutela bizitzan osoan».



MAITE PERURENA
LEITZEKO KONTSUMO TALDEA

«Guztien onerako izanen den kontsumo eredu osasuntsua, burujabea, justua eta jasangarria sustatu behar dugu. Elikagai osasuntsuak kontsumitu behar ditugu, produktuen kalitateari eta ekoizleen baldintzei erreparatu».



PELLO ZESTAU
AMAZABAL INSTITUTUKO ZUZEND.

«2020/2021 ikasterterako *Osasuna sustatzen duten eskolen sarean* sartzeko lanean ari gara. Proiektu hau aurrera eramateko, garrantzitsuak dira Kikili Saldan biltzen diren ideiak, errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko».



JONE ARRARAS
NAZABAL ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Eskolan ikasleekin eta gurasoekin zeharka, ohitura osasuntsuetan kontzientzia hartzen lagundu dezakegu, bideak egin eta baliabideak eskainiz. Garai batekora bueltatuta, oilo salda eta eltzari gehiago eta prozesatu gutxiago kontsumituz».



ARANTXA AZPIROZ
ERLETA ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Gaiaren inguruan hausnarketa egiteko balio izan digu lantaldean sartzeko. Ikasle eta gurasoekin gaia landu eta eskolako jangelako menuak hobetu ditugu, bertako produktuei toki gehiago eskaini eta alternatibak gehituz».

etiketak irakurtzen ikasi eta kontzeptuak ulertzea gakoa da: «erosketa-ohiturak aldatu behar ditugu, bertako produktuei, produktu naturalei toki gehiago eginez; kalitateko produktuak kontsumituz».

Badakite ez dela nolanhako erroka, «merkatuak ere ez duela laguntzen» salatu du Calderonek: «haurrentzat proposak ez diren elikagaiak eskaintzen dituzte, beraiantzat

erakargarriak diren marrazkiak erabiliz eta errazioen banaketa plastikoetan prestatuta ekarri. Marketinak gure begietan du eragina eta hor engainatzen gaituzte».

Ekintza lerroak

Begiak pixkanaka ireki eta ohiturak aldatzea da helburua: «bortxatu gabe, derrigortu gabe». Hasteko, azukrearen gaiari heldu nahi izan diote,

«oso modu gardenean eta inkontzientean kontsumitzen den produktua delako». Hala, azukrerik gabeko astea izendatu zuten azaroaren 11tik 17ra artekoa eta hainbat ekintza antolatu zituzten: Libe Garmendia dietista-nutrizionistaren eskutik gaiari buruzko informazioa jaso zuten ikasle eta familiako kideek. Institutuko ikasleek Kikili Salda taldearen logotipoa ere diseina-

tuko dute, «datorren urtearen hasieran hasiko gara erabiltzen. Gizarte zerbitzuaren laguntzarekin, fruta-kanpaina egin eta eskolako joan-etorri aktiboak ere bultzatu nahi ditugu».

Sua piztuta, eltzea osagaiez betetzen hasiak dira dagoeneko. Denen artean idatziko dute errezeta. Adin txikikoentzat osasungarria izanen den bizi-eredu bat eraikitzeko, Kikili Salda martxan da.

3.436.586 euroko aurrekontua onartu du Udalak

76.000 euroko mailegua hartu beharko du, baina Herriko Etxearen zorra gero eta tikiagoa da

TTIPI-TTAPA

2020 urterako aurrekontua behin behinekoz onartu du ahobatez Udalak. Guztira 3.436.586 eurokoa izanen da. Aurtengoan ezin izan dituzte kontuak berdindu mailegurik gabe. Gauzak horrela, 76.000 euroko mailegu bat hartzea aurreikusi dute. Nolanahi ere, Udalaren zorrak jausten segituko du, maileguen amortizazioarako 93.000 euro jarri direlako.

2018an Talentixek langileen balorazioa egin zuen. Aurrekontu hauek txosten horretan azaltzen diren ordainsari eta osagarrien eguneratzea jasotzen dute. Txostenak proposatzen duena %100ean aplikatuko da, ñabardura batzuk goiti beheiti.

Sarreraren atalean, tasak KPia igoko dira orokorrean.

Nafarroako Gobernuako Toki-Ogasun Funtsa, hau da udalei banatzen zaien fondoa diru-sarrera garrantzitsua da, baina oraingoz ez dute ziurtasunik sarrera hau zerbait igoko den. Aurten 846.000 euro espero dituzte.

Inbertsioak egiteko, noski, Udalak nahiaezkoak ditu dirulaguntzak. «IDAEkoa baliatuz efizientzia energetikoan hobekuntzak egiten segi nahi dugu. Cedernak kudeatzen dituen Europako dirulaguntzetatik 50.000 euro eskuratu nahiko genituzke Matzadako espazioa Parke Bio-osasungarri bihurtzeko. Baserrietako pistak moldatzeko dirulaguntzak ere eskatu dira Nafarroako Gobernuan. 60.000 euroko diru sarrera espero dugu».

Musika eskolaren kasua, Nafarroako Gobernuaren al-



Auzoz auzo egiten ari diren bileren garrantzia azpimarratu dute. UTZITAKOIA

detik finantziarioa hagitzen eska da, azken urtean igoera tiki bat izan duen arren. Hasiere batean %33ko dirulaguntza aurreikusten zen baina gaur egun %17 ingurukoa da bakarrik.

Baserrietako pistak moldatzen segitzeko 120.000 euro bideratuko dira. Udal eraikinetan mantentze lanak egin, mugikortasunaren aldeko planak aitzinera eramane eta ur-sareetan hobekuntzak egiten segitzeko 80.000 euro bideratuko dira. Kultura atalak ere igoera izan aurrekontuan. Orain bi urtetako zenbakietara bueltatu da berriro, hau da, 50.000 euro.

2020ko neguan ez du landa-ketarik egingen Udalak, bota beharreko pinudiak oraindik atera gabe daudelako, hala ere aitzineko urteetan egindakoak garbitu, bakandu, kimatu, larreak garbitu eta hainbat lanetarako 60.000 euro inguru aurreikusi dira.

Udazken honetan egiten ari diren auzo batzarren garrantzia ere azpimarratu dute Herriko Etxetik, «udalbatzaren politikak nora zuzendu behar ditugun erakutsiko digute, 2020an bete beharko dira eskaera horietatik anitz eta Udala eta herritarren komunikazioa hobetzeko app-a ere proiektu honen barnean kokatzen dugu».

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

LARRETXEAREN EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

AUZO GO!

Etxerako zerbitzua
BERAn

ESKAERAK:
www.auzoago.com · T. 948 631 509

LABEZAR

Asteleheneetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Urte zaharra Churrut Jatetxean, 2019ko Urte Zahar Gaueko Menua
bai ederki!!

HOTEL

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40
T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

EGUNEKO MENUA
TALDEENTZAKO MENUAK,
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK eta BATAIOAK

Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin,
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin,
Ganboiak plantxan.

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata
habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko kremazko tututxoak,
txokolate bero eta praline-izozkiarekin.
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Alkorta ardo beltz ondua (Errioxoa), Las Campanas
ardo gorria (Garnatxa), Las Campanas ardo zuria
(Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.

Prezioa: 78€ BEZ barne

Nahia Barcenilla elkartasun egutegian ageri da aurten ere

Zazpi urte ditu eta 27 zentrimetroko hestea eta horregatik, hiru hilabetero Madrilera joan behar izaten du familiak

TTIPI-TTAPA

Nahia Barcenilla Lanchas, heste laburraren sindromea duen zazpi urteko herriko neska da aurten ere NUPA Elkartek, hainbat jende famaturekin batera, argitara eman duen elkartasun-egutegiaren protagonista. Dirua biltzea eta heste-akatsa, nutrizio parenteral eta organo-trasplantea ezagutzera ematea da egutegiaren helburua.

Nahia Barcenilla Lanchasek zazpi urte ditu eta 27 zentrimetroko hestea. Gaur egun ahotik jan dezake, baina eritasun arraro honen ondorioz, bizitzaren erdia eman du nutrizio parenteral-makina baten menpe. Ana Lanchas amak aipatu digunez, «eritasun honek ez du sendabiderik eta azken-azken aukera izanzen litzateke trasplantea. Baina hestea da bakterio gehien duen organoa eta hortaz, errefusatzearrunta izan ohi da. Trasplantea eritasun bat bertze batengatik aldatzea da».

Eritasun arraro bat izatea zer den ez du ulertzen jendeak. «Bizitza osoa darama zunda



Nahia, Nupancito panpinarekin.

batekin –dio amak– eta hori normaltasunez barneratua dauka Nahiak, helduoi gehiago eragiten digu». Gaur egun, Nahiak ezin du xurgatu jaten duen guztia, egunero bi litro galtzen ditu (bere adinean normala 250 gramo galtzea da) eta horregatik deshidratazioak izaten ditu maiz».

Iruñeko eta Donostiako ospitaleetan egiten dizkioten azterketa eta zainketaz gain, hiru hilabetetik behin Madrilera ere joan behar izaten dute. NUPA elkartearen babesa jasotzen dute eta urtero ateratzen den egutegiaz gain (www.somosnupa.org webgunean erosi daiteke), *Nupancito* izeneko panpinak ere ateratu dituzte salgai.



UTZITAKOIA

Diskoa aurkeztu du Estitxu Pinatxok

Estitxu Pinatxo abeslari beratarrak *Haize gorri batek* bere lehen diska aurkezteko kontzertua eskaini zuen azaroaren 9an jendez gainezka zegoen Kultur Etxean. Herriko abeslariarekin eta taldeko musikariek batera, Jokin Pinatxo anaiak ere abestu zuen, argazkian ageri denez.



UTZITAKOIA

Diplomak banatu ditu Musika Eskolak

Azaroaren 18an Santa Zeziliako kontzertua eskaini zuten Musika Eskolan eta ondotik, diplomak eman zizkieten iaz solfeo ikasketak burutu zituztenei. Abenduan entzunaldiak izanen dituzte: pianoa (9an), biolina (11n), trikitixa eta akordeoia (12an) eta Eguberrietako kontzertua (18an).

IGONE

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA
MARGO-DENDA

KANTONBERRI, 4 BERA
T. 948 630 626

- Liburuak, azken nobedadeak.
- Pinturarako materialak.
- Heziketa-jokoak.

Klima eta energiaren aldeko konpromisoa hartu du Udalak

Ahobatez hartu zuen erabakia urriaren 31ko osoko bilkuran eta ekintza plana prestatu beharko du bi urte baino lehen

AITOR AROTZENA

Udalak urriaren 31n egindako osoko bilkuran ahobatez erabaki zuen *Klimaren eta Energiaren gaineko Alkatetzen Hitzarmena* izenpetzea. Europako ekimena da eta horren bidez tokiko gobernuek ere ardura hartzen dute berotegi-efektuko gasen isurien murrizketan eta denek ikuspegi bera hartzen dute aldaketa klimatikoa eta pobrezia energetikoa arintzeko eta haietara egokitzeko.

Hartutako konpromisoa honetan datza: lehenik, CO₂-ko (eta, ahal dela, berotegi-efektuko gasen beste isuri batzuetako) isuriak gutxienez %40 murriztea, hemendik 2030 bitartean, bereziki efizientzia energetikoa hobetuz eta energia berrizgarriak gehiago erabiliz. Bigarrenik, erresilientzia handitzea, klima-aldaketaren ondorioei egokituz.

Lan planean sartuta dago erreferentziako isurien inbentarioa eta klima-aldaketaren ondoriozko arriskuen eta kalteberatasunaren ebaluazioa egitea, baita Klimarako eta

Energia Jasangarrirako Ekintza plana prestatzea ere, Udalak erabakia hartu eta bi urteko epean. Azkenik, egoera-txosten bat aurkeztuko du, bi urtean behin gutxienez, klimarako eta energia jasangarrirako ekintza plana aurkeztu ondoren, hura ebaluatu, jarraitu eta kontrolatzeko.

Metodologia hau garatzeko, Udalak Nafarroako Gobernua-ren laguntza izanen du, LIFE NADAPTA proiektuaren esparruan: metodologia eta babes teknikoa, udaletako arduradunen lantalde batean parte hartu eta Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziak eta NELS Sareak emandako laguntza, klima eta energiarako ekimenetan jardunbide egokiak, ezagutzak eta baliabideak partekatzeko.

Udalak herritarrek gonbidatu ditu elkarlanean aritu eta erronka honen helburuak lortzen parte hartzera. Horretan laguntzeko, Herriko Etxeak hobari fiskalak onartu ditu energia aurreztuko duten inbertsioak bultzatzeko.



DIEGO PEDRA/CARLOS FRIAS/CARLOS DE COS/JON MARTINEZ

Argazki lehiaketako sariak Kataluniara

Bartzelonako Cornellá de Llobregat hiriko Diego Pedra Benzalen *Bruma* argazkiak irabazi du Beti Gaztek antolatutako argazki lehiaketaren lehen saria (350 euro). Bigarrena ere (250 euro) Bartzelonako Carlos Frías Perezentzat izan zen *Ausencias* lanarengatik. Kirol argazki onena Sorluzeko (Gipuzkoa) Carlos de Cos Azkonaren *Volando voy* izan zen (200 euro) eta herriko onena, Jon Martinez Etxabarriren *Ur goxoa*. Jasone Telletxea, Juan Mari Ondikol eta Alicia del Castillo argazkilariek osatu dute epaimahaia. Lehiaketara aurkeztutako 88 argazkiak ikusteko aukera bada oraindik abenduaren 2ra bitarte, Harriondoa Kultur Etxeko komentuan, ortzegunetik larunbatera, 17:30etik 19:30era eta igandetan 11:30etik 13:30era.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

FRANDONEA, s.l.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

laz baino uso pasa tikiagoarekin bukatu da sasoa

Guztira 52 dozena harrapatu dituzte Etxalarren eta horietatik gehienak, 21 dozena, egun bakarrean, azaroaren 25ean

IRUNE ELIZAGOIEN

Denboraldi tristea izan dela diote usazaleek. Denboraldi hasieran haize zakarrak egin zituen eta bukaeran, berriz, euria gelditu gabe. Ez da eguraldirik onena ehizarako eta hori sumatu da emaitzetan, denera 52 dozena baino ez baitituzte harrapatu. Egunik onena urriaren 25a izan zen, 21 dozena harrapatuta. Uso pasa gehien izan zen eguna berriz, azaroaren 19a, nahiz eta sareetara gutti sartu. Bisitei dagokienez, guztira 250 egin dira, eguraldi oneko egunetan inoiz baino jende gehiago bertaratu delarik.

Etxalarko Usategietako

VIII. gastronomia lehiaketa

Azaroaren 15ean ospatu zen Etxalarko Usategietako VIII. gastronomia lehiaketa. Zazpi jatetxe hauek hartu zuten parte: Orikaingo Hostal Aguirre, Elizondoko Santxotena, Arantzako Burlada, Etxalarko Herriko Ostalua, Etxalarko Benta, Lizaieta-Sarako Hordago eta Sarako Le Trinquet. Antolatzaileek aunitz eskertzen



Gastronomia lehiaketako saridunak.

dute bertan izan zen parte hartzea eta plater guziak bikainak izan baziren ere Burlada ostalutak irabazi zuen urrezko paleta eta Hostal Aguirrek zilarrezkoa. Berrikuntza saria berriz Hordago ostalutarentzat izan zen. Hostal Aguirreko Conchita Fernandezi eta Lesakako Kasino Josefina Sagardiari omenaldi paleta bat ere eman zitzaion, Nafarroako gastronomian egindako ibilbideagatik. Lehiaketaren ondotik, usazaleen zozketa ere egin zen eta hauek dira zenbaki irabazleak: lehenengo saria 4.046, bigarren saria 3.652 eta hirugarren saria 3.613. Irabazleek 690 26 77 56 telefonora deitu behar dute saria eskuratzeko.



ANGELA IRISARRI

Sara eta Etxalarko usazaleak elkarrekin

Azaroaren 11n egin zuten besta Sarako usazaleen txabolan. Aspaldiko tradizioa da bi herrietako usazaleen elkarretaratze hau bazkari bat egiteko. 25 bat lagun elkartu ziren eta eguraldiak aunitz laguntzen ez bazuen ere txabolaren barrenean, kantuan eta dantzan, giro bikaina sortu zen.

Janari bilketa abendua 7tik 14ra antolatu dute

Parrokiako juntak antolatuta, aurten ere beharrean daudenei laguntzeko janari bilketa egingen da abenduaren 7tik 14ra. Nahi duenak janaria plazako dendan utz dezake edo bertzele elizako atarira eraman. Elizako atarian abenduaren 7an 18:00tik 19:00etara eta abenduaren 8an 11:00etatik 12:00etara egingen da bilketa. Lehengo urtean bezala, aurten ere, etxetara gutunazalak banatuko dira nahi duenak diruz lagun dezan. Gutunazal horiek Erretoreneako buzoian utzi behar dira.

Larraburuko Bazkidearen Eguna abendua 3an

Urtero bezala abenduaren 3an Bazkidearen Eguna ospatuko dute Larraburuan. Aurten, 80 urte betetzen dituen Encarnacion Iparragirre izanen da omendua. 12:00etan meza izanen da urtean hildako bazkideen omenez eta ondotik bazkaria egingen dute Larraburuan. Izen-ematea azaroaren 27a arte egonen da zabalik 664 38 73 43 telefonoan. Bertzetik, azaroaren 30ean hasiko da mimbrea eta taila lantzeko eskulan ikastaroa. Noek eskainiko du larunbategian 16:00etatik 19:00etara.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformatik, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Kultur Egunen hondarreko egunean, abenduaren 8an, herriko dantzariak saioa eskainiko dute eguerdian eta opil jatea izanen da arratsaldean. OSKAR TXOPERENA



Aspertzeko tarterik ez da izanen Kultur Egunean

Euskara Batzordeak kultur egitarau zabala antolatu du abendu hasierarako

TTIPI-TTAPA

Euskara Batzordeak egitarau zabala antolatu du abendu hasieran eginen diren udazkeneko Kultur Egunearako. Lehen ekitaldia abenduaren 5ean, ortzegunarekin, izanen da. *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala eskainiko dute, Bidaziren eskutik, Eskolzarren. Ondotik solasaldia izanen da dokumentalaren egileekin.

Abenduaren 6an, 16:30ean, hasiko dira ekitaldiak. Maksim Magoak bere ikuskizuna es-

kainiko du gimnasioan, eta ondotik haurrentzako berendua izanen da. 18:30ean *Bortzirriak solasean* liburua aurkeztuko dute Eskolzarren. Liburuaren egileak, Maite Lakar eta Jon Abril, bertan izanen dira. Liburua (eta CDA) joan den ekainean argitaratu zuten, eta oinarrian ditu 2000-2001 urteetan Maite Lakarrek eta Nora Osesekek Bortzirrietako adineko herritarrei egindako elkarrizketak hainbat gairen inguruan: garai bateko bizimodua, lanbideak, sinesme-

nak, kontrabandoa, mitologia, zerri-hiltzea, etab.

Egunari behar bezalako akabaila emateko, *Dama beltzak* ikuskizuna izanen da, Baratzondon, 22:00etan. Emanaldi honetan Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezek bortz dama beltzi errekonozimendua egiten diete, musika bikaina egiteaz gain, musikaren bitartez borroka egiteagatik. Hain zuzen Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin omenduko dituzte. Emanaldian beraien abestiak kantatzeaz gain, beraien bizitzari buruz ere solastatuko dira.

Abenduaren 7an, larunbata, 17:00etatik aitzinera haurrentzako joko tradizionalak izanen dira frontoian, eta hasi aitzinetik herriari buelta emanen diote eltzee-burrubarekin.

Urteroko antzerki emanaldia ere ez da faltako. Baratzondon izanen da, 21:00etan, Intujai

taldearen eskutik. *Ama-Alu-Lur* emanaldia eskainiko dute, Espe eta Leo arkeologoen kobazulo baten barrenean topatuko duten paleolito garaiko alu erraldoi baten bueltan.

Abenduaren 8an borobilduko dira Kultur Eguneak. Igan de eguerdian dagoeneko ohitura bihurtzen ari den saioa izanen da. Herriko dantza taldeak emanaldia eskainiko du, baina herriari buelta eman ez eta hainbat puntutan dantzak eskainiz.

Arratsaldean iaz hainbertzeko arrakasta izan zuen ekitaldia izanen da berriz ere: gaztain eta opil jatea bertsolariekin. Aurtengoan bertsolariak Maddalen Arzallus eta Agin Laburu izanen dira, eta Estitxu Arotzena ariko da gai jartzailer. Herriko bertso eskolako haurrek ere parte hartuko dute. Helduen sarrera bortz euro kostatuko da, eta haurrena bi euro.

JANTZIGINTZA | GORTINAK | MOLDAKETAK | JOSKINTZA

TEJIDOS MARINA

GORTINAK
eta hauek egiteko oihalak

BASERRITAR JANTZIAK
egiteko oihalak

Almirante Arizmendi, 4 - behea • 20302 • IRUN
T. 943 62 22 10 • tejidosmarinairun@gmail.com

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probextu
aukerak!



Arduro

5 DESKONTUA arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

boxkikak
KIROL ETA MODAKO ERLOPO GARA

5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

5 DESKONTUA konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

5 DESKONTUA 30€tik gorako dekorazio galetan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GAEZA
DIAZ UNIBERSITATEA

5 DESKONTUA kosmetikan
5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik.

Pio Baroja, 11 behe | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI ELEKTRIZITATEA

5 DESKONTUA etxetresnetan promozioetan ezik

Bititria, 33 | LESAKA
T. 948 63 75 31

KARLOS ALZUGARAY
OSTEDUNA Euzko Gaitza

10 DESKONTUA hamar saloko bonoan

Itzea, 20 behe | BERA
T. 607 85 32 08

bortzirudi

15 DESKONTUA Kamietan
10 DESKONTUA Inprenta lanetan
5 kopla, enbaldemazio eta pluzifikazioetan 740€tik gora
* Aurrekontutik kanpo

Ezlegara, 26 esk. behe | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

40 DESKONTUA matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
DIAZ UNIBERSITATEA

20 DESKONTUA urteko abonuaeren matrikulan

Toki Ona Kirolegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA KIROLAK

5 DESKONTUA Kirol artikuluetan
15 DESKONTUA ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

ZK zela KIROLAK

5 DESKONTUA erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kattagorria

10 DESKONTUA lenzierian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU lorendenda dekorazioa osagarriak

5 DESKONTUA lore motuan 30€tik gorako erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika Dietetika eta elikadura

5 DESKONTUA kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA
T. 948 63 12 83

oreka nutrizioa eta dietetika

5 DESKONTUA kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

intzuri OPTIKA

5 DESKONTUA produktu guztietan

Bititria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

5 DESKONTUA produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia NORA MAIZA

5€ DESKONTUA ibilkeraren azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

10 DESKONTUA erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94



Urri hondarretik aparkalekuan da garbigune ttikia. I. UGALDE

Garbigune ttikia paratu dute aparkalekuan

Herritarrek hondakin bereziak bota ditzakete garbigune ttiki horretan

TTIPI-TTAPA

Joan den urriaren akabailatik garbigune ttikia herriko aparkalekuan dago. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitate jakitera eman dutenez, hondakin berezien bilketa zerbitzua hobetzea eta horien birziklatze-tasa handitzea da helburua. Hori horrela izanik, orain arte hondakin bereziak biltzeko eskaintzen zuten zerbitzu mugikorra indartu egin dute eta modu berean, herritarrek kamioia noiz etorriko den esperoan egon beharrean, hondakin bereziak noiznahi bota ahal izanen dituzte gar-

bigune ttikian. Garbigune ttikiak hainbat leiho ditu eta horietako bakoitzean hondakin klase bat biltzeko irudia eta testua ageri da.

Bateriak, gasolioa, olio filtroak, bonbillak, fluoreszenteak, erradiografiak, pilak, fitosanitarioak, garbiketa produktuak, sakelako telefonoak, inprimagailuen tinta-kartutxoak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, olio minerala eta landare olioia (plastikozko pote itxietan), kutsatutako ontziak, pinturak, CDak, DVD-ak, aerosolak, espraiak, kolak eta silikonak bota daitezke.

Beñat eta Fernando abenduaren 27an Burlada jatetxean

Heldu den abenduaren 27an, Burlada jatetxean afaria antolatu dute. Afalondoan, Beñat eta Fernandorekin emanaldia izanen da. Nahi duenak kanturako eta dantzarako aukera izanen du. Afarirako izen-emaitea Burlada ostatuan bertan edo telefonoz egin daiteke.



Eskolako ikasleen antzerkiak abenduaren 19an

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, eskolako lagunak buru-belarri antzerkiak presatzen ari dira azken asteotan, abenduaren 18an Igantzi eta Etxalarko eskolakoen aitzinean egiteko, eta biharamunean, abenduak 19, herritarrei erakusteko. Egun horretan egingen dute Eguberrietako zarearen zozketa eta dagoeneko txartelak saltzen hasiak dira eskolako ikasleak.

Antzezlanen izenburuak, ordutegia eta gainerako xehetasunak hurrengo aldizkarian jakinaraziko ditugu.



XABI ZUGARRAMURDI

Lehenbiziko elurra

Joan den azaroaren erdialdean, zuriz margotutako agertu ziren herriko mendi tontorrek eta inguruak. Negu honetako lehenbiziko elurtea izan zen mendi gainetan, Ekaitzan adibidez. Horrelako irudiek, negua hurbilago dugula erakusten dute.



PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN



gaueko konfort-kuxina



Centro Prim regina tolosaechebare



ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com



TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046





Isabel Inda, seme-alaba, biloba eta birbilobekin, tartean Amets Inda alkatea.

Ohorezko alkate izendatu dute Isabel Inda 100 urterekin

Gaztelun jaio zen 1919an, baina Sunbillara ezkondu eta bortz seme-alaba, zazpi biloba eta hamaika birbiloba izan ditu

TTIPI-TTAPA

Isabel Inda Arregi herritarra Sunbillako ohorezko alkate izendatu dute bere 100. urtemugan. Isabel 1919ko azaroaren 18an jaio zen Gaztelun. 30 urterekin Sunbillako Jose Mari Elizondo Bazterrikarekin ezkondu zen eta bortz seme-alaba izan ditu: Begoña, Mari Jose, Luis, Maribi eta Joseba. Latsako eskolan hamar urtez



Isabel Inda udaletxeko omenaldian.

sukaldari lanak egin zituen. Eskola itxi zenean etxea eta umeak zaintzen jarraitu zuen. Zazpi biloba eta hamaika birbiloba ditu Isabelek eta denek gogotsu ospatu dute amatxi Isabelen mendeurrena.

Omenaldia

Udaletxean ere ongi merezitako omenaldia egin zioten Isabeli azaroaren 16an. Alkatearen eskutik, herriaren ize-nean lore-sorta, oroigarria, makila eta painulu bat jaso zituen. Biharamunean, berriz ere bertze omenaldi tiki bat egin zioten eta orduan ere bi lore-sorta jaso zituen. Ondotik familiakoekin bazkari eta egun eder batez gozatzeko aukera izan zuen, ehun urte ez baitira nolnahi ospatzen. Zorionak Isabel!

Guraso Elkartearen bilera azaroaren 27an

Azaroaren 27an, asteazkenean 19:00etan Guraso Elkarteko bilera egingen dute jangelan (frontoian). Azken bilerako akta irakurri eta onartu ondotik, Eguberritako eginkizunak (Olentzero eta Errege Kabalgata) izanen dituzte hizpide, eskari-galderekin akitzeko.

Eguberrietako frontenis txapelketa prestatzen hasiak

Eguberrietako frontenis txapelketa berriz ere martxan dago. Abenduaren 27tik 31ra bitarte partiduak izanen dira baina bertan parte hartu nahi dutenek izena emateko epea abenduaren 13a bitarte izanen dute. Bikote eta partiduen zozketak abenduaren 15ean 18:30ean Ulilbeltzak Elkartearen egingen dute. Bertze alde batetik, abenduan sartuta, Mallerrekako Mankomunitateak antolatutako *Berdintasunari kanta eta kanta* tailerra egingen dute hilaren 2an, astelehenean herrian.

Aurtizko trikitixa jaialdian herritarren parte-hartzea

Aurtizko San Martin besten egitarauaren barrenean, azaroaren 9an Mendaur trikitixa-pandero eskolak antolatutako jaialdian June eta Maialen Aiesa Rekarte, Ahielen Irazoki Ezkurra, Iraide Iriarte Petrirena, Haizea Larzabal Arriola eta Ane Zelaieta Indakoetxea herritarrek parte hartu zuten. Hagitz arratsalde polita pasatzeko aukera ederra izan zuten. Eskerrik asko parte-hartzaileei eta nola ez jaialdi eder hau antolatzen duten irakasleei... Eskerrak aunitz!

'Nafarroa dastatu' ekimena abenduaren 1ean

Nafarroako Gobernuak eta Udalak antolatuta, 'Catarnavarra/Nafarroa Dastatu' ekimena egingen dute abenduaren 1ean. Igandean 10:00etan Udaletxetik abiatuta *Bidasoaren hizketan* interpretazio-paseoa egingen dute, bi orduko ibilaldi erraz, didaktiko eta dibertigarria. Eguerdian akituko dute Ulilbeltzak elkartearen eta bertan, 12:15etik 14:30era dastatzea-foroa-ikuskitzuna izanen dute, Nafarroako produktuak dastatu ez ezik, kontatu eta kantatzeko. Info+: catarnavarra@gmail.com

Jostamendi Teikia
Letxunborro hirib. 86, IRUN · (bezeroentzako parking estalia)

JOLASAREN MAGIA

Toy Planet

Santa Luzia egunean Mendi Abesbatzaren Eguberrietako saioa

Hilabete betea izanen da aurtengo abendua eta herritarrek ez dute aspertzeko tarterik izanen

TTIPI-TTAPA

Kontzertuak, elkartasun hitzorduak, kirol jarduerak... Bateko eta bertzeko ekitaldiekin azaro hondarrean eta abendu hasieran ez da mugimendurik faltako. Hasteko, larunbatean, azaroak 30, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna-ren bueltan egin diren ekitaldiak borobiltzeko, Gazte Burrunba Kultur Taldeak antolatuta bertso afaria izanen da Sarai Robles, Saioa Alkaiza eta Julio Sotorekin. 20:30ean po-teoa egingen dute Irrintzi ostatutik abiatuta eta 21:30ean Herriko Ostatuan afaltzeko bilduko dira.

Mendi Abesbatzaren saioa

Abenduan sartuta, hilaren 3an, asteartea, aurtun 25. urteurrena ospatzen ari den Mendi Abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan, Nafarroako Gobernuaren gonbitari jarraiki. Egun hori Nafarroaren Eguna eta aldi berean Euskararen Eguna dela aprobetxatuz, euskal kanta ezagunekin eta konpositore nafarren lanekin osatutako emanaldia egingen dutela adierazi dute. 13:00etan hasiko da.

Anelaren alde futbol partiduak

Hilaren 6an, ortziralea, Nafarroako Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Elkartearen (ANELA) aldeko hitzordua prestatu dute. Hainbat futbol partiduko jokatu dute Realak, Osasuna, Baztan eta Doneztebe futbol taldeetako jokalariek gaztetxoek. Partidak Iñaki Indar futbol-zelaian jokatu dituzte, goizez.

Malerreka Kantuz

Abenduaren 7an, Malerreka Kantuz ekimenak herriaren egingen du geldialdia, 12:00etan.

Santa Luzia egunean Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 13a, Santa Luzia Eguna, egun seinatua izanen da, 17:00etan, azken urte hauetan bezala, Eguberrietako kontzertu berezia eskainiko baitute Mendi eta Mendi Ttikiko abesbatzek, Donostiako Udalaren Txistulari Taldeak eta Agorreta Musika Eskolako ikasleek elizan.

Emanaldiak hiru zati izanen ditu eta tartean, abesbatzaren 25. urteurrena gogoan, egun horretarako espresuki prestatutako kantak eskainiko dituzte: txistulariek bakarka emanen diote kontzertuari hasiera; ondotik, Mendi Ttikiko eta musika eskolako gaztetxoek txanda izanen da eta, bertzeak bertze, Jose Ignazio Ansorenak Mendi Ttikiko abesbatzari eskainitako obra abestuko dute estreinakoz. Kontzertuaren hirugarren zatian, Mendi Abesbatzako kideek eta txistulariek elkarrekin Eguberrietako kantak eskainiko dituzte.

Ipuin kontaketa eta tailerra

Abenduaren 14an, berriz, Dani Martirena legasarra gonbidatu dute. *Cosimoren katiuskak* bere liburua oinarri hartuta, ipuin-kontaketa egingen dute eta aldi berean, tailerra ere bai. Haurrek eskulan bat egiteko aukera izanen dute. Herriko Ostatuan, 17:00etan, egin dute hitzordua, eta segidan, txokolatea eskainiko dute.

Erreka elkartean Eguberrietako saskirako txartelak salgai paratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Urtean zehar egiten dituzten jarduerak finantzatzeko Eguberrietako saski paregabea zozketatuko du Erreka Kirol Elkarteak. Saski potoloa osatu dute: 200 euroko erosketatxartela Doneztebeko Mekaritari eta Zerbitzu elkarte

saltokietan gastatzeko, 150 euroko balea erregeian, errobot-aspiradora, asteburuko ateraldia, ordenagailua, bizikleta, telebista, jatekoa, edatekoa... Txartelak herriko denda eta ostatuetan edo jokalariek bidez eros daitezke. Zozketa abenduaren 20an egingen dute.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Futbolari ohiak mahaiaren bueltan

Preferenteko Doneztebe Futbol Taldekoek etxean jokatzeko zutela aprobetxatuz, hainbat jokalarik ohi mahaiaren bueltan elkartu ziren joan den azaroaren 9an. Bazkaldu eta indarrak hartu ondotik, partida ikustera eta etxeko taldea animatzera hurbildu ziren futbol-zelaira.



ALICIA DEL CASTILLO

Euriak ez du feria eguna zapuztu

Negu giroan joan zen azaroaren 15ean feria eguna. Euriak, ordea, ez zuen eguna oztopatu. Herritar eta ingurukoek, aterkiak hartu eta postuz postuko buelta egiteko aprobetxatu zuten. Ganaduzaleak Merkatu Plazan bildu ziren. Egunez eta gauzez ere, mugimendurik ez zen falta izan herrian.

Hiruhileko bukaerarako besta antolatzen ari da

Zozketa-txartelez gain, aurten ikasle batek egindako marrazkia duten kamisetak ere salduko dituzte

ARKAITZ MINDEGIA

Azken aldian herriko gaztetxo eta gurasoen artean mugimendua sumatzen da.

Ibintza dantza taldeko gaztetxoak, Aurtizko bestetan egindako dantza saioaren ondotik, martxan dira berriz. Astearte eta ortziraletan Herriko Etxeko ganbaran elkaritzen dira, Izaro Ariztegi eta Miren Sein irakasleekin. 2014a baino lehen jaiok direnek parte har dezakete eta horretarako ganbarara joan eta haiekin harremanetan jartzea aski izanen dute.

Gurasoak, berriz, ikasturteko lehenabiziko hiruhilekoa borobiltzeko besta antolatzen ari da. Eskolako haur, irakasle eta gurasoek bat eginen duten egun handi horretarako, zozketa-txartelak eta egutegiak saltzen hasiak dira. Aurten, gainera, 5. eta 6. mailako egindako marrazkietako bat aukeratuz, kamisetak eginen dituzte.

Bata zein bertzea uztartuz, besta egunean dantza saioetan ikasitakoa ikusarazteko aukera ederra izanen dute Ibintza taldekoek.



AINARA MINDEGIA

23 urtez azpikoetan azkena eginda elite mailara begira

Seinek 23 urtez azpiko kategorian azken lasterketa izan zuen azaroko bigarren asteburuan Lizarran. 23 urtez azpikoetan eta elite mailan irabazita, bukaera borobila eman zion denboraldiari. Heldu den urtean elite mailan parte hartuko du. Eutsi horri!



ELENA NADAL

Aurtizko bestak, euriari aurre eginez

Bertze urte batez, azaroaren 8tik 11ra, besta ederrak izan zituzten Aurtitzen. Herriko gazteek, ilusioz eta gogotsu, ekitaldiz beteriko bestak antolatuz zituzten, adin guztietako herritarrengan pentsatuz. Aizkora apustua, pilota partiduak, haurrentzako jolasak, mus txapelketa, patata tortilla eta postre lehiaketa, dantzaldiak, otoduak, trikitixa jaialdia... izan zituzten. Urte saila daramatzaten ekitaldiei eutsi (trikitixa jaialdiak, erraterako, 21. urtea izan zuen) eta berrikuntzak txertatu zituzten (motozerrarekin egindako erakusketa, adibidez). Horri esker, besta giro bikaina lortu zuten. Eguraldia ez zuten lagun izan. Hala ere, besta parte-hartzaileak izan ziren eta herritar eta bisitariek gozatzeko aukera izan zuten.

OSORIK DA!

54. DURANGOKO AZOKA

2019ko abenduaren 5etik 8ra

P+ DOAN
www.durangokoazoka.eus

ANTOLATZAILA

gerandegia

BABESLE NAGUSIAK

Bizkaia

ERAKUNDE PUBLIKOAK

DURANGO
Udala - Ayuntamiento

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra

BABESLE PRIBATUAK

bbk | **euskafest** | **EROSKI**



Finalaurrekoa jokatzekoa zuen asteburuan.

Naroa Elizalde ederki Lau eta Erdiko Master Cupean

Azaroaren 23an Mañarian jokatzekoa zuen finalaurrekoa, Amaia Jakaren kontra

FERMIN ETXEKOLONEA

Azaroko bigarren asteburuan, Agurain eta Zaratemoren artean banatutako emakumezkoen pilotarik onenaren 10 bat orduko Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketako pilota mistoko final laurdenak eta promozioko eta 16 urtez azpiko pilota goxoko finalerdiak zehaztuta uzteko balio izan zuten.

Eguraldi txarreko asteburu batean, Arabako pilotalekuak eta Bizkaikoak pilotazale askori aterpea eskaini zieten eta izan zen eskuak txaloka berotzeko moduko tantorik. Bertan

jasotako emaitzen ondotik, pilota mistoko finalerdiak, 16 urtez azpikoko pilota goxoko finalerdiak eta pilota goxoko finalerdiak erabakita gelditu ziren.

Azken horien artean Naroa Elizalde zubietarrak (Ane Urkizuren aurka 17-18 irabazita) sailkatzea lortu zuen. Amaia Jakaren aurka lehiatzekoa zen aurreko asteburuan. Horiek ez ezik, Gentzane Aldai eta Ainhoa Ruiz de Infante ere aurrez aurre aritzekoak ziren. Hala, bikote bakoitzeko irabazleen artean, laster jokatu dute final handia.

Hiru herritarrek Behobia-Donostia lasterketa egin dute

Domintxeneko Joseba Juanikorenak (01.28.28), Palazioko Joxe Mari Indakotxeak (01.42.03) eta Pentako Daniel Juanikorenak (01.43.12) Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuten. Eguraldi kaxkarra izan zuten arren, gustura ibili zen hirukotea.

Herriko eskulangileen lanak ikusgai ferietan

Doneztebeko ferietan, Arkupeak elkarteko gainerako kideekin batera, Xanti Hualde eta Miguel Arregi zubietarrek beraien eskulanak plazaratu zituzten. Guztien artean, erakusketa ederra paratu zuten Santa Luzia plaza ondoko egoitzan.

Izaskun Zubialdek 'Basajaun' liburua argitaratu du

Denon artean argitaletxearen eskutik, Izaskun Zubialdek, Bakarne Atxukarro eta Asun Egurzarekin batera, azaro erdialdean euskal mitologiari buruzko seigarren liburua kaleratu zuen, 'Basajaun'. Dagoeneko eskuragarri dago hainbat liburu-dendatan.

Sorospen ikastaroa jubilotekan abenduaren 17an

Abenduaren 17an, asteartean, sorospen ikastaroa izanen dute herrian. Cristina eta Elena erizainek eskainiko dute tailerra, jubilotekako denboran, 16:00etan zehazki. Nahi duen orori parte hartzeko gonbidapena luzatu diote.

Euskararen Eguneko mikroipuina Udalaren web orrian

Udalak Euskararen Eguneko mikroipuina lehiaketara aurkeztutako 'Euskaraz bizi nahi dut', 'Elurmaluta' eta 'Ametsak amets' lanak www.zubieta.eus webgunean zintzilikatu ditu. Nahi duenak, beraz, bertan irakurri ahal izanen ditu.

Eskualdeko musikarien bilgune herria larunbatean

Joseba Irazokiren eta ZaKill, Kaskezur, Ozpinduk, Azken Trena eta Sodade taldeen eskutik, kontzertuak izanen dituzte larunbatean herriko estalpean. Emanaldia 18:00etan hasiko dira. Horiek akitu ondotik, DJak girotuko ditu bazterrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urko Loiarte eta Aritz Juanenea irabazle

Aritz Juaneneak eta Urko Loiarte zubietarrak irabazi dute Larraungo pilota txapelketa. 12 bikotek parte hartu zuten. Loiartek eta Juaneneak Almandozko Oskoz anaien aurka jokatu zuten finala azaroaren 10ean. MPS gaixotasuna dutenei keinu egiteko kamiseta jantzi zuten. Zorionak!

LIZUN GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862
IDIAZABAL

Nafarroan euskal kulturaren erronkak ezagutzeko saioa

Nafarroako Euskara Teknikarien Sareak, Elkar fundazioak eta Karrikirik jardunaldia antolatu dute urtarrilerako

TTIPI-TTAPA

Euskal kulturaren kontsumoa-ekin «arduratuta» daudelako eta Nafarroan euskal kulturak dituen erronkak zein diren jakiteko *Hari izpia hartzen* jardunaldia antolatu dute Nafarroako Euskara Teknikarien Sareak, Elkar fundazioak eta Karrikirik urtarrilaren 24rako. Kezkatuta daude «euskaldun gehienek ez dutelako euskarazko kultura kontsumitzen» eta «euskal kulturaren transmisioan etena gertatu delako». Euren ustez: «euskara biziko da baldin eta kultur komuni-

tatea eta hiztun komunitatea trinkotzen badira, ez jendeak euskara jakite hutsagatik».

Hutsune gehiago ere sumatu dituzte. Eskaintzari dagokionez, «euskal kultur sorkuntza eta produkzioa aberatsa» badira ere, «maizegi, ez dira iristen herritarrengana». Hezkuntza arautuan «baliabide falta» ikusten dute eta erakundeen eta kultur eragileen artean lan bateraturik eza.

Kezka horietatik abiatuta antolatu dute Iruñeko jardunaldia. Gogoeta egin eta lan ildoak zehaztu nahi dituzte.



Gogoeta bateratu bat egin eta hortik abiatuta lan ildoak zehaztu nahi dituzte.

Egitaraua

09:15etik 14:00etara hainbat hitzaldi antolatu dituzte: EHUko Josu Amezagarekin *Euskal kulturaren kontsumoa* hitzaldia; Jon Abril Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusi bertarrak gidatuta Nafarroan euskal kulturaren erronkak zein diren ezagutzeko gogoeta; EHUko Miren Artetxerekin *Gazteak, bertsoa, transmisioa eta nortasuna* solasaldia eta borobiltzeko, Euskal Herriko

esperientzien inguruko solasaldia. Azken horretan, Aitor Elexpuru Berako alkate eta kultur batzordeko kideak parte hartuko du eta solasaldia beratarra den Eneritz Rekarte Elhuyarreko aholkularitza lantaldekoak gidatuko du.

Jardunaldia irekia izanen bada ere, urtarrilaren 17a baino lehen izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Argibide gehiagorako: euskara@sakana-mank.eus.



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbillan!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

BERTIZARANA/MALERREKA



Larunbat honetan mahaiaren bueltan bilduko dira narbartearrak. ARTXIBOKO IRUDIA.

Sanandresetako bazkaria larunbat honetan Narbarten

Eguerdian bazkaltzeko bilduko dira eta arratsaldean Agerralde akordeoilariarekin dantzaldia izanen dute

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduarekin segituz, aurten ere San Andres Egunaren harira, bazkaria antolatu dute Narbarten. Larunbat honetan, azaroak 28, egin dute hitzordua.

Ostatua itxia dagoenez, aldi honetan trinketean bilduko dira mahaiaren bueltan,

14:00etan, eta haurrentako eta helduendako menua eskainiko dute. Arratsaldean, berriz, Agerralde akordeoilariarekin dantzaldia izanen dute.

Azaroaren 24a baino beranduago apuntatzen direnek bortz euro gehiago ordaindu beharko dute bazkaria.



IZASKUN BERTIZ

Pello Añorga ipuin-kontalaria Saldiasen

Saldiasko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek arratsalde ederra pasatu zuten joan den azaroaren 8an, Pello Añorga ipuin kontalariarekin. Arratsaldea borobiltzeko bildutakoek gurasoek prestatutako txokolate beroa hartzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hitzorduz betetako azaroa Urrozen

Azaro mugitua izan dute Urrozen. Azaroaren 8an, dantzariak, Udalak gonbidatuta, afaria egin zuten. Biharamunean *Irungo emakumeak plazara* dokumentala eskaini zuten ostatuan eta hilaren 17an *Berdintasunari kontu eta kanta* aritu ziren neska-mutikoak herriko ganbaran.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Merkatu ttikia Legasako Kuku eskolan

Azaroaren 14an Legasako Kuku eskolako ikasle, guraso eta irakasleek merkatu ttikia antolatu zuten herriko plazan. Eskolan birziklatutako materialekin egindako eskulanak eta postreak jarri zituzten salgai. Herriko jende aunitz hurbildu zen. Arrakasta itzela izan zuen.

Bizitzan,

kirolean
bezala,

HOBETZEKO GRINA_

Baztango Kirol Taldea aldaketa urtean sartua

Senior taldeaz gain, harrobi sendoa mantentzen du, 135 bat neska ari baitira eskubaloian



Baztango BKT eskubaloi talde nagusia kopako finalerdietarako sailkatu da gaurgero. ARGAZKIAK: EDURNE BIGURIA

Joan den urtean jokalaria eta entrenatzaile lanak uztartu zituen Ainhoa Astiz lekaroz-tarrak BKTko eskubaloi talde nagusian, baina aurten, «lesioak direla-eta, nahi baino fiteago utzi behar izan dut jokalaria izatetik, beraz, egun, bakarrik entrenatzaile gise nabil», dio. Denboraldi hasiera, guti goiti-beheiti espero zuten moduan hasi dute, «nahiz eta puntu guttirik gauden, partida guzietan borro-

katu ditugu, joku maila ona erakutsiz. Aurtengo liga aitzinekoak baino puskezk politagoa da, talde gehiagorekin eta erranen nuke kalitate handiagoarekin: beraz, markagailuari begiratu gero, sufritzea tokatuko zaigun arren, denboraldi erakargarria dugu aitzinetik». Jokalarien aldetik, joan den urtean ziklo bat akitu eta aurten bertze bat hasi dela uste du Astizek: «7-8 jokalarik utzi eta 6 jubenil igo

dira aurten, beraz, agerikoa da aldaketa izan dela: ikaragarrizko ilusioa, indarra eta bizitasuna ekarri dute gazteenek eta beraz, talde polita sortu da. Pena aurten entrenatzeko baldintzak aldatu eta asteen 3-4 egun entrenatetik, 2 edo entreno bakar bat egitera pasa behar izan gara. Hortaz, nahiz eta taldea orekatua eta indartsua izan, ligan sufritzea tokatuko zaigu». Halere, gaurgero kopako fi-

nal-erdietara sailkatzea lortu dute eta «ez bada erraza izaneren ere, finalera iristea sari bat izanen zen taldearentzat».

Taldeari etorkizun ona ikusten dio: «Oinarrian dauden taldeen ilusioa ikusita, Baztango eskubaloia luzerako izanen dugula erratera ausartuko nintzateke». Larunbatero taldea babesten dutenak eta «emakumezkoen kirola bisibilizatzen laguntzeagatik ere» eskerrak eman nahi ditu.

SENIORRAK

Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Paula URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Ane BERHO MIGELENA	ORONÓZ
Leire MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Miren GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO
Maidar ALTXU AIZPURU	ORONÓZ
Lucia TRANCHE URTASUN	ELIZONDO
Malen ALTZUART ARANBURUERRATZU	
Nerea BARBERENA URRUTIA	ERRATZU
Elena URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Maria ORTIZ ESTABOLITE	GARTZAIN
Saioa ETXART ETXEBERRIA	ERRATZU
Leire GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO

Entrenatzailea:

Ainhoa ASTIZ GOÑI LEKAROZ



DANTXARINEA

JOSENEA
BAZTANGO ESKUBALOI TALDEAREKIN
ELKARLANEAN ARI DA



Orain Mugairiko instalazio berriekin

www.josenea.es

BAZTANGO KT JUBENILAK



Maialen ITURBIDE LAZARO ELIZONDO
Izaro DENDARIETA ESCUDERO IRURITA
Nahia BAYLON URTASUN IRURITA
Haizea EUGI GAMIO IRURITA
Leire ARRAZTOA ALEMÁN IRURITA
Ane BAYLON ITURRALDE ELIZONDO
Hana IRISARRI URRUTIA ELBETE
Olatz ITURRALDE ARRETXEÁ ZOZAIA
Naroa BALLARENA GOIENETXE ELIZONDO
Naia IRIARTE ARRIETA ARIZKUN

Cecilia ADIN URTASUN ELIZONDO
Haize OIARZABAL AIZPURU IRURITA
Julene BAYLON URTASUN IRURITA
Miren IRIGOIEN INBULUZKETA ELIZONDO
Ainara GOÑI ALMANDOZ ELIZONDO
Maialen BERTIZ ORBEGOZO ELIZONDO
Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN ARIZKUN
Entrenatzailea:
Mathias URIOSTE PEREZ DONEZTEBE

BAZTANGO KT KADETEAK



Nerea SANZ AZPIROZ ZIGA
Nahia GARAIBOITXEA LOBERAS BERROETA
Ane TRANCHE MORENO ELIZONDO
Patricia DEL CAMPO PELLICER ELIZONDO
Kandela IBAIBARRIAGA AGRA ELIZONDO
Haizea MARITORENA ERROZ ANIZ
Irati IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO

Joana BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Valeria ADIN URTASUN ELIZONDO
Ainara DENDARIETA ELIZAINTZIN IRURITA
Leire BALLARENA GOIENETXE ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Enrique PETRIRENA BAQUERO ELIZONDO
Rafa MITXELENA MARITORENA ELIZONDO

BAZTANGO KT INFANTIL A



Amaia GARATE APEZTEGIA ORONOZ
Leire MIHURA HABANS ELIZONDO
Ekiñe LAURNAGARAI ROS ELIZONDO
Elixabet BAYLON URTASUN IRURITA
Amaia BALLARENA TELLETXEÁ ELIZONDO
Janire GARATE OPOKA IRURITA
Keyra BALLARENA JUANABERRIA ELIZONDO
Raika BALLARENA JUANABERRIA ELIZONDO
Uxue ZABALETA ZAMORA ORONOZ

Maialen P DENANCLARESETXABE ELIZONDO
Nahia GARATE BARDECI IRURITA
Araitx ZABALETA ZAZPE IRURITA
Ane BARRENETXE BERTIZ ELIZONDO
Jone ETXEBERRIA ZABALETA ELIZONDO
Entrenatzaileak:
Begoña DURRUTI SUKILBIDE ARIZKUN
Nekane ASTIZ GOÑI LEKAROZ
Nerea BARBERENA URRUTIA ERRATZU

BAZTANGO KT INFANTIL B



Ane URREAGA ESKUDERO IRURITA
Naxara ALEMÁN IRISARRI ELIZONDO
Meselech IRISARRI URRUTIA ELBETE
Irati BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Iraide ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
Uxue BIKONDO ARRETXEÁ IRURITA
Miren ARRAZTOA GARBALENA GARTZAIN
Aizua IPARRAGIRRE ITURZAETA ELIZONDO
Mikela JUBERA IDOATE LEKAROZ
June URRUTIA ERIZE IRURITA

Elaia VAQUERO ALEMÁN IRURITA
Aroa KORTARI MARQUEZ ORONOZ
Maialen MIGEL TORENA GASKUE BERROETA
Lur OIARZABAL AIZPURU IRURITA
Eider ERASO ETXENIKE IRURITA
Marina MENDIBURU OHARRIZ GARTZAIN
Entrenatzaileak:
Iñaki URIARTE BALLARENA ERRATZU
Pati GARMENDIA ARIZMENDI ELIZONDO



GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA

Giltxaurdi, 38, 31700 ELIZONDO
Tel.: 948 45 23 01 giltxaurdi@baztan.eus

- IGERILEKUA
- GUNE TERMALA ETA HIDROMASAJEA
- GIMNASIOA
- IKASTARO ESKAINTZA ZABALA

Zatoz kirola egitera!




BAZTANGO KT ALEBIN A



Izaro LAKOSTA MARIEZKURENA IRURITA
 Saioa PEROTXENA DANBORIENA IRURITA
 Naiara BRAÑA GAMIO IRURITA
 Irati NEOL BURLADA ARIZKUN
 Iraia GARATE OPOKA IRURITA
 Oihana GAMIO EUGI IRURITA
 Elisa ITURRALDE OLABE IRURITA
 Ane MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
 Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN

Iradi GAMIO JUANKORENA IRURITA
 Enara MINDEGIA ARGAIN IRURITA
 Jasone BAYLON URTASUN IRURITA
 Ekain SARALEGI ZAPIAIN ARIZKUN
Entrenatzaileak:
 Jone URIARTE JAIMERENA ERRATZU
 Izaskun DANBORIENA URRUTIA AZPILKUETA
 Manttoni BALLARENA ITURBURUAERRATZU

BAZTANGO KT ALEBIN B



Irati MEOKI BALLARENA ELIZONDO
 Lorea LIZARDI MUGIKA ELIZONDO
 Nahia ALZUGUREN LOPEZ ELIZONDO
 Maialen BALLARENA RIPA ELIZONDO
 Onintza GOROSABEL IRISARRI ELIZONDO
 Naroa IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO
 Saioa BARRENETXE BERTIZ ELIZONDO
 Aimar TRINIDAD DANBORIENA ELIZONDO

Axular ALEMAN IRISARRI ELIZONDO
 Jon IRIGOIEN INBULUZKETA ELIZONDO
 Nora GALLEGU IZETA ELIZONDO
 Maddi LAZARO GARMENDIA ELIZONDO
 Ane LERTXUNDI CHACON ELIZONDO
Entrenatzaileak:
 Leire GONZALEZ GALARREGI ELIZONDO
 Ana BAYLON ITURRALDE ELIZONDO

BAZTANGO KT ALEBIN C



Izaro YANCI IRIGOIEN GARTZAIN
 Eider BIKONDO MARITORENA IRURITA
 Leire VIDES SAN JOSE ELIZONDO
 Olaia AVILA DURAN ELIZONDO
 Olaia OTXANDORENA PETRIRENAORONNOZ
 Naroa ZABALETA ZAMORA ORONOZ
 Ainara ZELAIETA ALEMAN ELIZONDO
 June DENDARIETA ESKUDEROIRURITA
 Eider ZAMORA ETXABARRI ORONOZ


Ilazki IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU
 Uxue MINDEGIA ETXENIKE ORONOZ
 Kiara GUTIERREZ CALDERONORONNOZ
Entrenatzaileak:
 Izaro DENDARIETA ESKUDERO IRURITA
 Xanti DENDARIETA LUCAS ERRATZU
 Leire ARRAZTOA ALEMAN IRURITA
 Haizea EUGI GAMIO IRURITA

BAZTANGO KT AURREALEBINAK



Olatz GOÑI MEDRANO ELIZONDO
 Izadi MIHURA HABANS ELIZONDO
 Aimar GALARREGI RIPA ELIZONDO
 Eiarra ARREGI SANSIÑENA ELIZONDO
 Itziar ZIAURRIZ GOÑI ELIZONDO
 Izaro ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
 Maitane ETXEBERRIA ESKUDEROELIZONDO
 Elorri R.LARRINAGA MARITORENA ANIZ
 Itsaso BALLARENA RIPA ELIZONDO
 Saioa BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
 Ariane GARCIA SANSIÑENA ELBETE
 Janire SAROBE SANSIÑENAELIZONDO
 Nahia IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU

Katixa MURGIA LIZARDI ELIZONDO
 Irati GALARREGI RIPA ELIZONDO
 Izar MARITORENA ERROZ ANIZ
 Anne ALZUGUREN LOPEZ ELIZONDO
 Izaro GALLEGU IZETA IRURITA
 June LABORRA ELIZEGI ELIZONDO
 Andere ARRAZTOA SARRATEA ARIZKUN
 Leize MARITORENA ERROZ ANIZ
 Fernando ARRAZTOA GARBALENA GARTZAIN
Entrenatzaileak:
 Gurutze AIZPURI GOÑI ORONOZ
 Julene eta Nahia BAYLON URTASUNIRURITA
 Maider ALTXU AIZPURI ORONOZ



KARLOS ALZUGARAY



OSTEOPATA Eur. Ost.D.O

TRATAMENTUAK

- BIZKARREKO ARAZOAK • ZAINBIHURTUAK • KIROL-LESIOAK
- ANGINAK • MASAJEAK • SORTU BERRIAK • BURUKO MINAK



BERA Itzea, 20, Behea • DONEZTEBE Elizagibela, 4 behe
 HITZORDUA 607 853 208 • www.osteopatiaalzugaray.com

Erreka taldeak goitiko postuetan segi nahi du

Doneztebeko eskubaloi talde nagusiak liga eta kopa irabazi zituen iaz partida guztiak irabazita, eta hori errepikaezina den arren, aurten ere txapeldunen fasean sartzea du lehen helburua



Denboraldi hasiera ona egiten ari da Errekaren eskubaloi talde nagusia, baina bi partida galdu ditu dagoeneko. ERREKA KE

Denboraldi historiko baten ondokoari ekin dio Erreka eskubaloi taldeak. Iaz, 28 urteren ondotik, liga irabazi zuen, baita kopa ere, partida bakar bat galdu gabe. Igoera fasea ere jokatu zuen Zarautzen.

Ordukoa errepikaezina dela jakitun hasi dira, baina halere, Superkopa irabazi dute denboraldi hasieran. Ligan

ere ongi hasi dira, baina dagoeneko bi partida galdu dituzte. Iban Mindegia entrenatzaileak aipatu digunez, «Maristasen kontra jokalaria gehienak geunden eta, halere, gu baino hobekak izan ziren eta Anaitasunan kontra, aldiz, lesioak zirela eta jokalaria falta genituen eta horregatik galdu genuen». Hain zuzen,

lesioen arazoa izaten ari da denboraldi hasierako arazo handiena. «Iaz genituen Iruñeko hiru jokalaria bertze taldetara joan dira, Mikel Lana Barakaldora eta Marizkurrenak eskubaloia utzi du, baja garrantzitsuak dira, baina jubenetatik bi goratu dira, eta lehen aritutako batzuk bueltatu dira. Tartean Koldo Le-

garra eta Luismi Apezetxea atezain beteranoak, azken honek irabazi zuen Superkopa». Denboraldiko helburua, «hasiera batean goitiko taldeen fasean sartzea da, eta gero, ahal balitz final four-erako sailkatu. Dagoeneko bi partida galdu ditugula kontuan hartuz, hori lorpen handia izanen litzateke!».

Aimar GARTXITORENA ZABALETA DONEZ.
Xabier BAKEDANO JUANIKORENA DONEZ.
Ibai ELIZONDO UTERGA DONEZ.
Mikel URREAGA ELIZONDO DONEZ.
Ander RETEGI AZPIROZ DONEZ.
Izei BERAU MINDEGIA ITUREN

Markel ARIZTEGI BERAU ITUREN
Oier REKARTE AGIRRE DONAMARIA
Ander ZELAIETA EULATE LEGASA
Aloña AIOROA GOÑI ITUREN
Dunixe ALBERRO ISASI ITUREN
Entrenatzaileak:
Enaitz PORTU ZELAIETA SUNBILLA

DONEZTEBE FT FUTBOL-8 AURREBENJAMINAK



Mikel BELARRA ZUBIETA DONEZ.
Oier LOPEZ OTEIZA DONEZ.
Aritz GOÑI IGUZKIAGIRRE DONEZ.
Luka MAZON APEZTEGIA DONEZ.
Ekain LANDA ORTUOSTE DONEZ.
Jurgi GUERRA URKAREGIELGORRIAGA

Ibai ZUNZARREN MARIEZKURRENA
DONATEZTEBE
Liher ISASI ZABALETA ITUREN
Ekhi INDA LUZURIAGA GAZTELU
Entrenatzaileak:
Ibai SANTOS LUZURIAGA DONEZ.

DONEZTEBE FT FUTBOL-8 BENJAMINAK B



Oinatz EZKURRA IRAZOKI DONEZ.
Aratz RETEGI ESKUDERO ERATSUN
Lukas EZKURRA ARRETXEIA SUNBILLA
Jokin MARIEZKURRENA MIGELTORENA ELGOR.
Garazi IÑIGO LUJANBIO ITUREN
Aritz IÑIGO LUJANBIO ITUREN
Ekaitz SEIN ARIZTEGI ITUREN
Peio MARIEZKURRENA ERREGERENA ITUREN
Oinatz ELIZALDE LARRETXEIA ITUREN
Irati OIAREGI SAGASETA NARBARTE

Inhar AIOROA ERRAZKIN ITUREN
Unai OTEIZA ELIZONDO OIZ
Cristiano R. ESCOBAR ORELLANA LEGASA
Aimar BERTIZ ETXEBERRIA ELGOR.
Xanti ELIZONDO UTERGA DONEZ.
Enaitz AGESTA PETRIRENA SUNBILLA
Aimar BAZTERRIKA ILARREGI ITUREN
Santiago MITXEO SIERRA SALDIAS
Entrenatzaileak:
Aimar LEATXE PORTILLO DONAMARIA

Ez du liga hasiera ona egin Gure Txokoak

Jokalari berriak egokitu eta egoerari buelta emateko gogotsu dago Berako futbol talde nagusia, baina momentuz hamarretik partida bakarra irabazi du



Gipuzkoako Gorengoan mailan azkena da oraingoz Gure Txokoa, partida bakarra irabazita. JOSE MARI TELLETXEA

Joan den denboraldiko ildotik, aruten ere ez du liga hasiera onik egin Berako Gure Txokoa futbol talde nagusiak Gipuzkoako Gorengoan mailan. Hau idazterakoan, hamar partidetatik bakarra irabazi du, gainerako guztiak galdu, baina egoerari buelta emateko gogoz dago, Javier Escagues entrenatzaileak aipatu digunez.

«Partida onak egin ditugu, baina ematza onik ez da ailegutzen. Momentu klabeetan huts egiten dugu eta hor joan zaizkigu puntuak», dio. Hala ere, denboraldi luzea gelditzen da oraindik aitzinetik, eta joan den urtekoa eredutzat hartuta, egoerari buelta emanen diotela uste du Escaguesek: «Ez dugu tenporada botatzen.

Joan den urtean garai honetan ere azkenak ginen eta bi jardunaldiren faltan lortu genuen maila mantentzea». Lauzpabortz jokalaria beteranok taldea utzi dute eta jende berria sartu da, Irundik, Lesakatik. Horiek egokitzen diren neurrian, emaitzak ere hobeak izanen direla uste du entrenatzaileak eta goiti joanen dira. «Ahal

den moduan maila mantendu nahi dugu eta hasi behar dugu espabilatzen. Etxeko partidak izanen dira horretarako oinarria», aipatu digu.

Jubencil mailako taldea, aldiz, denboraldi polita egiten ari da, eta, lesioen ondorioz, talde horretako jokalaria «partida guztietan» eraman behar izaten ditu lehen taldearekin.



GIPUZKOAKO PREFERENTE

Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO	BERA
Mikel ALDAZABAL ZAMARREÑO	BERA
Bittor TXANTRE IRAZOKI	BERA
Jokin PINATXO OLAZIREGI	BERA
Mikel ESNAOLA URKIA	BERA
Manex ZAPIAIN ABUIN	BERA
Iker GARCIA IRAZOKI	BERA
Mikel IRAZOKI ZELAIETA	BERA
Ruben PEDROSA MEDINA	BERA
Aleix PEDROSA MEDINA	BERA
Andoni RIOPEBRE HUIZI	BERA
Iban TELLETXEA IRIBARREN	BERA
Julen ERRANDONEA MARTIN	BERA
Beñat MITXELENA SAGASTIBELTZA	BERA
Eloy GARCIA OTXANDORENA DONEZT.	
Jon AROZENA BULDAIN	IRUN
Iñaki OTAÑO AGINAGA	IRUN
Beñat IRAGORRI OIANGUREN	IRUN
Ivan VARAS FERNANDEZ	IRUN
Aitor ALZUGARAI ZUBIRI	LESAKA
Entrenatzailea:	
Jabier ESCAGUES DOZAGARAT	BERA



AHOLKULARITZA FISKALA KONTABLEA
ASESORIA FISCAL CONTABLE

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika 1, 31780 BERA(Nafarroa)

tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO JUBENILEN LEHEN MAILA



Gipuzkoako lehen mailan ari dira Gure Txokoako gazteak eta liga dotorea osatzen ari dira. JOSE MARI TELLETXEA

- Unai LLUCIA BEORLEGI BERA
- Iban AZKARATE SEBASTIAN BERA
- Jon ETXALAR ALTZUGUREN BERA
- Unax ELEXPURU MITXELENA BERA
- Aimar LEKUONA LAZKANO BERA
- Xiker LIZARDI ARTOLA BERA
- Iñaki RUIZ MARTIKORENA BERA
- Asier TELLETXEA APEZTEGIA BERA
- Urko TELLETXEA ETXANDI BERA
- Haiz TELLETXEA ANDUEZA BERA
- Unax VILLAMEA IZAGIRRE BERA
- Eneko GARCIA SAN MIGUEL BERA
- Josu ALZUGUREN ETXEBESTE BERA
- Asier LATORRE OSUA BERA
- Unai ETXEGARAI ELGORRIAGA BERA
- Urtzi FAGOAGA ALVAREZ BERA
- Alexander ALZUGUREN GOIA BERA
- Martxel ARTIEDA ARRIETA BERA
- Urko ADURIZ ZUÑIGA URRUÑA
- Ganix AGUILAR MATXIARENA BERA
- Ent.: Angel M^o ARANIBAR ALMANDOZ eta Patxiku ARTIEDA APEZTEGIA BERA

GURE TXOKOA GIPUZKOAKO KADETEEN LEHEN MAILA



- | | |
|--|--------------------------------------|
| Urtzi ETXEGARAI TABERNA BERA | Unai GARRO UNSION BERA |
| Martxel MATXIKOTE ZOKO BERA | Adur HUIZI MATXIARENA BERA |
| Ekai POMBAR HERNANDORENA BERA | Beñat IRAZOKI TELLETXEA BERA |
| Kenai GARCIA CURTO BERA | Andoni TELLETXEA APEZTEGIA BERA |
| Suharri IRATZOKI SENPER BERA | Julen UBIRIA MENDEZ BERA |
| Gorka ARAKUES ARRIBILLAGA BERA | Enaitz PORTU ZELAIETA SUNBILLA |
| Ismail BENSALD BIURRARENA BERA | Ivan NUÑEZ PEREZ BERA |
| Mikel ERRANDONEA G ^o -LARRATXE BERA | Adei VILLAMEA IZAGIRRE BERA |
| Jefferson FELIX RICHARDSON BERA | Amets LIZASO PIKABEA BERA |
| Unai ALZUGARAI ARANBILLET BERA | Entrenatzailea: |
| Eneko LOIARTE OIARTZABAL BERA | Miguel TXOPERENA MENDIGUTXIA IGANTZI |

GURE TXOKOA INFANTILAK GIPUZKOAKO LEHEN MAILA



- | | |
|--------------------------------|--|
| Alain ZELAIETA BERASATEGI BERA | Iker PETRIRENA PIKABEA BERA |
| Mikel POMBAR HERNANDORENA BERA | Oihan PIKABEA ELIA BERA |
| Eneko ETXEBERRIA OSUA BERA | Joel PRENDES PIKABEA BERA |
| Mikel ZOZAIA IÑARREA BERA | Kemen RUIZ ZAPIAIN BERA |
| Peio MARTIKORENA ETXANDI BERA | Luka TRILLO GOIA BERA |
| Ion URKIOLA REBOLLO BERA | Hurrirtz ANZIZAR SENPER BERA |
| Unai ETXEBERRIA GOIA BERA | Luka ALZUGUREN GOIA BERA |
| Enaitz ERKIZIA LASAGA BERA | Urtzi USTARIZ PEREZ BERA |
| Ion ERRANDONEA GARBALENA BERA | Ent. J.Luis IRAZOKI ALTZUGUREN BERA |
| Jokin IRAZOKI TELLETXEA BERA | Ent. Oskar URKIOLA IRIARTE BERA |
| Andoni LATORRE OSUA BERA | |



TXOMIN IRAZOKI FISIOTERAPEUTA

MASAJEA · BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA
KIROL LESIOAK · LANEKO LESIOAK

Eztegara 28 behea · BERA | 670 471 200

GURE TXOKOA FUTBOL-8 ALEBINAK A



Oihan TELLETXEA IRIARTE	BERA	Bruno MONCALVILLO GARCIA	BERA
Aiur JIMENEZ PRIETO	BERA	Eluska POMBAR LARRALDE	BERA
Ortizadar IRATZOKI SENPER	BERA	Enaut KORTA BIKUÑA	BERA
Martxel SALGADO IGUARAN	BERA	Peru LEKUONA MOLINERO	BERA
Oier LLUZIA BEORLEGI	BERA	Peio MORATE ANDUEZA	BERA
Jon GOÑI OTAMENDI	BERA	Mattin PEREZ TAPIA	BERA
Julen GOÑI OTAMENDI	BERA	Inhart TABERNA MARTINEZ	BERA
Moussab SHEL	MAROKO	Luka NEWELL PATERNAIN	BERA
Ibai LEKUONA HUIZI	LESAKA	Ent. Angel POMBAR eta Sergio MORATE	

GURE TXOKOA FUTBOL-8 ALEBINAK B



Andoni APEZETXEA ALMANDOZ	BERA	Gexan SAN JUAN AROZENA	BERA
Jokin BENGOTXEA LEZAGOIEN	ZUGARRAM	Xan VILLAMEA IZAGIRRE	BERA
Martxel ZELAIETA BERASATEGI	BERA	Ioritz TAPIA ALVAREZ	BERA
Thiago MELEIRO	BERA	Xiker RUIZ ZAPIAIN	BERA
Unax AIZPURUA IBARGARAI	SARA	Iñigo UGALDE PERUGORRIA	BERA
Oier BARCENILLA LANCHAS	BERA	Oihane NUÑEZ PEREZ	BERA
Unax OIARTZABAL LAKASTA	BERA	Entrenatzaileak:	
Oier MARTIN FAGOAGA	BERA	Jose RAMIREZ BURGUILLO	BERA
Ibai MATXIKOTE ZOKO	BERA	J.Miguel MATXIKOTE ALTZUGUREN	BERA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK A



Haizea OTAEGI DE BRITO	BERA	Iker ETXEPARE VIVANCO	BERA
Kaiet ERKIZIA ORDOKI	BERA	Gorka MARTINEZ HERRERO	BERA
Ekhioztz IRATZOKI SENPER	BERA	Mikel URROZ ZUDAIRE	BERA
Limber ALBERCA CUENCA	BERA	Auritz ZABALETA HUERTA	SARA
Unai ALAPONT ETXEGOIEN	BERA	Iraia KORTA BIKUÑA	BERA
Eneko TELLETXEA APEZTEGIA	BERA	Olatz IRAZOKI TELLETXEA	BERA
Andoni OFFROY SAHARREA	BERA	Beñat ALTOLAGIRRE GARCIA	BERA
Oihan DE CRUZ PIZZIO	BERA	Entrenatzaileak: Jon IRAZOKI, Alain	
Jon AROSTEGI IRAZOKI	BERA	MORCILLO eta Aitzol IRIZAR	

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK B



Xabat LEKUONA AGIRRE	BERA	Eder MARTINEZ BLANCO	BERA
Mattin URROZ MOURGUY	BERA	Xiker FERNANDEZ OTXOTEKO	BERA
Alaia URROZ ZUDAIRE	BERA	Ekaitz ERRANDONEA IRIBARRENERA	
Amaia URROZ ZUDAIRE	BERA	Entrenatzaileak:	
Ibon POMBAR HERNANDORENA	BERA	Ruben PEDROSA MEDINA	BERA
Mattin LASAGA MAIA	BERA	Bitor TXANTRE IRAZOKI	BERA
Xabier PEREZ TAPIA	BERA	Mikel ALDABAL ZAMARREÑO	BERA
Hegoi RETEGI RICO	BERA		

TOKI ONA
UDAL KIROLDEGIA
BERA

Urdis Bera
SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK

Martxan dira aurtengo
KIROL AKTIBITATEAK.
Oraindik aukera duzu izen emateko.
ZATOZ KIROLDEGIRA!

**PILATES, AEROBIKA, BOX EXPRESS,
ENTRENAMENDUA SUSPENTSIOAN,
GIMNASIAK, DANTZAK, CICLO INDOOR,
GAP, GAZTE FITNESS, ZUMBA STRONG...**

[f](#) Berako Toki-Ona kiroldegia
[t](#) @berakiroldegia

Frogatu gure **BOX-a**
ENTRENATZAILEAREKIN

DIBERTIGARRIA
eta EMAITZA ONAK!
ABONA ZAITEZ!

T. 948 630 215
bera@urdisl.com

Kopatik kanpo eta ligan behetik goiti dator taldea

Berako taldea Gipuzkoako lehen mailan lehian ari da denboraldi honetan, eta kopatik kanporatu baldin bazuten ere, liga txukuna egiten ari da

Bigarren urtez, Gipuzkoako, lehen mailan ari da Berako Xuga-Gure Txokoa areto-futbol taldea. Denboraldi hasiern nahiko gorabehera izan dituzte. Hasteko, kopatik kanpo gelditu zen lehen kanporaketan Oiartzunen kontra galdu eta ligan ere kosta egin zitzaion martxa hartzea eta lehen garaipenaltortzea. Jose Manuel Ramirez jokalaria beteranoak

aipatu digunez, «bortz jokalar berri sartu dira taldean eta horiek ere pixkanaka-pixkanaka egokitu behar izan dute jokora. Gainera, joko-sistema ere aldatu dugu eta denoi kosta zaigu, baina ari gara martxa hartzen eta emaitzak ere hobetzen joan dira». Izan ere, kopakoaren ondotik, ligako lehen bi partidak ere galdu ondotik, lau jardunaldi egin

GURE TXOKOA ARETO-FUTBOLA GIPUZKOAKO 1. MAILA



dituzte galdu gabe, hiru irabazi eta bat berdinduta. Hor-taz, saillkapeneko zulotik goitiko aldera begira daude dagoeneko eta liderra ere lau puntura bertzerik ez dute. Halere, kategoria handi honetan, maila mantentzea izanen dute helburu. Eta Leitza-ko Aurrerarekin jokatzen duten derbia ere partida be- rezia izaten dute.

Fernando GOMEZ COLINA	BERA
Igor PANDO ARAMENDI	BERA
Sabino GOMEZ DOMINGUEZ	BERA
Ibai VALVERDE EXPOSITO	BERA
Aitzol IRIZAR ARIZTIA	BERA
J.Manuel RAMIREZ BURGUILLO	BERA
Iñigo ZELAIETA ALONSO	BERA
Gorka RETEGI ERRANDONEA	BERA
Joseba PEREZ CUEVA	BERA
Jokin TELLETXEA REYES	BERA
Joel FREIRE GOMEZ	BERA
Asier LEKUONA IRIARTE	LESAKA
Iñaki GALARREGI	BERA
Jon IRAZOKI ARANBURU	BERA

KATEA BIKE
BERA

**BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA**
**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Kostata izan bada ere, hor da Menditarrak-BRT

Desagertzekotan egon ondotik, Euskal Ligako bigarren mailan ongi ari da senior taldea eta Lekarozko eta Ultzamako errugbi eskolekin segitzen du zazpigarren urtez



Menditarrak-BRT taldeko seniorrak euskal ligako bigarren mailan ari dira. UTZITAKOIA

Aurten talderik ateratzeko jokalaririk nahiko izanen ote zuten zalantza aunitz izan ondotik, Euskal Ligako bigarren mailarako taldea plantatu du Menditarrak BRT taldeak. Maila aldaketa nabari da eta ongi hasi dira, «jokalaririk berriak eta urteak jokatu gabe zeudenak itzuli dira, baina segituan dinamika ona hartu dute, partida gehienak irabaziz»,

diote. Aurtengo helburua, «talde gaztea garestu aprobetxatuta blokeatzea da, hurrengo urteetan errugbia bermatu ahal izateko zonaldean». Gazteagoek Irungo Txingudi taldearekin batera osatu dituzte taldeak. Zazpigarren urtez, errugbi eskola martxan dago Lekarozen eta Ultzaman eta 14 urtez beheitikoek hiru



hilabetero kontzentrazioak egiten dituzte Nafarroako bertze taldeekin.



16 eta 18 urtez beheitiko taldeak, Lekarozen jokatutako partiden atarian. BRT

SENIORRAK

Aimar LASTIRI	SUNBILLA
Alex SANTESTEBAN	IRURITA
Ander OSKOZ	DONEZTEBE
Antton LAURNAGA	ELIZONDO
Beñat ARREGI	ORONÓZ-MUGAIRI
Fermin LARRALDE	ELIZONDO
Gorka LAURNAGA	ELIZONDO
Haize ARRIETA	ELIZONDO
Iñaki IRAIZOZ	ETSAIN
Iñaki PERURENA	ELIZONDO
Iñigo LIZASOAIN	ELIZONDO
Ioseba ARIZMENDI	ORONÓZ-MUGAIRI
Ioseba LOIARTE	IRURITA
Ioseba MITXELENA	IRURITA
Iosu MARTINEZ	ELIZONDO
Ivan MUTILVA	ANOZIBAR
Jokin MAIA	ELIZONDO
Jokin URREAGA	ELBETE
Jon IRIARTE	ARIZKUN
Jon ZUBIRI	ARIZKUN
Julen ANCIZU	LIZASO
Julen JUANKORENA	SUNBILLA
Julen LINZOAIN	IRAGI
Manex ETULAIN	ARIZKUN
Mattin APEZETXEA	ORONÓZ-MUGAIRI
Migeltxo SOBRINO	ARIZKUN
Pello GASTEARENA	ORONÓZ-MUGAIRI
Sergio OSKOZ	ELIZONDO
Xanti GARMENDIA	ELIZONDO
Unai URROZ	DONEZTEBE
Benjamin LANGE	IRUÑEA
Ent.: Peio OBREGOZO	IRURITA
Prest.fisikoa: Xabi URRUTIAARRAIOZ	
Delegatuak: Kaiet IRIARTE	ARIZKUN
Oscar VILLABONA	LATASA
Gorka ALTZUARTE	ALMANDOZ

SUB-18 (BAZTANGOAK)

Aimar AROZENA	MITXEO	ALMANDOZ
Aimar RODRIGUEZ	ETXANDI	ORONÓZ
Aitor ADIN	BIDEGAIN	ARIZKUN
Ellande ALTZUGARAI	ARIZTEGI	ELBETE
Eñaut BERISTAIN	IRIARTE	ARIZKUN
Gorka JAURENA	IRISARRI	ARIZKUN
Haritz URZAIZ	CUARTERO	ELIZONDO
Jokin BEKA	PAGAZAURTUNDUA	ARIZKUN
Mikel GOROSTIDI	JAIMERENA	ARIZKUN
URKI NEOL	BURLADA	ARIZKUN
Mikel BIDEGARAI	ITURRALDE	IRURITA
Unai AGINAGA	ETXAMENDI	ELIZONDO
Ent.:	Aitor MUTILVA	RUIZ DE AZUA

SUB-16

Alex IRIARTE	ARRIETA	ARIZKUN
Antton FERNANDEZ	BIDEGAIN	ARIZKUN
Asier EZKURRA	ITURRALDE	URRITZOLA
Asier ORGANBIDE		ELIZONDO
Beñat NEOL	BURLADA	ARIZKUN
Beñat VIOLA	MENA	IRURITA
Haritz ARRAZTOA		IRURITA
Iñaki EZKURRA	NAVARRO	ARRAIOZ
Iñaki JUBERA	IDOATE	LEKAROZ
Joseba BIDEGARAI	ITURRALDE	IRURITA
Julen ARRIADA	IRIGOIEN	AZPILKUETA
Julen PEREZ		ELIZONDO
Julene ETULAIN	BIDEGAIN	ARIZKUN
Junes ALTZUGARAI	PERNAUTE	ARIZKUN
Markel ADIN	BIDEGAIN	ARIZKUN
Unai ITURBIDE	LAZARO	ELIZONDO
Unai MUGIRO	LARREGI	ARIZKUN
Ent.:	Iñaki EZKURRA	OSAKARURRITZOLA

Bidasoaren arroko ibai-landarediaz liburua aurkeztua

Life Irekibai proiektuaren jarraipena egiteko Jardunaldiaren barrenean, azaroaren 5ean egin zuten

TTIPI-TTAPA

Bidasoaren Arroko Ibai-Landaredia liburua aurkeztu zuten azaroaren 5ean Bertizko Jaurrerria Parke Naturalean, Life Irekibai proiektuaren jarraipena egiteko Jardunaldian. Cesar Perez Martin, Nafarroako Gobernuako Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko zuzendariak egindako ongietorriaren ondotik, *Bidasoaren Arroko Ibai-Landaredia* liburua aurkeztu zuten Juan Carlos Báscones Carretero eta Esperanza Ursúa Sesma botanikoez. Biek esperientzia

dute ekologia- eta paisaia-azterlanetan. Eva Zaragueta eta Luis Sanz, Life Irekibai proiektuaren koordinatzaileak ere aurkezpenean izan zen.

Gure inguruko espezieak identifikatzeko eta ezagutzeko 108 fitxa biltzen ditu 250 orrialdeko liburuak, Javier Arbilla, Patxi Iriarte eta Juan Carlos Básconesen argazkiekin eta Arbillaen ilustrazioekin.

Aurkezpenaren ondotik egin zuten Life Irekibai proiektuaren barneko lanen jarraipena. Honela, presak ezabatzeko lanak eta Bidasoaren Arroko



Bidasoko ibai-landaredia ezagutzeko liburua aurkeztu zuten. JUAN MARI ONDIKOL

leheneratze ekologikoaz aritzen Nekane Vizcay, Nafarroako Gobernuako Ibaiak Lehenagoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Ataleko arduraduna. Arrain espezieen jarraipenaz aritu zen Arrantza Kudeatzeko Bulegoko Jose Ardaiz Ganuza; eta desman piriniotarraren populazioen eta habitataren jarraipenaz eta bisoi amerikarraren kontrolaz Migel Mari Elosegi Irurtia biologo

leitzarra, Ingurune Naturalaren Zerbitzuko Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Ataleko arduraduna. Azkenik, Nafarroako Ingurumen Kudeaketako (NIK) Ana Varela Alvarezek, informazio eta sentsibilizazio ekintzak eta partaidea prozesua azaldu zituen.

Ondotik, ibilbide botanikoa egin zuten Bertizko Jaurrerria Parke Naturalean barna, Erreparatze araino.

Denok amesten duzuen jaunartzea

Irisarri LAND

Ingurune zoragarrian familia eta gonbidatuek egun ederra pasako duzue. Parkeak eskaintzen dituen jardueraz gain, **KALITATEZKO GASTRONOMIA**arekin ere goza ezazue.

Teresa Gil cheff ezagunaren gidaritzapean, **Irisarri Jauregia** jatetxean, **ukitu berritzaileak dituen sukaldaritza tradizionala** eskaintzen dugu, sasoiko barazkiak, Nafarroako haragiak eta arrain freskoak erabiliz.

Irisarri Landeko ingurune, ekitaldi, eta gastronomiarekin egun ahaztezina pasako duzue

Eskatu informazioa:
948 92 89 22 | reservas@irrisarriand.es | www.irrisarriand.es

Jatetxeko kartaz gain, OSPAKIZUN BEREZIETARAKO GUSTUKO MENUA aukera dezakezu



Azaroan Peron kontserben lantegia bisitatu zuten.

Abenduaren 5ean urteko azken irteera Iruñera

Azaroan Lodosan eta Lizarran izan ziren eta abenduan Iruñera joanen dira

PABLO IRASTORTZA

Urte bukaeran, elkarteko ki-deak batetik bertzera dabilta. Azaroaren 7an, lehendabiziko ortzegunean, Lodosara eta Lizarrara joan ziren 161 lagun. Abenduan, berriz, Iruñera joateko asmoa dute 100 lagunek.

Lodosan eta Lizarran

Lodosan, ohi bezala, Peron kontserben lantegia bisitatu zuten. Bertako arduradun jatorrak etxeko pintxo hotz eta bero goxoak dastatzeko aukera eman zien. Bai piperrez, bai zainzuriz baita bertze hainbat barazkiz horniturik bukatu zuten bertako bisita interesgarria.

Hurrengo geldigunea Lizarra izan zen, erdiguneko kale ederrean paseatzeaz gainera, osteguneroko kale-azoka edo merkadilloa bisitatzeko auke-

**GIDARI BATEN
LAGUNTZAZ,
IRUÑEKO LEKUAK
BISITATUKO DITUZTE**

rarik ez zuten galdu. Goiza borobiltzeko, elkarteko kideek Larriongo jatetxean berritu zituzten indarrak. Bazkalondoan, Joxeangelen musika lagun, gorputzak astintzeko beta izan zuten. Egun ederra pasatu ondotik, 19:00 aldera etxeratu ziren.

Abenduan Iruñera

Aurreikusita zegoen bezala, eta urtea behar bezala bukatzeko, aurtengo Arkupeakeko bazkideen azken ateraldia Iruñera egingen dute, abenduaren 5ean, ortzegunean. Dagoeneko 100 lagunek izena emana dute.

Autobusez, goiz erdirako (10:30 alderako) Iruñera ailegatuko dira. Ondotik, bazkal ordua arte, bertako gidari bategen lagundurik, Nafarroako hiriburuko bazter eta leku interesgarrienak sakonki ezagutzeko aukera izanen dute.

Bazkaria El Toro jatetxean dastatuko dute eta, eguna behar bezala bukatzeko, Joxeangelen doinuek alaituta, dantzaldia izanen dute. Ilunabarrean, 19:15ean, hartuko dute bueltarako autobusa.

Elkarteko Eguberrietako loteria eskuragarri

Aipatu bezala, eskuetan dauzkate herri bakoitzeko delegatu edo ordezkariak, bi zenbaki dituzten txartelak. Abenduaren 22an gure zonaldean loteria eroriko omen den zurrumurrua dabilenez, ez berandu arte itxaron!



Ikastaro guztiak martxa ederrean doaz

Burua, eskua eta gorputza laguntzeko, abiada ederrean doaz hurrengo uda aldean finituko diren solasaldiak, ekitaldiak, erakusketak eta ikastaroak. Hutsune bakarra, aipatzekotan, jende eskasagatik, bertan beheiti utzi zen zizelketa ikastaroa da. Bestalde, nabarmentzekoa da, Beintza-Labaienen informatika ikastaro bat sortu dela, alde batetik, garai modernoan eskakizunaren eskaerari erantzunez; eta bestalde, ikasteko adin-mugarik ez dagoen seinale.



Elkarteko artistek euren lanak atera zituzten. UTZITAKOIA

Doneztebeko ferietan elkarteko hainbat kidek lanak plazaratu zituzten

PABLO IRASTORTZA

Nahiz eta eguraldi desatsegina izan, horrek ez zuen elkarteko 60 lagunuen ferietako egun-pasa zapuzterik izan.

Goiz erdi aldera iritsi ziren autobusez Doneztebera erakusketak eta kale merkatuak ikusi eta erosteko aukera zabaldua izan zuten. Eguerdian, Etxalarko Bentetara joan ziren mahai-inguru goxoan bazkaltzera. Arratsaldean, Nafarroako lehenengo mailako aizkolari txapelketako finala ikusi ahal izan zuten. Final lehiatuaz gozatu ondotik, 19:30 aldera abiatu ziren etxerantz.

Erakusketa ederra

Elkarteko eskulangile eta artistek ferian parte hartu zuten: Claudio San Miguel, Jose Ignacio Telletxea, Miguel Etxeberria eta Sagrario Agerrebere (Elgorriaga); Miguel Arregi eta Santiago Hualde (Zubieta); Isabel Juanikorena eta Jose Luis Olaizola (Doneztebe); Julian Azpiroz (Eratsun); Blanca Jimenez (Lekaroz) eta Mila Esteban (Elizondo); Margarita Meco (Sunbilla) eta Blanca Bertiz (Ornoz-Mugairi). Santa Luzia plazako egoitzako beheko solairuan jarri zuten euren postua.

Mendialdeko Gazte Topaketak antolatu dituzte estreinakoz

Abenduaren 6an eta 7an bilduko dira Lekunberrin dagoen Larraungo Printza Gune Autogestionatuan

TTIPI-TTAPA

Argirik gabeko bideak, etorkizunik ez du lemapean, Mendialdeko I. Gazte Topaketak antolatu dituzte Lekunberrin. Abenduaren 6an eta 7an egin dute hitzordua Larraungo Printza Gune Autogestionatuan eta Nafarroako Mendialdeko gazte guztiei egin diete bertaratzeko deia: Bortzirriak, Baztan, Malerreka, Leitzaldea, Irurtzun-Arakil, Larraun, Basaburua-Imotz, Araitz-Betelu...

Azaroaren 16an egindako agerraldian azaldu zutenenez, «elkartasunezko harremanak eraiki eta esperientziak elkarbanatzeko» baliatu nahi dituzte topaketak: «elkar ezagutu eta aurrerantzean baliagarri izanen zaizkigun tresnak barneratzen joateko antolatu ditugu aurreneko Mendialdeko Gazte Topaketak».

Abenduaren 6an, ostirala-ekin, hasiko dituzte topaketak eta abenduaren 7ko ilunabarrrera arte hainbat ekintza antolatu dituzte.

Abenduak 6, ostirala

Arratsaldean, 16:00 aldera, harrera egingen diete Larraungo Printza Gune Autogestionatuan Nafarroako Mendialdeko hainbat txokotatik joanen diren gazteei. 17:00etan elkar ezagutzeko jolasak egingen dituzte eta 18:00etan inguruko gazte asanbladen egoera aztergai izanen dute mahai-

«ELKAR EZAGUTU ETA ESPERIENZIAK ELKARBANATZEA DA ASMOA»



Mendialdeko hainbat gazte asanbladetako ordezkariak. LARRAUNGO PRINTZA

-inguru batean. Bateko eta besteko ordezkariak egonen direnez, bakoitzak bere egoera, bizipenak... partekatuko ditu besteekin. 21:00 aldera afari autogestionatua egingen dute, norberak bere afaria eramanez du etxetik eta elkarbanatu egingen dute. Ondoren, Alaitz eta Leire Olanok kontzertu akustikoa eskainiko dute. Nahi duenak gaua bertan pasatzeko aukera izanen du lotarako tokia izanen baita.

Biharamunean, 09:00etan gosalduta eta 10:00etan eguna antolatzeko asanblada egingen dute. Denen artean erabakiko dituzte egingen dituzten ekintzak. 10:30ean testuen eztabaida egin eta 14:00etan bazkaltzeko elkartuko dira. Ondoren, topaketei bukaera emanez, auzolana egingen dute.

Topaketak «harremanak saretzeko aukera paregabea» direla esanez, gazte guztiei bertaratzeko deia egin diete.

Erosketetan hondakinak murrizteko tuperrak banatu dituzte Baztan-Bidasoan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Bortzirriak eta Malerrekako Mankomunitateek, urteroko ohiturarekin jarraituz, Hondakin Prebentziorako Europako Astearen baitan prebentzio kanpaina egin dute. Duela hiru urte egin zuten kanpaina arrakastatsua errepikatuz, arraindegi eta harategietan sortzen diren plastiko eta papereko hondakinak saihesteko tuperrak banatu dituzte herritarren artean. Kanpainaren helburu nagusia hondakinak sortzearen arazoei buruzko

gogoeta eragitea, eta erosketak egiterakoan hori kontutan hartzea da. Gure erosteko ohiturek eta erosketak egiteko moduek eragin handia dute hondakin sorreran eta erosketarako poltsa berrerabilgarriak eta tuperrak erabiltzeko ohitura hartuz gero sortutako hondakin kopurua aunitz murrizten ahal da.

Kanpaina azaroaren 24ra bitartean

Azaroaren 16tik 24ra bitartean ospatu den Europako Hondakin Prebentziorako Astea

baliatu dute aipaturiko erakundeek prebentzio ekintza honen inguruko informazioa zabaltzeko. Bortzirriak eta Malerrekako tuperrak establezimentuetan banatu dituzte zuzenean (Bortzirietan arraindegietan eta Malerrekako arraindegi eta harategietan). Baztanen, aldiz, etxean gai organiko bereiztea eta inkesta bat betetzea beharrezkoa izan da Udaltxan tuperra bildu ahal izateko.

Gainera, azaroan kanpainara atxikituriko establezimentuetan erosketak tuperrarekin egin dituztenek saria irabazteko aukera izan dute, erosketa baleak zozketatu baitituzte.

Cederna Garalur elkarteak lan eskaintza egin du

Cederna Garalur elkarteak tokiko garapen agente bat kontratatu nahi du Bortzirriak, Malerreka eta Bertizaranan lan egiteko. Curriculumak, hizkuntza tituluekin eta lan-bizitzaren ziurtagiriarekin batera info@cederna.es helbidera bidali behar dira, mezua-aren gaia 'Bortzirriak-Malerreka-Bertizaranako garapen agente' izanen delarik. Azaroaren 29an 14:00etan bertan da aurkezteko epea. Argibide gehiago www.cederna.eu/eus web orrian edo 948 20 66 97 telefonora deituta.



Bertako produktuekin osatuko dute bazkariko menua. ARTXIBOA

Feria egun handia izanen dute azaroko azken larunbatean

Azaroaren 28ko 14:00 arte eros daitezke bazkariko txartelak Amaia kafetegian

TTIPI-TTAPA

Hamaseigarren edizioa izanen du aurtenazienda, artisau eta nekazaritza feriak. Azaroko azken larunbatean, hilaren 30ean, saltzaile eta bisitariak bat eginen dute plaza inguruan. Herri kirolek ere tokia izanen dute eguneko ekintzen artean eta bazkaria eta musikarekin borobilduko dute eguna.

Goizean, 10:00 aldera, hasiko da feria. Talogileen postuak, trikitilariak, salmenta-postuak... ez dira faltako. 11:00etan ardiaren eta behorren itzulia egingen dute eta 12:00etan herri kirol desafioa ikusteko au-

kera izanen dute plazara hurbiltzen direnek.

14:00etan bazkaltzeko bilduko dira. Txartelak dagoneko salgai daude Amaia kafetegian. Bertako produktuekin osatu dute menua: babarrunak, betizu gisatua eta postrea. Langileek 21 euro ordaindu beharko dituzte, ikasle eta langabeek 18 euro, bederatzi eta hamasei urte artekoek 10 euro eta haurrek doan. Txartelak erosteko azken eguna azaroaren 28a izanen da. Eguna dantzan bukatuko dute Bixente musikariak jotako piezen erritmora.

Ostegunetik aurrera pediatria zerbitzua martxan hasiko da

TTIPI-TTAPA

Azken hilabeteetan egoera ezezagokorrean egon ondoren, azaroaren 28tik, aurrera pediatria zerbitzua izanen dute berriz herrian. Ostegun goizetan, 11:15etik 14:00etara bitarte, Teresa Rodriguezek artatuko ditu herriko ttikienak.

Osasun Kontseilariak Udalarari jakinarazi dionez, aurrera begira, pediatria lanpostu hori oposizio lehiaketa bidez esleitzeko asmoa dute. Esleipen horretan, Leitza eta Goizuetako postuak batera banatuko lirateke. Ea hala den eta arazoa behin betiko konpontzen den.



F. LOIARTE

Bi herri, kantuan elkarrekin

Azaroaren 16an, Oiartzungo Udaletxean emanaldia eskaini zuten Umore Onak et Oiartzungo Lartaun abesbatzak. Maddalen Dorrontsorok eta Eneko Amundarain aritu ziren zuzendari lanetan. Bakarka lehenbizi eta bi herrietako ahotsek bat eginda gero, saio ederra eskaini zuten.

Azaroko ekitaldiak prestatzeko biltzen hasi da emakume talde bat

TTIPI-TTAPA

Herrian emakume talde baten beharsumatu du udal taldeak eta hori bultzatu nahian, autodefentsa feminista tailerra egiteko aukera eskaini du Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun sailarekin batera. Tailer hauen antolaketa izan da

emakume talde batek elkartzen hasteko behar zuen akuilua. Azaroaren 25eko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira ere zerbait prestatu dute eta aurrera begira lanaketa gehiago egiteko gogotsu agertu dira. Animo eta segi lanean!

Bidane Huici arduratuko da eskolako garbiketaz

Urrian egindako lizitaziora bera bakarrik aurkeztu zen, eta baldintza guztiak betetzen dituenez, Bidane Huiciri esleitu zaio "Xalto" eskola garbitzeko lanpostua (urteko lizitazio prezioa 16.059,83 euro, BEZa kanpo). Lau urtez luzatu daiteke kontratua.

Tifanitxo eraikina berritzeko lanak egingen dituzte

Abenduan hasiko dituzte Tifanitxo eraikina zaharbertitzeko lanak. Biok Pro. eta eraikuntzak SL enpresak arduratuko dira lanak egiteaz eta, jakinarazi dutenez, bi hilabeteetan, 2020ko otsailera bukatuta egon beharko dute.

NUA
arkitektura eta diseinua

Nerea Sanchez
Uxue Mutuberria

655 40 55 90 | 681 01 30 28
Domingo Egia 4, Hondarribia
nua@nua.eus | www.nua.eus

Euskararen Egunaren aitzakian egun beteko pesta

Banabar eta euskal jantzien txapelketa antolatu dituzte eta arratsaldea euskal kantuekin goxatuko dute

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 3an, asteartea, Euskararen Eguna ospatuko dute aresoarrek. Egitaraua denen artean ontzen aritu dira eta elkarlanean prestatu dute beste urte batez pesta egun borobila izanen dena.

Jolasean hasiko dute eguna, 11:00etan elkartu eta garai bateko jokoak berreskuratuko dituzte. 12:30aldera trikipoteoa egingo dute herriko musikari gazteekin eta Pake Toki eta Larrea elkarteetan pintxoak eskainiko dituzte.

Banabar eta euskal jantzi txapelketa

Aurtengo berrikuntza banabar txapelketa izango da. Parte-hartzaileek eguerdirako etxetik prestatuta eraman behar dituzte banabar kaxolak. Banabar jatea egingo dute gero



Jantzi dotoreenak sarituko dituzte.

Pake Toki Elkartean eta bazkalondoan musean aritzeko tartea ere izango dute. Herri-tarrak baserritarrez janztera animatu nahi dituzte eta pasa den urtean bezalaxe, jantzi dotoreena daramanak saria izango du.

Euskal kantuek goxatuko dute iluntzera arteko tartea. 17:00etatik aurrera Trikidantz taldeko Leire Onsalo eta Jorgitok kontzertu akustikoa eskainiko dute.



E.IRAOLA

Aresoko ekoizleen txokoa azokan

Azken urteetan bezala, Aresoko ekoizleek postuak jarri zituzten azaroaren 17an Leitzan egin zen azoka berezian. Olatxetako Genok, Alpatteneako Jexuxek eta Felipe bordako Trinik sasoiko produktuak eta gutziak plazaratu zituzten; urte osoan egiten duten lanaren zati bat erakutsiz.



E. IRAOLA

TTIPI-TTAPArako modelo lanetan

TTIPI-TTAPA aldizkariko kazetari batek egindako eskaerari erantzunez, modelo lanetan aritu ziren Aresoko hainbat haur. Kikili Salda lantaldeari buruzko erreportajerako hainbat argazki atera zituzten eta guztiak erran.eus-en zintzilikatu dituzte. Eskerrik asko zuen laguntzagatik!



UTZITAKOIA

Kintoz kinto, bukatzen ez den pesta

Udazkenarekin batera ospatu zuten aurreneko kinto bazkaria eta geroztik ia asteburuero izan da mugimendua herrian. Bildu diren azkenak 1955-1958 artean jaiotakoak eta 1970-1975 artekoak izan dira. Duten arrakasta ikusita herrian kintoen eguna antolatzea izango da hurrengo pausoa...

Euskarazko jolas eta kantuen ikastaroa prest abendurako

0-3 urte arteko haurrei eta haien gurasoei eta zaintzaileei zuzendutako saioa abenduaren 12an egingen dute

TTIPI-TTAPA

Jolastuko gara? galdera luzatu diete 0-3 urte arteko haurrei eta haien guraso eta zaintzaileei. Abenduaren 12an, 17:00etatik 19:00etara Itzairer Haur Eskolan eskainiko dute euskarazko jolas eta kantuen ikastaroa. Tailerra doakoa

izanen da eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. Interesa duenak Gizarte Zerbitzuetara deitu beharko du izena emateko abenduaren 10a baino lehenago. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Sareak eta Nafarroako Gobernuak antolatu dute tailerra.

Elektro fanfarrea osatzeko bilera antolatu dute azaroaren 29an

TTIPI-TTAPA

Leitza eta inguruko musikariei luzatu diete Leitzaldeko elektro fanfarrea osatzeko gonbidapena: «edozein musika tresna jo, abestu edo erritmoa eramateko prest egon, 12 eta 99 urte artean izan eta taldean ongi pasaz musikaz gozatzeko

gogoia duen orori luzatu nahi diegu taldeko kide izateko gonbidapena». Proiektuaren berri emateko bilera egingen dute ostiralean 18:00etan Amazabalgo musika gelan. Bilera joan ezin dutenek amazabalg@gmail.com helbidera idatzi dezakete.



DABID ANAUT

Arnasguneen inguruko saioa

Hogeita bost lagun elkartu ziren azaroaren 16an egindako Arnasa Gara ekimenaren aurkezpenaren. Arnasguneen inguruko azalpenak aditu, *Kartzela* web seriea primizian ikusi eta arnasguneen inguruko gogoeta eta eztabaida interesgarria sortu zen bertaratu zirenen artean.



E. IRAOLA

Bertako produktu eta ekoizleen plaza

Amazabal pilotalekuko atariak eta barrenak, garai bateko plazen itxura hartu zuten azaroaren 17an. Leitza eta Aresoko 20 ekoizlek jarri zuten postua etaazienda eta hegaztiak ere izan ziren ikusgai. Leitzako Sagardoaren Adiskideek sagardoa egiteko prozesua erakutsi eta 220 litro kupeleratu zituzten.

'Euskara eta generoa' hitzaldia azaroaren 28an

Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrek *Euskara eta generoa* hitzaldia eskainiko dute azaroko azken ostiralean. Torrean, 18:30 aldera hasiko da saioa. Kazetariak eta antropologoak dira bi hizlariak. 2014tik Jakin aldizkariko zuzendaria da Agirre, eta Eskisabel, Jakin taldeko kidea. Izan al zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? Eta euskaltzale feminista izan gabe? galderari erantzuten saiatuko dira. Hizkuntza eta generoaren uztarketak nortasuna eraikitzeke orduan pisurik ote duten azalduko dute.

Euskararen Eguna ospatzeko banabar jatea eta bertsoak

Asteartera arte esperoan egon gabe, aurreko larunbatean Euskararen Eguna ospatzeko gonbidapena egin du Torrean Elkarteak. Banabar jatea antolatu dute abenduaren 1era, 14:30ean eseriko dira mahaiaren bueltan eta sabela ongi bete ondotik, Sebastian Lizaso eta Alaia Martin bertsolariak gonbidatu dituzte bazkalondoa alaitzeko. Bazkarirako txartelak Torrean jarri dituzte salgai; langileek 23 euro ordaindu beharko dituzte eta langabetuek 18 euro.



Goizuetako Jubilotekako erabiltzaileak. O. SALABERRIA

Jubiloteka zerbitzua martxan jarri dute berriz ere

Astean behin, hiru orduko saioa izaten dute Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan

TTIPI-TTAPA

Gorputza eta burua laguntzeko aukera dute berriz ere Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 65 urtetik gorako herritarrek. Azaroaren 11n jarri zuten martxan eta astean behin, hiru orduko saioa izaten dute herri bakoitzean, 10:00etatik 13:00etara. Leitzan astelehenetan, Goizuetan astearteetan, Areson asteazketan eta Aranon ostegunetan.

Olaia Salaberria goizuetarra ari da monitore lanetan eta luzaketak, koordinazioa, oreka, memoria ariketak, komu-

nikazioa, ipuinak, tertulia... landuko dituzte eta erabiltzaileen arabera programa egokitzen joanen dira.

Erantzun polita

Leitzan oraingoz hamaika laguneko taldea osatu dute, Goizuetan zortzi bat lagun elkartzen dira eta Areso eta Aranon lauzpabost erabiltzaile ditu Jubilotekak. Dena den, ez da talde itxia eta urtean zehar ere aukera izanen da nahi denean hasteko. Ez dago kopuru mugarik, eta ikasturte osoan aritzea ere ez da de-

rri gorrezkoa. Gizarte Zerbitzuetatik «animatu eta zerbitzua probatzeko» esan nahi diete adinekoei.

Izena eman, edo hurbildu

Dena den, taldeak behar bezala antolatzeko komeni da izena ematea. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetara jo, 948 51 08 40ra deitu edo saioen batera hurbilduta ere hasi daiteke. Bertan emanen dute behar den informazioa.

Zerbitzua ordaindu egiten da, eta bakoitzaren pentsioaren arabera egokitzen dute prezioa: bost eta hamar euro artean ordaintzen da normalean, gehienez, hileko, eta doan ere jaso daiteke zerbitzua.

ASTEAN BEHIN BILTZEN DIRA KONPROMISORIK GABE

Emakume taldearen aurreneko bilera egin dute azaroan

TTIPI-TTAPA LURRALDE BERRIAK

Lurralde berriak esploratzeko ataria eskaini nahi diete Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako emakumeei. Horretarako, Emakume Taldea sortu dute. Maiatzera bitarte, hila-betean behin elkartzekoak dira. Zehazki, urtarrilaren 14an, otsailaren 11n, martxoaren 10ean, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an bilduko dira 17:00etatik 19:00etara Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan.

Zaindu zure dirua tailerrak eskainiko dituzte urtarrilera bitarte

TTIPI-TTAPA

Zaindu zure dirua izenburupean, tailerrak eskaintzen ari da Carlos Faro Carballa familia-ekonomia aholkularia. Azaroaren 25ean egitekoa zuten aurreneko saioa eta abenduaren 9an, urtarrilaren 3an eta 20an izanen dira hurrengoak. Bi orduz, gastuak gutxitzeko aholkuak eta dirua ongi kudeatzeko estrategiak azalduko ditu Leitzako Udaletxean.



PASSIVHAUSS ETXEAK LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzaren salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555



Iaz herriaren alde bateko parajeak bisitatu eta izenak paratu zituzten; aurten bertze alderat joanen dira. MAITANE MARITORENA

Abenduaren 6an eta 7an asteburu kulturala Anizen

Ortziralean pizza tailerra izanen dute. Ondotik, tailerrean egindako pizzak janen dituzte

MAITANE MARITORENA

Ekitaldiz jositako asteburua izanen dute abendu hasieran Anizen. Hilaren 6an, pizza tailerra egingen dute. Aitorrek eta Mainerrek haur, gazte eta helduei pizza nola egiten den erakutsiko diete. Ondotik, ikasi dutenen artean egindako pizzak janen dituzte.

Larunbata, abenduaren 7an

11:00etan pastizalgo itzulia egingen dute eta parajeen izenak paratuko dituzte. Iaz herriaren alde bateko parajeak bisitatu eta, zurean zizelkatuta izenak paratu zituzten: Estrakazar, Trinitate, Lurgorri, Lutran, Istilegi eta Amorrú. Aurten herriaren bertze alde-

rat joanen dira, eta pastizalgo itzulian iaz hasitakoari jarraituz, berriz ere, zurean zizelkatutako izenak paratuko dituzte: Munoa, Marmitz, Olazar, Azkarate... Modu horretan, haurrek ere bere izenez izendatuko dituzte belai eta parajeak, Anizko toponimia gal ez dadin.

15:00etan ginkana izanen dute. Joan den urtean, aniztar anitzek parte hartu zuten: etxetz etxe ibili ziren gauzak eskatuz

baina solastatu gabe, antzerkia ere egin behar izan zuten, mimika jokoa, plastilinarekin irudiak... Aurten ez dakigu iazkoaren ildo beretik joko duen ginkanak, Kristinak, Ainhoak eta Mainerrek altxapean atxikiko baitituzte jokoa arauak hondar momentu artio. Dena den, ginkanan parte hartzeko izena aitzinetik eman behar da, jokoak antolatzeko lana errazteko.

Ginkanaren ondotik, mahai jokoak izanen dira elkartean eta, akitzeko, txiste afaria. Txisteak edo irri egiteko kontuak. Horretarako Joxe Ramon joanen zaie afalondoan alegeratzera. Afarira joateko izena eman beharko da (txartelak salgai aterako dira).

GINKANAN PARTE HARTZEKO AITZINETIK IZENA EMAN BEHAR DA

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

San Andres Eguna ospatuko dute larunbatean Zigan

Haurrendako tailerra eta merienda, mus txapelketa, afaria eta musika izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, heldu den larunbatean, azaroaren 30ean, San Andres Eguna aitzakiazat hartuz, besta eguna izanen dute zigatarrek.

Arratsaldean, 16:30ean, haurrendako tailerra izanen dute eskolan. Ondotik, toki berean, txokolate beroa dastatzeko aukera izanen dute. 18:00etan muslarien txanda izanen da. Herriko elkarteetan bilduko dira, txapelketa jokatzeko. Eguna borobiltzeko, 21:00etan, frontoian, afaria izanen dute. Mahaiaren bueltan Frantzis-



Haurrendako tailerra egingen dute.

koren musika-doinuak izanen dira entzungai. Herritarrek zintzurak eta gorputzak berotzeko aukera ederra izanen dute, kantu eta dantza artean ibiliko baitira.

Euskararen Egunari keinu egingen diote Elizondon

Euskaraldia batzordeak antolatuta, abenduaren 3an, asteartean, Euskararen Egunari keinu egiteko hitzordua izanen dute Elizondon. Herriko plazan bilduko dira (euria eginez gero Braulio Iriarte frontoian), 12:00etan, ekitaldi sinbolikoa egiteko.

Abenduan lau egunez artisau azoka Elizondon

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak antolatuta, abenduaren 7an, ortziralean, eta 8an, 21ean eta 28an, hiru larunbatetan, artisau azokak izanen dira Elizondon. Postuz postu ibiltzeko eta erosketak egiteko aukera izanen da 10:00etatik 14:00etara.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAIALEN IANTZI

Lukas panpina Berroetan izan da

Badira hilabete batzuk Lukas panpina Baztanen etxez etxe dabilela lagun berriak egiten. Etxe bakoitzean minbizia duten haurren familiendako laguntza jasotzen du. Azaroaren 8an Berroetan izan zen eta herritarrei panpinaren helburua azaldu zitzaien. Panpina berriz ere herrira bueltatzea espero dugu!



NAHIKARI VEGAS

Bertso afari jendetsua Amaiurren

Onintza Enbeitak eta Aitor Sarriegik girotutako bertso afaria izan zuten azaroaren 9an, bigarren larunbatean, Amaiurko Gaztelu elkartearen. Doinu eta errima artean, herritar talde ederra bildu zen eta bertso gustagarrien bueltan, giro bikaina izan zuten.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Hermosak, Maiak eta Pittik eskainiko dute emanaldia.

Hezurbeltzak taldearen emanaldia abenduan Elizondon

Abenduaren 8an dute hitzordua Arizkunenea kultur etxean, 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Jon Maia idazle, dokumentalgile eta bertsolariak; Gorka Hermosa akordeoilariak; eta Pitti gitarra-jotzaileak osatutako Hezurbeltzak taldeak emanaldia eskainiko du abenduaren 8an, bigarren igandean, Elizondon.

Abenduaren 8an Arizkunenea

Baztango Udaleko kultura baztordeak antolatutako hitzordua Arizkunenea kultur etxean izanen da, arratsaldean, 19:00etan. Emanaldiaz gozatzeko ez da sarrerarik erosi behar.

Bailableak abenduaren 8an Elizondon

Baztango dantzarien eta Elizondoko gaiteroen eskutik, muxikoak, jotak eta larrain-dantzak dantzatzeko aukera izanen dute abenduaren 8an, bigarren igandean, Elizondoko plazan (euria ari badu Braulio Iriarte frontoian), 12:30ean.

Emigrazioa eta bazterketari buruzko letrak

Jon Maiaren letrak eta ahotsak Gorka Hermosaren eta Pittiren konposizioekin uztartuz emanaldi ederra eskainiko dute eta, hiru artisten eskutik, ikusleek musikaz haraindi sortutako unibertso propio batean murgiltzeko aukera izanen dute. Kantu eta testuen bidez, emigrazioa eta gizarteko pertsonaia baztertuei buruzko istorioak kontatuko dituzte, «poetika, kritika, umorea eta edertasuna uztartuz, atrezzo eta giro bakan batean aurkeztutakoak».

Pintura erakusketa zabalik abenduaren 9a arte

Zoe Bray margolariaren pintura erakusketa ikusteko aukera izanen da azaroaren 29tik, aitzinera. Abenduaren 9ra, astelehenera, arte Elizondoko Arizkunenea bisitatu ahal izanen dira bere lanak. Ameriketara bizi diren euskaldunak margotu ditu.



Herritarrek gaiarekiko interesa adierazi dute. UTZITAKOIA

Klima larrialdi eta krisi ekosozialari buruzko mintzaldiek jendetza bildu dute

TTIPI-TTAPA

Landa Begiradak jardunaldien barrenean, klima larrialdiaz eta krisi ekosozialaz mintzatu zen Luis Gonzalez (zientzia kimikoetan doktorea) azaroaren 9an. Ingurumen krisia, krisi ekonomikoa eta soziala aipatu zituen. Kapitalismoaren hazkundea eta lurraren muga

biofisikoak bateraezinak direla argitzearekin batera kapitalismo industrial eta globalaren ondorio den berotegi efektuaz aritu zen. Bide batez, petrolio merke eta eskuragarriaren erazketa izan zuen hizpide; eta azkenik, jendeak bizitza duina antolatzeko duen aukerei egin zien tarte.

'Esentziak' ikusgai Elizondoko kultur etxean

Itxusi argazki elkarteak antolatuta, Ander Olaizolaren *Esentziak* bideo emanaldia izanen dute abenduaren 15ean, hirugarren igandean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan pantailaratu dute bideoa.



KRONIKA

Mendigoizaleek abendurako hitzorduak prest dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleek antolatuta, abenduan astero mendiri-irteerak izanen dituzte. Hilaren 1ean, igandean, inguruko Iraperri mendira joanen dira (Aniz-errota-Zozai-iraperri-Berroeta). Abenduaren 8an, igandean, Unanu

mendia izanen dute helmuga (Lesakan hasi eta bukatuko dute buelta). 15ean, Bardakomendira (Aizpizatit) joanen dira; 22an Legatera (Lekaroztik); eta 29an Auzara (Erratzutik). Hitzordua hauetara joateko Elizondoko plazan bilduko dira, 07:30ean.

Lan Gaua mendi ibilaldia abenduaren 14an

Joxepi Miuraren eskutik, kontrabandoko garaiak ezagutzeko aukera izanen dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak, Udalaren laguntzaz, azaroaren 9rako antolatutako Lan Gaua mendi ibilaldia gibelatzea erabaki zuen. Eguraldia lagun bada behintzat, abenduaren 14an egingen dute. Beartzungatik abiatu eta Balaun, Berderiz eta Urruska baserrian barrena, abiapuntura bueltatuko dira, 10 kilometro pasatxoko ibilbidea osatuz.

Tartean, kontrabandoan ibilia den Urruska Baserriko Joxepi Miuraren testigantzak aditzeko aukera izanen dute.



Joxepi Miura.

Izena eman nahi dutenek 948 59 23 23 telefonora deitu (09:00etatik 13:00etara) edo info@baztan-bidasoa.com helbidera idatzi beharko dute (10 euro).

ZaKill taldearen kontzertua Lekarozen

Lekarozko ZaKill taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 14an herriko Apezenea etxean. Azaroan kaleratutako *Itzala* diskoa aurkeztuko dute. Aurten eskualdean eskainiko duten azken emanaldia izanen da. Abenduaren 20an Lartzabalaren izanen dira.

Eguberrietako kontzertua Azpilkuetan

Baztango Udal Musika Eskola antolatuta, Eguberrietako kontzertua izanen dute abenduaren 14an, bigarren larunbatean, Azpilkuetako elizan. 17:00etan izanen da emanaldia. Ikasleek ikasitakoa plazaratzeko eta entzuleek gozatzeko aukera izanen dute.



AMAIA ITURRIRIA

Euskara eta feminismoa hizpide

Baztango Talde Feministak antolatutako Feminikasten 2.0 jardunaldien barne, azaroaren 15ean *Euskara eta feminismoa: genealogiatik egungo erronketara* hitzaldia izan zuten gaztetxean. Saioa Iraola izan zen hizlari eta 35 lagun inguru bildu ziren.



UTZITAKOIA

Artantxuriketean ikuskizun gustagarria

Aranoko Maria Jesus Zugarramurdik eta haren hiru alabek ikuskizun gustagarria eskaini zuten azaroaren 17an Arizkunenean. Euskararen ahozko tradizioa izan zuen hizpide. Horretarako, udalerrri nafar eta gipuzkoarretan bildutako kontakizun eta kantak izan zituzten ardatz.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías 

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Azaroaren 12az geroztik Altzatenea jatetxea hetsita

80ko hamarkadaz geroztik, zerbitzu bikaina eta arreta hurbilekoa eskainti duen jatetxea hetsi dute

MARIFA ETA KORO

Azaroaren 12an utzi zuen zerbitzua emateaz Altzatenea jatetxeak. Ibilbide polita izan du jatetxe honek: 1983ko ekainean Txarli Alkorta alokatu zuen Altzatenea etxea, eta betiko sukaldea, sala, heia, egurtegia eta zerritegia zena, estilo bereziko jatetxe goxo bat bihurtu zuen, orduan gure inguruan apenas ikusten ez zen elementu berezi bat eman: sagardotegietako estiloko erretegi bat kanpoko aldean.

Jarri zuen menua berezia zen, usaian eskaintzen ez ziren arraiak, brasan eginako haragiak eta denbora haietan prestatzen ez ziren entsalada diferentek.

2014an Txarli jubilatatu zen, eta bere erreleboa Amaia Etxeberriak hartu zuen, ederki gainera, zerbitzu bikaina ema-



Altzatenea jatetxea.

nez eta jendeari arreta hurbila eskainiz. Behin hetsita, barnean zituen altzari, tresneria, eta bertzeak salgai jarri ziren, azaroaren 23an, larunbatean, Ate Ireki Eguna eginez, eta interesa zutenek ikusi eta erosteko aukera izan zuten. Altzatenea erreferentziako jatetxea izan da, haren falta sumatuko da seguru, eta orain gelditzen dena, Txarli eta Amaiari eskerrak ematea da.



MARIFA ETA KORO

90 lagun Frantxiskoren oroimenean

90 lagun pasa elkartu ziren azaroaren 17an Frantxisko Arburuaren errautsak hedatzeko. Eguraldi busti eta tristearekin abiatu ziren eta goiz osoan Airagarri eta Atxuriako kaskoak kurritu zituzten. Hunkigarria izan zen ia-ia 100 lagun Frantxiskoren inguruan bilduta ikustea.



Antzerki taldeko batzuk Logroñoeko Oroimenaren Oihanean. UTZITAKOIA

Sorgin Haizea antzerki taldea Logroñon izan da

TTIPI-TTAPA

Azaroko lehendabiziko asteburuan Logroñon aritu da Sorgin Haizea antzerki taldea. Badira urte batzuk 1610ean inkisizioak egin zuen epaiketaren inguruan, hainbat ekitaldi antolatzen direla, sorginkariaren inguruko kontu ilunak argitu nahian. Hala, gertatua-

koaren antzezlan bat eskaintzen da eta horren zati bat herriko taldeak hartzen du bere gain. Ebro ibaiaren bazterrean dagoen Oroimenaren Oihanean, erre zituzten 11 lagunaren izenekin monolito bat emana dago, eta ondoan lore eskaintza eta omenaldi ttiki bat ere egin zuten.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net

☎ 943 616 587

Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Dantxarinako Merkatarien Elkarteko Txomin Iribarren, pintxo lehiaketa irabazi duen David Bidaurrekin. Ondoan, pintxo irabazlea. UTZITAKO ARGAZKIAK



Paco Bentak irabazi du Dantxarinako VI. pintxo lehiaketa

David Bidaurre sukaldariaren 'Kardaiff ganba talo gainean, ron saltsarekin' pintxoak izan da irabazlea

TTIPI-TTAPA

Urriaren 16tik 31ra egin den Dantxarinako pintxoaren seigarren hamabostaldiko txapelketa jokatu zen azaroaren 10ean. Irabazlea Paco Benta-ko David Bidaurre sukaldaria

izan da, *Kardaiff ganba talo gainean, ron saltsarekin* pintxoarekin.

Igande goiz osoan, epaimahaikideek bisitatu eta dastatu zituzten pintxo lehiaketan parte hartu zuten benta eta



Mutriko egonaldiko irabazlea.

pintxo guztiak. Catherine Marchand, La Semaine du Pays Basque aldizkari-ko kazetaria; Blogger Christophe; abudo Hendaian jatetxea irekiko duen Chef Oumar; Martin Iturri, Iruñeko La Taberna

Cocotte jatetxekoa; Iñaki Ariztia, Urdazubiko alkatea; Santiago Villares alkate ohia eta Dantxarinako Merkatarien Elkarteko Txomin Iribarrenek osatu zuten epaimahaia.

Hamabortz egun horietan pintxoak dastatu dituzten artean Mutriko Hartzalde landa-turismo etxean asteburuko egonaldia zozketatu dute eta Bidarteko Nicole Fucik suertatu da irabazlea. Facebooken bidez pintxo irabazlea bozkatu dutenen artean ere zozketa bat egin da eta Paco Benta otordua izanen du saritzat Urdazubiko Elena Martin Torreblancak.

Antenak hondatu zituen zimizta eta gero telekomunikazioak eten dira ia bi astez

IÑIGO IMAZ

Telefono mugikorraren bidez komunikatzeko arazoak izan dituzte hainbat herritarrek. Eguraldi txarraren, euriaren, haizearen eta zimizten ondorioz herritar aunitz inkomunikatuta egon dira.

Azaroaren 5ean hasi ziren arazoak. Lehen momentuan, argindarra joan zen, antenak elikatzen zituzten instalakuntzak hautsi zirelako. Noi enpresak konponketak egin zituen biharamunean eta ante-

nak funtzionamenduan jarri zituzten. Nasertic enpresak bere aldetik TDT-a konpondu zuen eta ETBren antena ere martxan jarri zuten. Linea finkoa kable bidez zuten telefonoak eta linea horietara konektatutako ADSL bidezko internet ere martxan zeuden.

Baina arazo guztiak ez zeuden konpondu. Antena bidezko zenbaki finkoek, segapotoek eta horiei loturiko wifiak ez zuten funtzionatzen. Herriko Etxeko langileak eta

hainbat herritar Movistar operadoreari deika aritu ziren zerbitzua berrezarri zezan. Hasiera batean, operadoreak matxura orokorra zela erantzun zuen, baina behin antena konpondu, Movistarreko abonatuak arazoekin segitu zuten. Igandean, hilak 17, Zaragozatik jaso zuten Movistar konpainiaren dei bat eta arazoa erradioenlazearen matxura baten ondorio zela azaldu zuten.

Bertze batzuk egoki

Bertze operadore batzuk, aldiz, egoki funtzionatu dute. Hainbat herritarrek beren haserrea

erakutsi dute. Larrialdietako medikuek 112tik Nafarroako Gobernuaren telefonoetara igorritako deiak ere ez zituzten jasotzen ahal. Farmaziek bezeroei zerbitzua emateko ere arazoak izan dituzte. Kaltetuak aunitz izan dira eta erreklamazioak ere hala izanen direla dirudi.

Kuriosoena da, herriko auzo batzuetan Frantziako operadoreek ongi funtzionatzen zutela (Alkerdi kasu), eta bertze batzuetan Movistar operadoreak ere ongi funtzionatzen zuela, adibidez, Tellerian eta Dantxarinako Benta Agus-Repsol aldean.

Zurezko jostailuen festibala antolatu dute lehen aldikoz

Hazilaren 16an eta 17an iragan da, Larreko gelan, Arbaso elkarteak antolatuta

PIERRE BASTRES

Arbaso elkarteak Durangokoa da jitez, eta Eskual Herriko artisautza tradizionalaren sustatzeko helburua dauka. Badira hamabortz urte elkarteko kidea dela Brigitte Ryckenbusch senpertia, eta 2014an bertze kide zonbaitekin elkarteko abar bat ireki zuten hemen gaindi.

Urte guziz udako merkatua eta holatsuko ekitaldi batzuk antolatzeaz gainera, aurtien zerbait berezi nahi zuten sortu. Brigitten zurezko eta egurrezko gauzakiak sortzen ditu, eta gai horien zale suharra da. Harek erraiten duen bezala, «Eguberri aitzina, garai ona da jendeeri oroitarazteko zurezko jostailuez gozaten ahal dugula, edozein adinetan gainera. Gogoetak eginda, bi eguneko festibala muntatzea erabaki dugu, Larreko gelan. Kartel lehia bat ere antolatu genuen, mugimendua eta erakargarritasuna sortzeko. Senpereko gazte batek irabazi du».

Beraz, bi erakusmahai ezarri dituzte, bat Arbaso elkartearena eta bertzea Errente-

riako Kromosoma enpresarekin. «Giroa berotzeko –dio Ryckenbusch-ek– 50 jostailu zahar alokatu ditugu, mota ainitzetakoak, denetarik bazen! Ibiltariekin jostatu ahal izan dute, gazteek eta zaharragoek. Arras pozik gara, 450 sartzeko txartel saldu ditugu, 4 urtez beheitiko haurrak kontatu gabe. Dena prezio merkean proposatu dugu: sartzea bi eurotan, edariak eta bertze. Zaldubi ikastolako gurasoek jatekoaren egitea haien gain hartu dute».

Bertzalde, Mari Kruz eta Alberto, Kromosoma enpresakoak, holako ekitaldietan parte hartzerat usatuak dira. Marie-Kuzen erranetan, «zurezko jostailuekin, haur batek jostatzeaz gain, ikasten ahal du nola den egina, eta berak eraikitzen ahal du. Joko mekanismodunak sortzen ditugu, eta maiz eskoletarat joaki gara erakusterat, joko bat erostea izan behar litzateke zerbaiten kontsumitzea baino gehiago».

Brigitten erranetan, ibili den jendea ikusiz, festibal hau urte guziz antolatuko dute oraindik goiti.



Zurezko jostailuekin jolasean ibili dira haur eta helduak. PIERRE BASTRES

Piarres Larzabalen 'Herriko bozkak' antzezlanaren abenduaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Piarres Larzabalen *Herriko bozkak* antzezlanaren ikusgai izanen da abenduaren 1ean, igande arratsaldeko bostz ornetan Larreko gelan. Sartzea bostz euro gostako da.

Herri bozkak iraganen dira herri ttipi batean: boz-emaile

ihizia irekia da. Herria irakitan dago. Herriko bozek gorriak eta zuriak kontrajartzen dituzte, borroka irragarri batean. Antzezlan hori duela 60 bat urte idatzi zuen Piarres Larzabalek, eta Maika Etxekoparren zuzendaritzak haren modernotasuna atxiki du.

Haizea dator... ekimenak bere bidean darrai Larraldean geldialdia egin ondotik

TTIPI-TTAPA

Haizea dator ekimenak saioekin aitzina segitzen du. Bertsolari gazteei plazak eskaintzeko sortutako ekimenak bere arrakasta bildu zuen berriro ere Larraldean azaroaren 8an egindako saioan. Bertsolarien Lagunak elkarteak Larraldean

du egoitza, eta bertan burutu zen saioa. Senpereko bertso eskola izan zen saioaren antolatzaile eta gidari.

Kantuan aritu ziren Elixabet Etxandi, Oneka Arteaga, Naia Etxeberri-Larzabal, Asier Arbelaitz, Laida Etxeberri-Pacheco eta Maddi Sarasua.



Senpereko bertso eskolak gai-emaile lanak egin zituen. UTZITAKOIA

Telethon elkartearen alde abenduaren 7an bilduko dira

Goizean pastizak salduko dituzte, bazkalondoan Larunera trenez goititzeko aukera izanen da eta ondotik krakada

TTIPI-TTAPA

Urteroko elkartasun hitzorduari hutsik egin gabe, abenduaren 7an distrofia muskularra dutenak eta haien senideak biltzen dituen AFM Telethon elkartearen aldeko eguna egingen dute herrian.

10:30ean plazan pastizak saldu ondotik, 14:00etan San Inazio lepoan biltzeko deia egin dute antolatzaileek. Ordu horretan, hamabortz euro ordainduta, Larunera trenez igotzeko aukera izanen da. Itzulera, berriz, 15:30ean egingen dute. Behin herrira jau-

tsita, 16:30ean, Pikassaria jatetxeak krakada eskainiko du nahi duten guztientzat. Bildutako diru guztia Telethon elkarteari bideratuko diote.

Elkartasun ekimen honekin bat eginez, joan den urtean 150 lagun joan ziren Larunera trenez eta 50 lagunek parte hartu zuten Pikassarian egindako krakadan. Horrez gain, Lur Berri gelan egindako bazkarian 22 lagun elkartu ziren eta pastizen salmentatik, 400 euro atera zituzten. Guztira 3.500 euro bildu zituzten AFM Telethon elkarteari emateko.

Sarako San Inazio auzoan argia moztuko dute

Hainbat lan egin beharrak dituztelako, heldu den abenduaren 5ean, ortzeguna, argia moztuko dute San Inazio lepoan. Herriko Etxetik jakinarazi dutenez, 14:00etatik 15:45erako tartean ez dute argindarrik izanen San Inazio auzotarrek.

Sarako St Joseph eskolaren merkatua larunbatean

Saint Joseph eskolako gurasoek egindako eskulanak ikusi eta erosteko aukera izanen da larunbat honetan, azaroak 30, antolatu duten Eguberrietako merkatuan. 09:00etatik aitzinera Lur Berri gelan iraganen da eta haurrentako tailerrak ere egingen dituzte.

Xisterak egiteko norbaiten bila dabilta

Orain bortz urte hasi zen pilotak egiten Ellande Alfaro eta erantzun ona izan dute bere pilotek. Arribatzen ez zela ikusita Martine Urzuegi eta Thierie Lopes hasi ziren. Hala ere, xisterak egiteko norbaiten bila dabilta.



Ez Otoi Pentsa-ko kideak txapela soinean, tartean Txoperena anai-arrebak.

Ez Otoi Pentsak irabazi du Taldekako Xilaba txapelketa

Txoperena eta Artetxe anai-arrebek osatutako taldea gailendu da finalean

TTIPI-TTAPA

Irailaren 20an hasi zen Taldekako Xilaba txapelketa azaroaren 16an borobildu zuten Izturitzeko (Nafarroa Beherea) herriko gelan. Aretoa bete zela, 300 lagunengain aitzinean, **Maddi Ane Txoperena** (Lesaka-Hendaia), **Josu Txoperena** (Lesaka-Hendaia), Miren Artetxe eta Gorka Artetxek osatutako Ez Otoi Pentsa taldea gailendu zitzaion Elixabet Etxandik, Lur Renteriak, Maddi Sarasuak, Hodei Renteriak eta Leire Laskaraik osatutako Hasta la 2toria taldeari.

Baina lehiaren ginetik, bertsolarien zein bertsozaleek azpimarratu zuten lagun arteko giro goxo zein beroa izan zela benetako irabazlea. Hain zuzen, oholtza gaineko bertsolarien arteko hurbiltasuna eta laguntasuna ere bistakoa izan zen eta bildutako 300 entzuleek behin eta berriz irri eta txaloz eskertu zieten egindako lana.

34 bertsolari oholtza gainean

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 34 bertsolari aritu eta hasi berrik parte hartu dute

aurten bigarren aldiz egin den Taldekako Xilaba txapelketan. Guztira bederatzita taldeetan ibili dira lehian; lehenbiziko fasean bederatzita saio egin zituzten –tartean bat Saran–, horietatik lau taldek lortu zuten bi finalerdietara pasatzeko txartela eta horien artean, bik, Ez Otoi Pentsak eta Hasta la 2toria taldeek, final handia jokatu zuten.

Bertsularien Lagunak Elkarrea kontent gelditu da emaitzarekin eta entzuleen aldetik izandako erantzuna ere azpimarratu nahi izan du, finalaren aitzinetik egin diren saioetan, banaz bertze 80 bat lagun bildu baitira.

Heldu den urtean banakakoa

Aurtengo taldekako txapelketaren ondotik, heldu den urtean, banakako Xilaba txapelketa antolatu beharko du Bertsularien Lagunak Elkarrea. Orduko emaitzen arabera aukeratuko dituzte 2021an egitekoa den Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusian zein izanen diren Ipar Euskal Herria ordezkatzeko duten bertsolariak.



Jose Jabier Etxeberria III.ak azaroaren 9an jokatu zuen profesioaletako azken partida. MAIALEN ANDRES

«Kotetoren kontra jokatzek ematen zuen norbere mailaren neurria»

JOXE JABIER ETXEBERRIA, ETXEBERRIA III.A DONEZTEBEKO ERREMONTISTA OHIA

Debutatu eta ia 22 urtera, 46 urterekin, profesioaletako azken partida jokatu du Etxeberria III.ak. Txibi Utergarekin batera 40-34 irabazi zieten eta Zeberio II.a eta Ioni

AITOR AROTZENA DONEZTEBE
1997ko azaroaren 29an Jose Javier Etxeberria Lakanbrak, Etxeberria III.a doneztebarrak, debuta egin zuen Euskal Jai pilotalekuan. Iribarren herri-tarrarekin batera, Bereziartua eta Aizpuruaren kontra aritu zen eta ia 22 urte beranduago adio erran dio erremonteari. Ekainean 46 urte egin zituen eta agurraren tenorea ailegatu zaiola ikusi du. Duela urtebete Koteto Ezkurrak utzi zuen erremontea eta urtebe beranduago hartu du erabakia Etxeberriak, biak 1973ko kintoak. **Gogoan duzu zure debutaren eguna?** Gaur balitz bezalaxe. San Saturnino eguna zen eta partida

ez ezik, inguruko guztia gogoan dut. Belateko tunelak ireki berriak zituzten. 34-29 irabazten joan ondotik, partida irauli ziguten eta 35-34 galdu genuen. Urduritasunaren kontuak, baina kolpea hartu nuen. **Beraz, ez zenuen ongi hasi ibilbidea, baina nola akitu duzu?** Ongi akitu dut. Hainbertze urtez aritu ondotik, fisikoki justu samar nago, gehiago zaindu behar duzu zeure burua eta kosta egiten da. Momentu batean aski dela erabakitzen duzu, gozatu baino gehiago sufritu egiten duzulako, beldurrez aritzen zarelako. Baldintza horietan segitzeak ez du balio. Penaz, baina tenorez uzten ere ikasi behar duzu.

Erremontearen gainbehera hurbiletik ezagutu duzu... Aldaketa gogorra izan da. Euskalen hasi nintzen eta denbora guttira jausten hasi zen, itxi baino lehen urte batzuk iraun zuen. Debutatu nuenean jende aunitz joaten zen. Urtehaiek ezagutu genituenok oroimenez gogoratzen dugu. Bortz-sei urte daramazkiten gazteek ez zuten hura ezagutu eta pena da. Krisiarekin batera hasi zen

«POZIK HANDIENA BI TXAPELEK EMAN DIDATE, BATEZ ERE AZKENAK»

gainbehera gogorra, 2007-2008 urtean. Bapatekoa izan zen, urte batez ikusle-kopurua eta apostuak aunitz jautsi ziren.

Erremontean jokatzeko moduan ere izan dira aldaketak?

Aldaketarik handiena materialean dago eta horrek joko baldintzatzen du. Hainbertze lagunekin jokatu dut, zail egiten zaidala konparatzea. Orain piloto gehiago dago, lehen pilota biziagoa izaten zen eta joko azkarragoa. Kotetok, adibidez, berehala akitzen zuen tantoa. Sineztezina zen. Zenbat eta partida estuagoa izan, orduan eta erabakigarriagoa izaten zen. Partida beroa zenean ateratzen zuen bere klasea.

Kotetoren lagun eta arerio izatea suertatu zaizu hainbat aldiz...

Jokatzen hasten ziren gazteen barometroa zen Koteto. Bere kontra jokatzek ematen zuen norberaren mailaren eta progresioaren neurria. Hasiberriek berarekin bikote eginez jokatzen genituen lehen edo laugarren partidak, hainbertzeko abantaila ematen zuen... Partida horietan bolada ona baldin bazenuen, Ezkurrarekin estelarrean jokatzeko aukera izaten zenuen. Horrek bi alderdi zituen: alde bateti, sari bat zen; baina, bestalde, berekin ari bazinen, seinale ez zinela hobetzen ari. Berak irabazten baitzuen. Aldiz, bere kontra ari bazinen, koxka bat edo bi goiti egin zenuela erran nahi zuen. Horregatik, hasiberriek bere kontra aritu nahi zuten, zaila zen Kotetoren kontra aritzea, anitzez erosoago zen bere bikotea izatea. **Zein izan dira erremontek utzi dizkizun oroitzapen onenak eta txarrenak?**

Gehien-gehienak onak dira. Eta pozik handiena bi txapelek eman didate, batez ere bigarrenak. Urrizarekin irabazi nuen lehenbizikoak ere ilusio berezia egin zidan, baina bigarrena, 2017koa, nire hondarreko aukera zen, eta Utergarekin irabazi nuen.



Finalean aritu zen boskotea, Vicente txapela jantzita eta Jon Telletxea eta Xanti Uterga sari-emaileekin. Eskuinean, Iker Vicente lanean. IBON ERRAZU URIA



Nafarroan bosgarren txapela erraz jantzi du Iker Vicentek

Azaroaren 15ean Donezteben jokaturako finalean nagusi izan zen, Lopez, Rekondo, Saralegi eta Etxeberriaren aitzinetik

TTIPI-TTAPA

Pronostikoak bete eta, 23 urte bertzerik ez dituela, nagusitasunez irabazi du Nafarroako bosgarren txapela Iker Vicentek otsagabiarrak. Azaroaren

15ean Doneztebeko ferien barnean egin zen finalean, hasieratik bukaerara aitzinetik izan zen eta 32 minutu eta 16 segundo behar izan zituen lau kana-erdiko, lau 60 ontza-

ko eta bi oinbiko mozteko. Minutu eta 41 segundoko alde atera zion bigarren izan zen Lezaungo Juan Jose Lopezi (33.57) eta bi minutu baino gehiagokoa podioa osatu zuen Jon Rekondo leitzarrari (34.18). Finaleko azken postua saihes- teko izan zen borrokarik handiena eta azkenean, laugarren postua Ruben Saralegi leitzarrak lortu zuen (38.55). Bederatzi segundoko alde atera zion Zigako Joxean Etxeberriari (39.04).

Aizkolarien txapelketaz gain, Ezkurra pilotalekuan gainezka bete zuten zaleek Mikel

NAFARROAKO TXAPEL.

LEHEN MAILAKO AIZKORA

1. Iker VICENTE (Otsagi)	32.16
2. Juan Jose LOPEZ (Lezaun)	33.57
3. Jon REKONDO (Leitza)	34.18
4. Ruben SARALEGI (Leitza)	38.55
5. Joxean ETXEBERRIA (Ziga)	39.04

Lopetegi Urra harrijasotzaileraren erakustaldia ikusteko aukera ere izan zuten. Sari banaketan, Xanti Uterga Doneztebeko alkatea eta Jon Telletxea, Malerrekako Mankomunitateko ordezkaria, Beintza-Labaiengo alkatea eta aizkolaria izan ziren.



JUAN MARI ONDIKOL

Onenen artean onenak Antxitonean

Azaroaren 15ean eta 16an Elizondoko Antxitonea trinketean I. Onenak Torneoa jokatu zuten. Amestoy eta Bergerot izan ziren txapeldun, Huarte eta Baylonen aurkako finala 40-35 irabazita. Sariak banatu ondotik, Katy Baylon omendu zuten, ia lau hamarkada daramatzalako Antxitonean jokatzeko.



AITOR AROTZENA

Nafarroako txapelketa mistoa Beti Gaztek

Nafarroako zortzinakako sokatira txapelketa mistoa irabazi zuen Beti Gaztek azaroaren 9an Lesakan jokaturako saioan tiraldi guztiak irabazi ondotik. Emakumeen 480 kiloko txapelketan, aldiz, bigarren izan zen Beti Gazte, Txantrearen ondotik. Orain, Euskal Herriko launakakoan ari dira.

AZAROAK 28 - ABENDUAK 12

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIA

BERA

'Kontrako ezarririk' mahai ingurua

Uxue Alberdi eta Onintza Enbeitaren eskutik.
Beralandetan, abenduaren 15ean, 17:00etan.

IGANTZI

'Bortziriak solasean'

Eskolzarren, abenduaren 6an, 18:30ean.

BERA

'Causas y efectos del Alzheimer'

Beralandetan, abenduaren 18an, 17:00etan.

DANTZAK

ELIZONDO

Baileableak

Plazan, abenduaren 8an, 12:30ean.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

'Esentziak' bideo-emanaldia

Arizkunenean, abenduaren 15ean, 19:00etan.

IGANTZI

'Aralar, mundua leku den lurra' dokumentala

Eskolzarren, abenduaren 5ean.

Maksim magoa

Gimnasioan, abenduaren 6an, 16:30ean.

'Ama-Alu-Lur' emanaldia

Baratzondon, abenduaren 7an, 21:00etan.

Herriko dantza taldea

Herrian barna, abenduaren 8an, eguerdian.



ENERITZ IRAOLA

ARESO-ELIZONDO Euskararen Eguna

Areson egun osoko egitaraua, Elizondon ekitaldia 12:00etan plazan.
Abenduaren 3an.

ARANTZA

Eskolako haurren antzerkiak

Abenduaren 18an eta 19an.

TAILERRAK

DONEZTEBE

Tabakoa uzteko tailerra

Osasun etxean, astelehenetan, 17:30etik 19:00etara.

MALERREKA-BERTIZARANA

'Konta eta kanta'

Azaroaren 29an Saldiasen eta 30ean Legasan, 18:00etan.

LEITZA

Haur-eramaile tailerra

Udaletxean, azaroaren 28an, 17:30ean.

'Zaindu zure dirua'

Abenduaren 9an, 13an eta 20an, 17:00etatik 19:00etara.

IGANTZI

Haurrentzako jokoak

Frontoian, abenduaren 7an, 17:00etatik aitzinera.

ZUBIETA

Sorospen tailerra

Eskolan, abenduaren 17an, 16:00etan.

IKASTAROAK

LEITZA

Euskarazko jolas eta kantuen ikastaroa

Itzairer haur eskolan, abenduaren 12an, 17:00etatik 19:00etara. Izen-emate epea: abenduaren 10a.

KONTZERTUAK

ZUBIETA

Piz&Lohi jaialdia

Joseba Irazoki, ZaKill, Kaskezur, Ozpinduk, Azken trena eta Sodade.
Estalpean, azaroaren 30ean.

IGANTZI

Dama beltzak

Baratzondon, abenduaren 6an, 22:00etan.

ELIZONDO

Hezurbeltzak taldea

Arizkunenean, abenduaren 8an, 19:00etan.

LEKAROZ

ZaKill taldea

Apezenean, abenduaren 14an.

AZPILKUETA

Eguberrietako kontzertua

Elizan, abenduaren 14an, 17:00etan.

LESAKA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 18an.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Zoe Brayren pintura erakusketa

Arizkunenean, abenduaren 9a arte.

BERA

Aitziber Orkolagaren 'Plaketak' argazki-erakusketa

Labiaga ikastolan, abenduaren 29a arte, astebururo, 16:00etatik 20:00etara.

KIROLAK

BEARTZUN

Lan Gaua

Abenduaren 14an.

ELIZONDO

Iraperrira

Plazatik abiatuta, abenduaren 1ean, 07:30ean.

Unanura

Plazatik abiatuta, abenduaren 8an, 07:30ean.

Bardakomendira

Plazatik abiatuta, abenduaren 15ean, 07:30ean.



OSKAR TXOPERENA

IGANTZI-ANIZ Kultur Egunak

Herritar guztiendako ekitaldiak.
 Igantzin abenduaren 5etik 8ra eta Anizen 6an eta 7an.

Legatera

Plazatik abiatuta, abenduaren 22an, 07:30ean.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE
Bertso-afaria

Sarai Robles, Saioa Alkaiza eta Julio Soto.
 Azaroaren 30ean.

ZIGA
San Andres Eguna

Azaroaren 30ean.

ELIZONDO
Euskararen Eguna

Plazan, abenduaren 3an, 12:00etan.

ARESO
Euskararen Eguna

Abenduaren 3an, egun osoz (egitaraua 59. orrialdean).

ANIZ
Asteburu kulturala

Abenduaren 6an eta 7an.

SARA
Telethon elkartearen aldeko elkartasun eguna

Abenduaren 7an, egun osoz (xehetasunak 69. orrialdean).

FERIAK

GOIZUETA
Azienda, artisauek eta nekazaritzaren feria

Azaroaren 30ean, 10:00etan hasita.

SARA
St Joseph eskolako azoka

Lur Berri Gelan, azaroaren 30ean, 09:00etan hasita.

ELIZONDO
Artisauek azoka

Abenduaren 7an, 8an, 21ean eta 28an, 10:00etatik 14:00etara.

BERA
Bertako ekoizleen merkatua

Rikardo Barojako eskolako arkupeetan, abenduaren 14an, 10:00etatik 13:30era.

Nire aukera

«Behobia-Donostia lasterketan nire marka hobetzeak poza eman dit»

JOSEBA ELIZAGOIEN

Geldi egonetik gauza onik ez dio erranak eta ongi barneratua du hori Joseba Elizagoien narbartearrak. «Lanaz gain, etxeko ardurak, familia eta entrenamenduak» izaten ditu. Hamaika egitekoren artean, zaletasunari tarte egiteko modua bilatzen du: «kirol guztiak ditut gustuko, bereziki lasterka ibiltzea». Hautzarotik datorkio hori. Hala ere, «2011ko Behobia-Donostia lasterketarako prestaketak ezker» ez da gelditu: «mendi-lasterketetan hasi nintzen, Goierriko Bi Handiak, Euskal Herriko Mendi Erronka, mendi maratoi erdiak... orain, berriz, asfaltoan nabil». Berriki, Behobia-Donostia lasterketan parte hartu du, «zazpigarren aldia




izan da». Aitzinekoetan baino guttiago prestatu da «orkatilan lesio bat» izan duelako: «gogor hilabete inguru ibili naiz». Hori gutti balitz, eguraldia ez zuten lagun izan: «lehendabiziko bertz kilometroetan euri erauntsiak gogor harrapatu gintuen». Lesioa zaindu eta euritik ihes eginetz, emaitza ederra lortu zuen Elizagoienek: «nire marka hobetzeak

eta eskualdeko lehena izateak ilusioa egin zidan». Ez da punta-puntan ibili den lehendabiziko aldia, ezta aurtengo garaipen bakarra ere, Irurritako II. Mendi Duatloian ere podioan ikusi baikenuen: «eskualdeko lasterketak bereziak dira eta hori irabaztea sorpresa polita izan zen». Hori guztia, ordea, ez da bere kasa ailegatzeko. Kontatu digunez, astean «hiruzpalautan» laster egiteko tartea hartzen du: «lasaitzeko baliagarri zait eta jende on aunitz ezagutzeko aukera izan dut». Normalean, «Bertz inguruan» ibiltzen da Elizagoien: «gustuko dut horra joatea». Dena den, inguruan baliabide gehiago eskertuko lituzke: «eskualdean atletismo pista on baten falta sumatzen dut». Agerikoa da bere zaletasuna eta, gogoia izanez gero, dena lor litekeela erakusten du bere jarrerak. Alde batzuk utzi, bertzeak irabazi. Halaxe aritu da orain artean: «kirolari eta parrandazale izan naiz. Orain, bertze martxa batzuk hartuta besta alde batera utzia dut baina noizean behin lagunekin elkartu eta egiten dut... San Andres Egunean, erraterako, normalean bazkarira joaten naiz». Ohitura onak hartzea eta bitzita bitzitea zilegi den seinale...

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Negua epela den tokian, bat edo bi lagunentzako apartamentua errentan emateko. Hondartzako lehenbiziko lerroan, terrazarekin eta bista zoragarriekin. Klimatizatua eta ongi hornitua. Urtarrilean, otsailean eta martxoan errentan emateko. 1.600 euro guztira. ☎658 94 37 10.

LESAKA. Apartamentua errentan emateko edo salgai. Logela bat, komuna, trasteleku tiki bat eta sukalde-egongela ditu. Berogailuarekin. Hagitz eroso. ☎628 04 20 47.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea, denak argi naturalarekin. Garajea ere bertan. ☎646 28 03 96.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Lekaroztarrak pisua edo apartamentua errentan hartu nahi du. ☎659 30 83 84.

DONEZTEBE. Pertsona bat pisu bila. Epe luzerako. ☎600 64 34 60.

ELIZONDO. Elizondon pisu bat errentan hartu nahi du lanean ari den batek. ☎642 92 58 16.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Zurgindegia salgai, dena muntatua, makinariarekin. ☎648 26 56 63.

ERRENTAN EMATEKO



BERA. Illekuetan garajea-lokala errentan emateko. ☎646 28 03 96.

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKA. Furgoneta gordetzeko garaje bila. ☎647 74 15 44.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINITZAK

DONEZTEBE. Titi ostatuan sukaldean egun osoz aritzeko langilea behar da, esperientziarekin. ☎948 45 02 71.

HERNANI. Mk estudioa ileapaindegiko partaide izan nahi duzu? Moda gustuko baduzu eta lanerako gogoz bazaude, deitu! ☎ 943 55 20 81.

ESKARIAK

Adinduak zaintzen esperientziadun emakumezkoa lan bila. Garbitasunean, zaintzan, ostalaritzan... lan egiteko prest. ☎631 20 24 80.

BERA edo LESAKA inguruan emakumezkoa bat lan bila. Etxeko lanetan, garbiketan edo adinekoak zaintzen aritzeko prest. ☎678 90 32 94 / 948 63 09 14.

Garbitasunean urte aunitzez aritutakoa lan bila; edozein lanetara egokitzeko prest. ☎641 48 06 81.

Eraikuntzan eta adinduak zaintzen esperientzia duena, edozein arlotan lan egiteko prest. ☎632 72 51 39.

Sukaldari bezala eta adineko pertsonak zaintzen esperientzia duena edozein arlotan lan egiteko prest. Ordu-tegi malgua. ☎643 62 79 70.

Lanean esperientzia duen mutil gaztea lan bila, edozein lanetan aritzeko prest; zerbitzari moduan, adinduak zaintzen, eraikuntzan... ☎641 66 11 84.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 1470,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,30/8,90
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 60 €

Zerri gizona 1,425 €

Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (azararen 8tik 15era bitarteko prezioak)

Neska arduratsua eta erreferentzia onak dituen lan bila, interna moduan adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan aritzeko prest. Lanbidez erizaina, esperientzia ona duena. ☎674 44 82 73.

Erizaina lan bila. Adinduak zaintzeko prest, orduka. ☎642 92 58 16

MOTORRAK

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

CLIO BERRIA HEMEN DUGU!

CLIO V ZEN TCE 100 CV - 14.100 euro
Extra guztiekin - Sus. finan. lotu.

Salgai ditugun kobxe guztiak gure webgunean ditugu ikusgai: www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

DENETARIK


SALGAI



BH abdominalen taula, barra eta pesak eta mankuernak salgai. Hainbat posizio aukeran, bicepsak, abdominalak, koadrizepsak, sorbaldak, femorala... lantzeko. la erabili ga-beak. ☎600 67 04 95.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK



ELIZONDO. Azaroaren 9ko gauean katu bat aurkitu zuten Elizondoko plazan. Txuria eta beltza, ile luzea eta gazte-gaztea da. ☎628 49 91 54.



Beintza-Labaiengo **Adur Etxeberria Mielgok** 8 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak, **Adur!** Muxu handia familiaren partetik. Askoi maite zaitugu.




Alaitz Ibarra Bereau etxeko dantzariak 9 urte bete ditu!!! Zorionak printzesa atta, ama eta Beñaten partetik.



Igantzioko **Izaro Urtegegik** 6 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez printzesa, muxu bat familia eta bereziki Unax eta Enarren partetik!



Berako **Nahia Endarak** 10 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.




Intza Iribarren Elizalde 5 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak gure printzesa preioxari. Muxu aunitz familia guztiaren partetik.



Luis eta Alaitz atxa-alabek urteak bete dituzte azaroaren 17an eta 25ean. Aunitz urtez familiaren partetik eta bizkotxo goxia prestatu!!!



Berako **Aimar Almandoz Tapiak** 6 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxuak.



Manzanoseko **Nahia Martin Portuk** 9 urte beteko ditu azaroaren 29an. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Lesaka eta Leitzako lehengusu eta lehen-gusinen partetik.



Aunitz urtez **Intza!** Zazpi muxu potolo abenduaren 5ean urteak beteko dituzulako. Zuk berendu goxoa prestatu eta elkarrekin ospatuko dugu!



Oinatz eta Aiala Seinek 6 eta 2 urte beteko dituzte abenduaren 3 eta 10ean. Etxeko tikiak haunditzen ari zaizkigu! Zorionak eta muxu potollo bana familia guztiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaituz TTIPI-TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.



ZURE IZENA

OSTATU-JATETXEA

MENUAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK, MUSUZAPIAK, BASO-AZPIKOAK...
Zure diseinuarekin pertsonalizatuak



HAUSTEN EZ DEN MENU ORRIA
Menu hautsezina erresistentzia handiko materialekin egina dago.

Neurriak:
14x30 cm | 15x21 cm | 15x42 cm |
21x30 cm | 30x42 cm |
Papera: 450 g. hautsezina
Aukeran matea edo distiraduna



MENU ZABALGARRIA



KRAFT MENU ZABALGARRIA



MENU KATALOGOA



MENU ENKAPSULATUA



KRAFT PAPEREZKO MAHAI-OIHALA



MAHAI-OIHAL HAUTSEZINA



PLASTIKOZKO MAHAI-OIHALA



PVCzko MAHAI-OIHALA

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU
AURRE
KONTUA

EZKONTZAK

- **Blaise Dunoyer** eta **Marie Christine Del Negro**, azaroaren 2an Saran.
- **Benjamin Adam** eta **Melusine Ahamadar**, azaroaren 9an Saran.

SORTZEAK

- **Ane Etxeberria Luis**, Lesakakoa, azaroaren 3an.
- **Unax Apeztegia Aldabe**, Doneztebekoa, azaroaren 4an.
- **Izei Gamon Peña**, Arantzakoa, azaroaren 12an.



ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
 Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
 Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

IRACHE
 tanatorioak
 Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
 ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
 Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

OROIGARRIA

Jose MARITORENA LARRALDE

2015/12/01
IV. urteurrena

Zu gabe bizitzea
 gogorra izan arren,
 betiko gure bihotzetan zaude

ZURE FAMILIA



HERIOTZAK

- **Joseph Jorajuria**, Sarakoa, urriaren 29an, 87 urte zituela.
- **Jeanne Nesprias**, Sarakoa, azaroaren 1ean, 98 urte zituela.
- **Marie Perugorria**, Sarakoa, azaroaren 6an, 93 urte zituela.
- **Pedro Sansiñena Alberro**, Iturengo, azaroaren 6an, 85 urte zituela.
- **Jacques Charles Horvath**, Berakoa, azaroaren 8an.
- **Julian Agirre Iparrea**, Arizkungoa, azaroaren 9an, 55 urte zituela.
- **Mercedes Arrupe Arandia**, Lesakakoa, azaroaren 13an.
- **Juan Etxart Sarratea**, Berakoa, azaroaren 14an, 88 urte zituela.
- **Maria Cinta Portu Iraola**, Oierregikoa, azaroaren 14an, 86 urte zituela.
- **Maria Josefa Etxebeste Beola**, Berakoa, azaroaren 15ean, 83 urte zituela.
- **Maite Idoate Iribarren**, Elizondokoa, azaroaren 16an, 72 urte zituela.
- **Jose Luis Zelaieta Zubiri**, Igantzikoa, azaroaren 16an, 83 urte zituela.
- **Pedro Aleman Urrizola**, Iruritakoa, azaroaren 18an, 87 urte zituela.

BEILATOKIAK
 ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
 Bertizaranan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
 AQUÍ, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

BB

BAZTAN
 BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
 BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
 MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
 ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



Nafarroako bertso munduko emakumeen topaketa. Bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak, bertso eskoletako ikasleak... Nafarroako Bertsozale Elkarteko Feminismo Batzordeak bultzatuta, herrialdeko bertso munduko hogeit hamar emakume bildu ziren azaroaren 17an Lesakan. Sentsazioak eta esperientziak partekatu zituzten, berdintasunaren bidean hartu beharreko neurriak zehazteko diagnostiko gisara eta bazkari batekin borobildu zuten topaketa.



Ongi Izaite Eguna. Sarako terapeuta eta sendagileak ezagutzeko aukera izan zuten azaroaren 17an Lur Berri gelara hurbildu ziren bisitariek. Argazkian ageri diren antolatzaileak ere gustura gelditu dira, «esperientzia aberatsa» izan delako. Areago, «nahiz eta joan den urtean baino jende gutiago bildu, interes handia sortu du eta konferentzia eta tailerrek arrakasta polita bildu dute». 2020an, laugarrenez, eguna antolatzeko asmoa dutela iragarri dute.



Xorroxin Irratikoek bazkaria. Azaroaren 16an Lesakan bildu ziren eta mahai inguruan kontu kontari aritzeko aukera izan zuten.



Sanmartinak Aranon. Hilaren 9an, Iñaki Perurenaren hitzaldia eta talo jatea egin zituzten Aranon.



Legasako Arcelor Mittaleko langileek Jon Ruiz babestu dute. LAB sindikatuak jakitera eman zuenez, «Arcelorrek azaroaren 19an, epaitegian, Jon Ruiz langilea kaleratzea bidegabekeria izan zela» onartu zuen. Lankide talde batek Ruizi babesa adierazi nahi izan zion epaitegi aitzinean. Urte hasieran enpresak langilea kaleratu zuten proba tartea gainditu ez zuela argudiatuz, lehenagotik bertan bortz urtez lan egin bazuen ere. Horren ondotik, Langileen Batzordeak deituta, hiru eguneko greba ere egin zuten urtarri hondarrean.





Grebarako deia. Ortzegun honetarako deitu duten ikasleen grebarekin bat egin du Berako institutuko Ikasleok Tinko taldeak.

PLAZAN BAZAN



PUZZLEA

Hemengo pieza hauek
beheko puzzlearenak dira,
baina hamar falta zaizkigu
puzlea erabat osatzeko. Zeintzuk?
Non geldituko zaizkigu zuloak?
Gainera, hemengo piezetako bat
okerra da, ez dagokio puzzleari.
Zein da?



Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)

INTERNETEN ERE BAI !


<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ITZALA

Eta, bide batez, zein da Olentzeroren eta zakurraren itzal zuzena?



Ttipi Txartela

rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

746

aleko irabazleak >



ZOZKETAK


- Baztan Abentura Park - 2 sarrera**
Maddi Ane Txoperena Iribarren | LESAKA
- Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**
Francisco Javier Arretxea Manterola | SUNBILLA
- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Patxi Menta Nemours | ARIZKUN
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Fermin Gartziaarena Rekarte | LEGASA
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Jaione Alduntzin Estanga | LEITZA
- Martiko - lote bat**
Carmelo Berho Apezetxea | OROÑOZ-MUGAIRI
- Ibaizabal - Hiru liburu**
Jabier Bereau Mikelarena | ITUREN
- Ibaizabal - Hiru liburu**
Nekane Maia Almandoz | ARANTZA

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrerak



BAZTAN ESCAPE ROOM
www.baztanescaperoom.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat

LIBURUAK



- "33 ezkil" Iñigo Dierez
- "Katu" Miren Gorrotxategi

elkar

www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com